# XEDAPEN OROKORRAK

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

## 5333

*169/2019 DEKRETUA, urriaren 29koa, zeinaren bidez onartzen baita Gorbeiako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Planaren zati arauemailea, eta agintzen Parke Naturalaren eta Gorbeia ES2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana eta Kudeaketarako Gidalerroen eta Jarduketen Dokumentua osorik argitaratzeko.*

Gorbeiari, bere natura-balio handiagatik, Naturagune Babestuaren izaera aitortu zitzaion. Naturagune babestuak apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onesten duenak (aurrerantzean, NKLTB), arautzen ditu. Arau horretan, bi tipologia gainjartzen dira: batetik, parke naturala da Gorbeia, ekainaren 28ko 228/1994 Dekretu bidez deklaratua, eta, bestetik, martxoaren 8ko 40/2016 Dekretuaren arabera, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua (KEB) ere bada.

Parke Naturalari dagokionez, NKLTBren 20. artikuluak honako hau galdatzen du: Natura Baliabideak Antolatzeko Plan (NBAP) bat izatea; 20. artikuluak aipatutako NBAP ekainaren 28ko 227/1994 Dekretuaren bidez onetsi zen. Halaber, 27. artikuluaren arabera, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana egin beharko da, honako eduki honekin egin ere: naturagunea kudeatzeko arauak, gidalerroak eta irizpideak; naturagunean egingo diren ekonomia- eta aisialdi-jarduerak antolatzeko arauak eta naturagunearen helburu zehatzak garatzeko programak lantzeko gidalerroak.

Bestalde, Natura 2000 Sarea tipologiaren ondorioz, beharrezkoak diren kontserbazio-neurriak hartu beharko dira. Xede hori betetzeko, NKLTBren 22.5 artikuluak, batetik, Eusko Jaurlaritzari agintzen dio kontserbazio-arauak ezartzeko –arau horiek jada aipatu den martxoaren 8ko 40/2016 Dekretuaren bidez onetsi ziren–, eta, bestetik, foru-organoei galdatzen die naturagunea kudeatzeko gidalerroak onesteko.

Gainera, NKLTBren 18. artikuluak xedatzen du naturagune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, eta hori da Gorbeiaren kasua, horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko direla, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplika daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin.

Aurrekoa betetzeko, II. NBAP honek izaera bikoitza dauka: batetik, NKLTBren 27. artikuluan aurreikusiriko tresna da Gorbeiako Parke Naturalarentzat, eta, bestetik, Natura 2000 Sarea kudeatzeko ezartzen diren gidalerroak onesten ditu, NKLTBren 22.5 artikuluaren bigarren paragrafoan adierazitakoa betez. Hori guztia, dokumentu bakar batean jasotzen da, NKLTBren 18. artikuluak aurreikusitako moduan.

Izapidetzerakoan, NKLTBren 29. artikuluan ezarritako urratsak jarraitu dira; era berean, nabarmendu beharrekoa da, izapidetze horretan, EAEko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean izandako koordinazioa. Gorbeiako kudeatzaileak diren Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, NKLTBren 25. artikuluan eta 228/1994 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Gorbeiako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana landu eta izapidetu dute. Arabako Foru Aldundiak urtarrilaren

26ko 14/2017 Foru Aginduaren bidez eta Bizkaiko Foru Aldundiak urtarrilaren 26ko 817/2017 Foru Aginduaren bidez, honako hau ebatzi zuten: hasiera ematea Gorbeiako II. NBAP onesteko prozedurari; plan horrek bi helburu erdiesteko balio behar zuen: bai parke naturalarentzat, bai KBEren kudeaketa-gidalerroei eta -jarduerei dagokienez. Dokumentu horrek, aldi berean, bi hilabetez, honako izapideak bete zituen: entzunaldi-izapidea egin zen, planak eragiten zien administrazioekin zein gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-interesen ordezkari diren elkarteekin; informazio publikoaren izapidea, ostera, pertsona interesdunekin bete zen. Kide anitzeko organoen nahitaezko txostenak ere eskatu ziren. Parke Naturalaren Patronatuak II. NBAPren dokumentua eta kudeaketarako gidalerroen eta jarduketen dokumentua onetsi zituen 2017ko urriaren 30ean. Ondoren, hasierako onespena eman zioten dokumentuari Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak –2018ko otsailaren 27an eta 2018ko apirilaren 10ean, hurrenez hurren–, eta hirigintza-gaietan eskudunak diren EAEko Administrazio Orokorreko eta foru-aldundietako organoei bidali zitzaien, zeinek aldeko txostenak eman baitzituzten.

Aurreko izapideen ostean, II. NBAP behin betiko onetsi zuten Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, hurrenez hurren 2018ko maiatzaren 29an eta 2018ko ekainaren 19an egindako bileretan. II. NBAPean ezartzen dira, alde batetik, NKLTBren 29.e) artikuluaren arabera parke naturalaren kudeaketan erabiliko diren gidalerroak, irizpideak eta erregela orokorrak, eta, beste alde batetik, 22.5 artikuluaren bigarren paragrafoarekin bat etorriz, Natura 2000 Sarearentzako kudeaketa-irizpideak. Kudeaketa-irizpide horiek, kontserbazio-helburuak erdietsi ahal izateko, barnean hartzen dituzte naturagunea kontserbazio-egoera onenean mantentzeko neurri egokiak zein habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea saihesteko neurri aproposak, bai eta eremu horien izendapena ekarri duten espezieei eragiten dieten aldaketak ere.

Parke naturalari aplikatuko zaion zati arauemailea Eusko Jaurlaritzaren esku utzi dute Arabako eta Bizkaiko foru-aldundiek, hark dekretu bidez onar dezan, eta argitara dadin Gorbeiako naturaguneak eraenduko dituen dokumentuarekin batera. Dekretu honen bidez, bi eginkizun horiek betetzen dira.

Orobat, adierazi behar da naturaguneak NBAP daukala, 227/1994 Dekretuaren bidez onetsia izan zena, bai eta Natura 2000 Sarea eraentzeko arauak ere, 40/2016 Dekretuaren II. eranskinean jasota daudenak. 40/2016 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenean ezarritako gidalerroak betez, dokumentu bakar batean bateratzen dira 227/1994 Dekretua eta 40/2016 Dekretua; dokumentu bakar hori, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da, eta bateratzeko prozedura hasi zen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko ekainaren 30eko Agindu bidez (Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren Agindua, hasiera ematekoa Gorbeiako Parke Naturaleko Natura-baliabideak Antolatzeko Plana landu eta prestatzeko prozedurari eta Parke Naturalaren mugak aldatzeko prozedurari). Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana aipaturiko bi dokumentuekin bat dator.

Horrenbestez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren proposamenari jarraituz, NKLTBren 22.5 eta 29. artikuluekin bat etorriz, Gobernu Kontseiluak 2019ko urriaren 29an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Zati arauemailea onestea.

Behin betiko onestea Gorbeiako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Planaren zati arauemailea, planaren lehenengo zatiaren bigarren atalean jasota dagoena.

2. artikulua.– Argitalpena.

Dekretu honen eranskin gisa argitaratzea Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Planaren testu osoa eta Parke Naturalaren zein Gorbeia ES2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBEren) Kudeaketarako Gidalerro eta Jarduketen Dokumentua.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da martxoaren 31ko 66/1998 Dekretua, Gorbeiako Parke Naturalaren erabilerarako eta kudeaketarako plan zuzentzailearen zati arautzailea onartzen duena eta osorik argitaratzeko agintzen duena.

## AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 29an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA, URRIAREN 29KO 169/2019 DEKRETUAREN

# GORBEIA *ES2110009* KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMURAKO (KBE) ETA PARKE NATURALERAKO ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO II. PLANA ETA GIDALERROEI ETA JARDUKETEI BURUZKO AGIRIA

MARTXOAREN 8KO 40/2016 DEKRETUAREN III. ERANSKINA



2018ko urtarrila

Arabako Foru Aldundia. Ingurumen eta Hirigintza Saila
Bizkaiko Foru Aldundia. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

## AURKIBIDEA

### 1. ZATIA. KUDEAKETAREN LABURPENA

**1. XEDAPEN OROKORRAK ........ 3**

1.1. IZAERA ........ 3
1.2. HELBURUAK ........ 3
1.3. HELBURU OROKORRAK ........ 4
1.4. INDARRALDIA ETA BERRIKUSTEKO BALDINTZAK ........ 5

**2. NATURA EREMU BABESTUA KUDEATZEKO ARAUAK ........ 6**

2.1. BIODIBERTSITATEA ZAINTZEA ........ 6
2.2. ZIENTZIA- ETA IKERKETA-JARDUERA ........ 6
2.3. BASO-JARDUERA ........ 6
2.4. ABELTZAINTZA-JARDUERA ........ 7
2.5. KUDEAKETA HIDROLOGIKOA ........ 8
2.6. EHIZA- ETA ARRANTZA-JARDUERA ........ 8
2.7. ERABILERA PUBLIKOA ........ 9
2.8. ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK ........ 14

**3. KUDEAKETA-GIDALERROAK ETA JARDUKETA-NEURRIAK ........ 16**

3.1. BIODIBERTSITATEA ZAINTZEA ........ 16
3.2. ZIENTZIA- ETA IKERKETA-JARDUERA ........ 35
3.3. BASO-JARDUERA ........ 36
3.4. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINTZA-JARDUERA ........ 37
3.5. KUDEAKETA HIDROLOGIKOA ........ 39
3.6. EHIZA- ETA ARRANTZA-JARDUERA ........ 41
3.7. ERABILERA PUBLIKOA ........ 42
3.8. TOKI-GARAPENA ........ 45
3.9. ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK ........ 46

**4. KUDEAKETA ESTRATEGIA ........ 49**

4.1. PLANTEAMENDU OROKORRA ........ 49
4.2. BABESEKO, BALIABIDEAK ONIK ZAINTZEKO ETA GARAPENEKO PROGRAMA ZEHATZAK ........ 50

### 2. ZATIA. KARTOGRAFIA ETA ERANSKINAK

KARTOGRAFIA

1. ERANSKINA. ERABILERAK MUGATZEAGATIKO KONPENTSAZIO SISTEMA ETA BASO ERABILERARAKO LAGUNTZA SISTEMA

1. AURREKARIAK ........ **¡Error! Marcador no definido.**
2. ERRENTA GALERAK KONPENTSATZEKO BIDEAK... **¡Error! Marcador no definido.**
3. BESTELAKO KONPENTSAZIOAK ...... **¡Error! Marcador no definido.**

2. ERANSKINA. KBE-KO FUNTSEZKO ELEMENTUEI LOTUTAKO NEURRIEN BALORAZIO EKONOMIKOA

Enero 2018

# 1. ZATIA. KUDEAKETAREN LABURPENA

## 1. XEDAPEN OROKORRAK

### 1.1. IZAERA

Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko bigarren Plana prestatu da honako arautegi hauekin bat: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko Legearen testu bategina onartzen duena) eta Gorbeia natura parkea izendatzeko 228/1994 Dekretuarekin bat. Natura 2000 Sarearen Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Natura Parke gisa babestutako natura eremuaren adierazpena emateko helburuekin bat etorriz beharrezkotzat jotzen den bezainbeste xedapen.

### 1.2. HELBURUAK

Ekainaren 28ko 228/1994 Dekretuaren, Gorbeiako Parke Naturala izendatzekoaren, 8. artikuluaren arabera, eta Natura 2000 Sarearen espazio bat kudeatzeko tresna gisa, Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzendari honek xede hauek dauzka:

a) Erabilerak eta jarduerak antolatzeko arauak, eta natura eremu babestuari dagozkion xedeak betetzen direla bermatzeko eta espazio horren kudeaketako funtsezko elementu diren habitat eta espezieen kontserbazio egoera ona ziurtatzeko baliabide naturalak mantentzea eta leheneratzea ziurtatzeko behar diren jarduerak definitzea eta garatzea.

b) Natura Eremu Babestuaren balioen kontserbazioaren, natura baliabideen zentzuzko kudeaketaren eta inguruneko garapen iraunkorraren arteko bateragarritasuna, koherentzia eta sinergiak bilatzea.

c) Natura eremu babestuaren barruan garatzen diren jarduera sozioekonomikoak arautuko dituzten xedapenak zehaztea.

d) Natura eremu babestuaren eta haren inguruaren artean harreman orekatsuak bultzatzen dituzten neurriak sustatzea.

e) Natura eremu babestu hau izendatzea eta deklaratzea eta ondoren Natura 2000 Sarearen barruan sartzea eragin zuten balioei lotutako paisaiak eratu edo mantentzen dituzten erabilera edo aprobetxamendu tradizionalak eta berritzaileak sustatzea. Beharrezkoa bada, administrazioaren eta jabeen artean lankidetza mekanismoak sortuko dira.

f) Natura Eremu Babestua kudeatzeko gidalerro, irizpide eta jarraibide orokorrak ezartzea.

g) Natura Eremu Babestuaren helburu zehatzak garatzeko programak egiteko gidalerroak ezartzea, babesari eta kontserbazioari, naturaren gertakarien interpretazioari, ingurumen hezkuntzari, natura eremuaren erabilera eta gozamen ordenatuari, ikerketari eta natura eremu babestuan edo haren eraginpeko ingurunean bizi diren komunitateen garapen sozioekonomikoari dagokienez.

## 1.3. HELBURU OROKORRAK

Natura Baliabideak Antolatzeko Planean ezarritakoaren ingurumarian, eta Natura 2000 Sarearen Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzeko dekretuan ezarritakoaren esparruan, honako hauek dira Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren helburuak:

### 1.3.1. Biodibertsitatea zaintzeko helburuak

- 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskinean aipatutako habitat naturalentzat eta zuzentarau horren II. eranskinean zein 2009/147/EE Zuzentarauan azaltzen diren espezieen populazioentzat onuragarria den zaintze egoera mantentzea edo berrezartzea. Horiek guztiak Gorbeiako Natura Parkean daude.

- Eskualde interesa duten flora eta fauna espezieen populazioentzat onuragarria den zaintze egoera mantentzea edo berrezartzea, natura parkearen eskualdeko eta tokiko berezitasunak kontuan hartuta

- Konektibotasun ekologikoa bultzatzen duten paisaiaren elementuen funtzionaltasuna mantentzea edo berrezartzea, bai tokikoa bertakoa, bai Natura 2000ko gainontzeko tokietakoa.

### 1.3.2. Garapen sozioekonomikoko helburuak

- Eremuko biztanleentzako zerbitzu eta ekipamendu maila egokiak lortzea, azpiegiturak sortuz, beharrezkoa izanez gero.

- Jarduera tradizionalak hobetzea eta natura ondarearen elementuak eta biodibertsitatea zaintzeko eskaerekin bateragarriak diren beste batzuk sustatzea, beharrezkoak diren ordainen bidez.

- Ekoizle eta enpresariak kontzientziatzea natura ondarearen elementuak eta biodibertsitatea zaintzearekin bateragarria den moduan erabil ditzaten, aprobetxamenduak mantentzeko eta natura ingurunea zaintzeko. Hori horrela, egur egiaztatua eskuratzeak agerian utziko du helburu hori eta baliabidearen balio erantsia izango da.

- Inguruan kokatutako edo kokatu beharreko eraikinek eta azpiegiturek sor ditzaketen eraginak gutxitzea eta zuzentzea, ingurunean eta paisaian integratzen direla bermatze aldera.

- Tokiko biztanleak natura eremua babesteko eta kudeatzeko sortutako jardueretan integratzea

- Landa etxebizitza birgaitzea eta arkitektura ondarea mantentzea.

- Kultura, zientzia, pedagogia eta aisialdiko ekimenak bultzatzea.

### 1.3.3. Hezkuntza, dibulgazio eta ikerketarako helburuak

- Biztanleak natura ingurunera eta landa jardueretara hurbildu nahi dira, ingurune hau hobeto ezagut dezaten eta natura zaindu beharraz jabetu daitezen.

- Jendea Parke Naturalera hurbiltzea sustatzea, informazio eta zabalkunde sistema bat ezarriz, horrela eremuak dauzkan paisaia, kultura eta natura mailako balioak ezagutu ahal izateko, baina era berean eremuaren izaera gordez.

- Natura parke babestuaren baliabideak bai eta haren erabilerak eta denboran izandako bilakaera ere aztertzeko eta ikertzeko jarduerak sustatzea.

- Natura Eremu Babestuan erabilera publikorako aukera ematen duten programak, zerbitzuak eta ekipamenduak garatzea

- Erabilera publikoko jarduerek sor litzaketen balizko eraginak gutxitzea.

- Erabilera publikoa bisitariarentzat ziurra izan dadin beharrezkoak diren ekintzak abian jartzea.

- Ingurumen hezkuntzako programak garatzea natura eta kultura ondarea eta jarduera sozioekonomiko jasangarriak hezkuntza baliabide gisa erabilita.

- Azterlanak eta ikerketak egin ditzaten sustatzea, helburu gisa inguruaren kudeaketa erraztea, balioen, arazoen eta balizko konponbideen ezagutza sakontzea duten heinean.

- Azterlanetan eta ikerketa proiektuetan lortutako informazioaren antolaketa eta hedatzea hobetzea eta, zehazki, horren eskuragarritasuna natura parkearen kudeaketan aplikatu ahal izateko

## 1.4. INDARRALDIA ETA BERRIKUSTEKO BALDINTZAK

Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plan honek gehienez ere bost urteko indarraldia izango du, eta epe hori amaitu baino lehen berrikusi ahalko da, hura idazteko irizpideak aldatzen badira eta/edo proposaturiko jardunek ez badituzte lortzen planteaturiko xedeak.

Baldin eta Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren indarraldia igarota, ez bada behin betiko onartu hura berrikustea, haren xedapenak aldi batez aplikatzen jarraituko dira, harik eta haren berrikuspena behin betiko onartu arte.

## 2. NATURA EREMU BABESTUA KUDEATZEKO ARAUAK

### 2.1. BIODIBERTSITATEA ZAINTZEA

Natura Eremu Babestuaren biodibertsitatea kontserbatzeko helburu eta arauak KBE izendapenarekin eta Gorbeiako Natura Baliabideak Antolatzeko Planean (NBAP) ezarritakoak dira.

### 2.2. ZIENTZIA- ETA IKERKETA-JARDUERA

a) Natura Eremu Babestuan egiten den zientzia edo ikerketa jarduera oro kudeaketa organoari jakinarazi beharko zaio. Horrek edozein material kendu edo biltzea dakarrenean, edota hango ingurune naturala eraldatzea dakarrenean, beharrezkoa izango da berariazko baimena edukitzea. Organo horrek egiaztatuko du ikerketak ez duela eraginik izango Natura Eremu Babestua kontserbatzeko helburuekin.

b) Zientzia eta miaketa jardueren kasuan, Natura Eremu Babestuko baliabideen ezagutzan egiten den edozein aurrerakuntza: barrunbe berriak, elementu berriak edo horien galeriak, kartografia sortzea, informazio faunistikoa eta abar, horren guztiaren berri eman beharko zaio Natura Eremu Babestuko Kudeaketa Organoaren arduradunari, aurkikuntzen eskubide intelektualak gorabehera. Bestalde, organo horrek informazio hori argitaratzeko eta/edo zabaltzeko laguntza eta bide emango du, betiere informazio hori argitaratzeak arriskuan jartzen ez badu kontserbatzeko diren habitat, espezie edo prozesuen aldeko kontserbazioa eta indarrean dagoen legeriaren aurka ez badoa.

c) Gorbeiako lan zientifiko eta teknikoetan, plan honen helburuari lotuta egon eta baliabide publikoekin kontratatu eta finantzatzen diren guztietan, herritarrek erraz ulertzeko moduko dibulgazioko laburpen dokumentu bat izango dute eta eskatzen duten alderdi interesdun guztiei helaraziko zaie.

### 2.3. BASO-JARDUERA

a) Kudeaketa Organoak denbora batez eten ahalko ditu baso jarduerak, jarduteko helburu den gunean katalogatutako espezieak antzematen direnean.

b) Mendi publikoak antolatzeko plan eta proiektuak edo haien berrikuspenak egingo dira "Mendiak Antolatzeko Proiektuak" gidaliburuan ezarritako arau eta KBE gisa izendatzeko ezarritako irizpideen arabera. Plan horiek biodibertsitatea kontserbatzeko eta hobetzeko eskakizun berrietara egokituko dira, baso biodibertsitatea babesteko, basoen naturaltasun eta integritate ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuak ematea bermatzeko helburuak, adierazle neurgarri eta bereziak barne.

c) Baso aprobetxamendurako lanetan, sor daitezkeen hondakin guztiak jaso beharko dira (kableak, kateak, lubrifikatzaileen ontziak, jatekoen hondarrak, etab.), eta ezingo dira makinak konpondu edo bestelako ekintzak egin, baldin eta natura ingurunean olioa eta lubrifikatzaileak erortzeko arriskua badakarte.

d) Kontuan izan beharko da 630/2013 Errege Dekretua; horren bidez, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa arautzen da. Baso eragiketetan erabiltzen diren makinek garbi egon beharko dute, ingurunean finka daitezkeen espezie inbaditzaileen hazi edo propaguluak ekar dezaketen lokatz edo lur hondarrik gabe. Ahalegin berezia egingo da inguruan dauden *Cortaderia selloana*ren aleak kontrolatzeko.

e) Oro har, egur metaketa horretarako gaituta dauden parkeetan egin beharko da. Aldi baterako pilaketak eginez gero, horiek ez dira egingo:

- Dauden ibilguen gainean, ez eta zortasunean ere.
- Dauden seinaleetatik hurbil.
- Parkinetatik, atsedenguneetatik edo harrera zonetatik hurbil.

## 2.4. ABELTZAINTZA-JARDUERA

a) Larreak eraldatu eta hobetzeko edozein jardun Larregintzako Baliabideak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Planaren esparruaren baitan egingo da, eta, aldez aurretik, Natura eremu Babestuaren Kudeaketa Organoak emandako baimena behar izango da.

b) Natura Eremu Babestuko udalek eta administrazio batzordeek beren mendi publikoetan bazkatzen diren abereen erregistroa edukiko dute, eta baita haietan instalatutako erlauntzen erregistroa ere. Kanpaina bakoitzean, Kudeaketa Organoari jakinarazi behar zaio zein ganadu mota eta kopuru erregistratzen diren. Larre publikoetara sartuko diren abelburu guztiak erregistratu behar dira, haien adina edozein dela ere.

c) Gorbeiara bazkatzera doazen animalien titularrak bere erantzukizunpean egiaztatu beharko du bete egiten dituela Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan derrigor bete beharreko araudiak, orokorrak direnak eta berariazkoak direnak.

d) NEBeko mendi publikoetan, larre aprobetxamendua eteteko aldia, gutxienez, bi hilekoa izango da, animalien osasun kontrola egiteko eta larreei neguko atsedena emateko. Aldi hori handiagoa izan daiteke, baldin eta Larreak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko Planak hala erabakitzen badu. Halakorik egon ezean, mendietako erakunde titularrek larreak erregulatzeko ordenantzak eman beharko dituzte, Natura Eremu Babestua zaintzeko eta kudeatzeko gidalerroei eta tresnen arauei men eginez.

Artzaintza egutegiak urtero berrikusiko dira eta aldatu ahalko dira klimaren egoeraren arabera edo behar bezala justifikatutako bestelako arrazoien arabera. Horretarako, NEBen Kudeaketa Organoari eskatu beharko diote egutegia aldatzeko, eta organoak haren aldeko irizpena eman beharko du.

e) Natura Eremu Babestuko lur publikoetan ohikoa ez den beste abere mota bat erabiltzeko, hau da, ardia, zaldia, behia, ahuntza eta erlezaintza ez den ganadua edo jarduera edukitzeko, Kudeaketa Organoaren baimena beharko da.

f) NEBeko Kudeaketa Organoak kendu egingo ditu lursail publikoan eta NBAPan bete gabe ikusten dituen ahuntz guztiak. Titularrak hori onartuko ez balu, edo inongo erregistrotan ageriko ez balitz, kasu bakoitzean egokien uste den neurria hartu ahalko da. Hiltzeko erabakia ere hartu ahalko da, beste era batera bertatik ateratzea ezinezkoa den kasuan.

g) Identifikatu gabe edo EKAP honetako udal ordenantzak edo zehaztapenak betetzen ez dituen abererik aurkituz gero, kendu egingo da NEBetik. Kentze horretatik eta hura mantentzetik eratorritako kostuak hartutako aberearen titular den pertsonaren konturakoak izango dira.

h) Debekatuta dago abereak hilik uztea Gorbeiako sima, arrail edo ur ibilguetatik hurbil. Hala ere, goroztegiak egokituz gero, gizendegi horiek zuzkitzeko mekanismoak antolatuko lirateke.

i) Abere ustiategietako titularrek zorrozki bete beharko dituzte administrazioetako zerbitzu teknikoetatik ematen diren osasun arauak Tratamendu zoosanitarioak larre publikoetara jo aurretik emango dira; hala ere, kanpainan zehar batzuk errepikatu egin beharko dira. Abeltzaintza elkarteek kontrolatu egin beharko dute bainuontzien erabilera eta Kudeaketa Organoari jakinarazi tratamenduen unea eta lekua. Horietan, konposatu organokloratuak (lindanoa edo beste batzuk) ez dituzten produktuak erabiliko dira eta hondakinak tangetan bilduko dira, gero, husteko.

j) Erlategiek beharrezko segurtasun neurriak izan beharko dituzte, horiek arriskutsuak ez izateko NEBeko gainerako erabiltzaileentzat; bestela, Kudeaketa Organoak kokapen aldaketa dekretatu ahalko du. Arau orokor modura, seinaleztaturik, hesiturik eta erabilera publikoko elementuetatik urrun egon beharko dira, adibidez Parkeko etxeetatik, aisialdiko eremuetatik... urrun. Gainera, kasu guztietan, otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuan, erlezaintza antolatzearenean, xedatutakoa bete beharko da.

k) Larreak hobetzeko helburuarekin egiten diren sastraka garbiketetan, aintzat hartuko da paisaian izango den eragina. Sestra kurbekiko perpendikular diren lerro zuzenak saihestu egingo dira. Halaber, sastraka garbiketak mosaikoan egingo dira, larreak hobetu nahi diren tokiko sasitzaren % 100 ez garbitzeko. Sasitzak kentzeko ehunekoa eremuko Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Planak ezarritakoa izango da.

l) Debekatuta dago mendi larreetan ongarriak eta kareztadurak erabiltzea eta zuzenketak egitea, berariaz Kudeaketa Organoaren baimena eduki ezean; kasu horietan, erregistroa egingo da (kopuruak, datak, jatorria eta ongarriaren izaera).

## 2.5. KUDEAKETA HIDROLOGIKOA

a) Erriberako landaredian edo ibilguan zuzenean eragina duten eta eskumena duen Administrazio Hidraulikoaren (Konfederazio Hidrografikoa edo Uraren Euskal Agentzia) baimena behar duen edozein jarduketaren berri eman beharko dio Kudeaketa Organoak, kontsulta egin ondoren, organismo horri, dagokion izapide baimenduaren esparruan.

b) Uren araudiari jarraikiz, oro har, debekatuta dago urak edo kontinenteetako urak edo jabari publiko hidraulikoko beste edozein elementu kutsa ditzaketen urak eta hondakin produktuak zuzenean edo zeharka isurtzea, ez bada aurretik administrazio baimen egokia eskuratzen, zeina arro eskuduneko organismoak eman beharko baitu.

c) Azaleko uren aprobetxamenduek, erabilera edozein dela ere, ez dute emari ekologikoaren etenik ekarriko ibilguetan, indarrean dagoen araudiaren arabera. Aldentzeek aukera eman beharko dute naturaltasunez zirkulatzeko gutxieneko emari ekologikoek iturri dituzten erreketan. Emari ekologiko horiek, oro har, indarrean dagoen plangintza hidrologikoan ezarritakoak dira; hala ere, berrikuspenetan lekuaren funtsezko elementua eratzen duten habitat eta espezieen eskari ekologikoetara egokitutako emariak ezartzen dira.

## 2.6. EHIZA- ETA ARRANTZA-JARDUERA

a) NEBerako Ehiza Antolamentuaren Plan Teknikoa idatzi bitartean, aplikagarria izango da 2/2011 Legea, Euskadiko ehizarena, bai eta Bizkaiko eta Arabako ehiza arautzen duten urteko foru aginduak ere. Kudeaketa Organoak, kontserbazio motiboak direla eta, aldatu

edo mugatu ahalko ditu xedapen horiek NEBean (kupoak, modalitateak, postu lerroak…).

b) NBAPan ezarritakoa oinarri hartuta, kirol arrantza debekatuta geratzen da, oro har, Gorbeia NEBeko ibai eta erreketan. Kudeaketa Organoak baimena eman ahalko du arrantza jarduerak egiteko ibaien beheko tarteetan, betiere horiek bateragarriak badira fauna eta florako populazioak eta NEBean dauden Batasunerako kontserbaziorako intereseko habitatak kontserbatzeko helburuekin.

c) NBAPan ezarritakoa oinarri hartuta, debekatuta daude fauna zinegetikoko edo arrantza faunako espezie eta/edo aldagaiak askatzea edo birpopulatzea, bai ekimen pribatuz, bai publikoz, baldin eta mehatxu faktore izan ahal badira NEBean dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieentzat.

d) NEBean igarobide librea eta baimendua duen pista saretik eta aisialdi eremuei uztartutako aparkamenduetatik kanpo, ehiza jarduerekin zerikusia duten ibilgailuek zirkulatzeko eta aparkatzeko beharrezkoa izango da kudeaketa organoak emandako baimena edukitzea.

e) Legez baimendutako usotarako postuak behar bezala identifikatuta eta seinaleztatuta egon beharko dira, behinik behin ehiza garaiak iraun bitartean. Postu horiek eraiki edo konpontzeko eta horien egitura edo kokapenen bat aldatzeko, Kudeaketa Organoaren baimena beharko da.

## 2.7. ERABILERA PUBLIKOA

a) Natura Eremu Babestuaren Kudeaketa Organoak bere iritziz funtsean beste jarduera batzuk egoki egitea eta/edo ekosistemek behar bezala funtzionatzea aldatzen duen edozein aisia jarduera debekatu ahalko du. Debeku hori erabatekoa edo zona batzuetara murriztua izan ahalko da, eta sentikortzat jotzen diren datetan.

b) Baimena izango dute espresuki debekatzen ez diren jarduera guztiek, ez badaude nabarmenki Natura Eremu Babestuaren helburuen aurka.

c) Natura Eremu Babestuaren barruan debekatuta dago:

- Bitarteko motorizatuak erabiltzen dituzten aisia jarduerak. Ez daude baimenduta, bestalde, NEBen barruan kirol proba motorizatuetako probak, zirkulazio libreko bideak barne, baina NEB foru edo eskualde errepideen bidez zeharkatu ditzaketenak salbu.
- Edozein fauna ale biltzea, baimenik gabe, larbak, kumeak edo arrautzak barne.
- Egurra aisia modura moztea eta sua horretarako egokitutako lekuetatik kanpo egitea: aisialdi eremuetako barbakoetan eta aterpetxeetan.
- Kanpaldi librea. NEBen gau bat egin daiteke, gautu baino bi ordu lehenagotik argitu eta bi ordura arte, baina sekula ez bi gau elkarren segidan. 6 pertsona baino gehiagoko taldeetarako, gaua atsedenguneetan eman beharko da. Ezingo da, inolaz ere, gaua Babes Bereziko Zonetan eman, NEBeko Kudeaketa Organoak horretarako baimen berezia eman ezean. Erabilera Publikoko Planak gehiago zehaztuko ditu jarduera egiteko baldintzak.
- Aparkatzeko seinaleztatu diren eremuetatik kanpo ibilgailuak aparkatzea. Halaber, beren-beregi debekatuta geratzen da, larrialdietan izan ezik, Natura Eremu Babestua zeharkatzen duten errepideetako bazterbideetan aparkatzea.

- Natura Eremu Babestuan 30 km/h baino azkarrago ibiltzea, joan-etorri libreko errepideetan izan ezik.
- NEBeko lasaitasuna eta baretasuna apurtzea, ihes libreko ibilgailuen, megafonoen, pirotekniaren, klaxonen, musika tresnen edo antzekoen bidez.
- Natura Eremu Babestuko egonguneetan (atsedenguneak eta erabilera publiko intentsiboko beste zona batzuk) eta larratze eremuetan, artaldeak NEBen dauden aldian, txakurrak edo lagun egiteko animaliak solte izatea, lan egiten ari diren artzain txakurrak eta ehiza txakurrak ere, azken horiek ehizarako aldian. Solte dauden txakurrek eragindako erantzukizun eta zehapenetarako, Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateratuan ezarritakoa, 1/2014 Legegintzako Dekretua bete beharko dira. Arriskutsuak izan daitezkeen arrazako txakurrek (*101/2004 Dekretuak, ekainaren 1ekoak, EAEn txakurrak izatearenak* ezarritakoaren arabera) une eta leku guztietan egon beharko dute lotuta eta muturrekoarekin.
- Balizatzea eta pinturekin edo ibilbideetarako kendu ezin diren beste elementu batzuekin markatzea, GR, PR edo NEBeko ibilbideetatik kanpo. Ahalik eta gehien mugatuko da hiri zonan eta NEBetik kanpoko azpiegituretan ez dauden seinale guztiak: errotuluak, plaka edo monumentu oroigarriak edo hiletakoak, mendizaleen gutunontziak edo antzekoak, modu iraunkorrean edo behin-behinean. Komenigarritzat joz gero, seinaleztapen hori Kudeaketa Organoak baimendu eta arautu beharko du.

d) Erabilera publikoarekin zerikusia duten jarduerak egiteko, Kudeaketa Organoak igarotzeko baimen bereziak eman ahalko ditu materiala eta pertsonak garraiatzeko igarobide mugatuko bideetatik.

e) Bidezidorren batean edo joan-etorrietarako bidean igarotzeko arazoak igarriko balira, Natura Eremu Babestuko Kudeaketa Organoak haren erabilera mugatu ahalko die oinezkoei eta ibilgailu motordunei. Muga hori erabat lehengoratu artekoa izango da.

f) Kudeaketa Organoaren baimena behar duten erabilera publikoko jardueren eskaera guztiak NEBeko zuzendariari bidaliko zaizkio, gutxienez hiru lanegun lehenago, jarduerak jendetsuak ez badira; azken horien kasuan, epea 10 lanegunera luzatuko da. Ematen diren baimenak eskatzailearen NANarekin batera erakutsi behar dira, basozainek eskatzen dituzten kasuan.

2.7.1.1. <u>Atsedenguneak</u>

a) Kudeaketa Organoak ibilgailuak aparkatzeko kuota ezarri ahalko du NEBera sartzeko bide nagusietako aparkalekuetan, bai behin-behinean, bai iraunkorki. Horrela, kuota hori haiek kudeatzeko tresna bihurtuko da.

b) Agorraldian Baia ibaira bainuak hartzera jende gehiegi joateagatik zaintze edo kutsadura arazoak igartzen badira, Kudeaketa Organoak neurri hertsatzaileak hartu ahalko ditu horri buruz.

c) Debekatuta dago Saldropoko zohikaztegiko hesien barrualdera sartzea, NEBeko Kudeaketa Organoaren berariazko baimenik gabe, Gorbeiako NEBen NBAPan adierazi bezala.

2.7.1.2. <u>Erabilera publikoko kirol jarduerak</u>

a) Natura Eremu Babestuan baimendutako kirol jarduerak honako hauek dira: mendi ibiltaritza, orientazioa, mendi atletismoa, mendiko txirrindularitza, zaldi ibilbideak, eskalada eta rappela eta espeleologia.

b) Zerrenda horretan aipatu ez diren jarduerek eta espazioaren natura, gizarte edo kultura balioen aldaketak dakartzatenek edo ekar ditzaketenek (adibidea: arroila jaitsiera, parapentea, motorrik gabeko askotariko hegaldia, arku tiroa, droneen hegaldia airemodelismoa, motordun ibilgailuak, etab.) Kudeaketa Organoaren baimena beharko dute.

c) NBAPan ezarritakoa oinarri hartuta, jarduera NEBen barrualdean, zati batean edo osorik, garatzen den edozein kirol ekitaldi antolatuk Organo Kudeaketaren baimena beharko du, eta egokitzat jotzen dituen mugak ezarri ahalko ditu eta ingurumen txostena emango du; txosten horretan, gutxienez, espazioan eta dokumentu honetan proposatutako funtsezko elementuetan eraginak murrizteko baldintzak ezarriko dira.

d) Jardueren trazadura NEBen funtsezko elementuen eskakizunen eta haren zonakatzearen menpe ipini ahalko da; hala, NEBen Erabilera Publikoko Planean ezartzen diren zona eta/edo aldiak saihestuko dira. Era berean, espazioan eta funtsezko elementuetan egon daitezkeen eraginak identifikatuko dira, beharrezko prebentzio eta zuzenketa neurriak ezarriko dira eta funtsezko elementuei buruzko jardueraren eraginaren segimendu protokoloa diseinatuko da.

e) Edozein motatako soinu erreproduzitzeko ekipoak edo inpaktu akustikoa sortu dezaketen ekipoak erabiltzen dituen erabilera publikoko edozein jarduerak berariazko baimena beharko du, eta horrek erabakiko du zein diren bete beharreko baldintza akustikoak, jardueraren iraunaldia eta sortzen den kokapenarekiko eta ingurunearekiko sentsibilitatea kontuan hartuta.

f) Muga bereziak orroaldian:

- Orroaldiaren datak irailaren hasieratik urriko bigarren astera bitarte joango dira, eta urtero finkatuko ditu horiek Kudeaketa Organoak.
- Oreinen sakabanatze geografikoa saihesteko eta ugaltzeko aldietan edo "orroaldietan" hautespen naturalaren alde egiteko helburu bikoitzarekin, beharrezkoa da espeziearentzat kritikoa den aldi horretan zehar ahalik eta gehien murriztea kanpotik datozen nahasmenduak NEBen isurialde arabarrean Aipatutako zonan hartu beharreko mugak, orroaldian zehar, hauek izango dira:
  - Pista eta bideetatik ibilgailuen joan-etorriak murriztea, baimendutako ibilgailuenak salbu.
  - Zaldiz edo mendiko bizikletarekin egiten diren ibilbideek, taldeka zein bakarka egin, Kudeaketa Organoaren baimena eduki beharko dute.
  - Bidezidorren erabiltzaileek eragindako nahasmenduak igarriko balira, Kudeaketa Organoak hausnartu egingo luke bidezidorren sare orokorretik kanpo bisitarien igarotzea debekatzea komeni den edo ez. Bestelako mugak ezartzea ere hausnartuko du.
  - Orroaldian zehar espeziearekin zerikusi zuzena duten jarduerek (entzutea, behatzea, argazkiak ateratzea, grabatzea, eta abar) Kudeaketa Organoaren baimena eduki beharko dute beren-beregi. Hark finkatu egingo ditu toki, ordutegi eta portaerei buruzko eskakizunak.

Muga horiek guztiak urtero jakinaraziko dizkie Kudeaketa Organoak eragindako udalei, administrazio batzordeei eta ehiza eremuei, eta dauden informazio paneletan erakutsiko dira.

g) NEB barruko edozein ibilbide balizen edo edozein informazio ekipamenduren bitartez eta/edo foiletoen edo bestelako argitalpenen bitartez sustatzeko beharrezkoa izango da haren Kudeaketa Organoaren onespena edukitzea. Organo horrek, esku hartzen duten elkarteekin batera, zaindu egingo du ibilbide hori diseinatu eta tratatzerakoan beharrezko koherentzia mantentzen dela. Helburua hura NEBeko Ibilbideen Sarean sartzea izango da eta, ahal bada, baita mendi federazioek ofizialki onartutako PR (ibilbide laburra) eta GR (ibilbide luzea) sareetan ere (*79/1996 Dekretuak, EAEn mendi ibiliak antolatzearenak*, xedatutakoaren arabera).

h) NEBetik kanpoko taldeek antolatutako ibilbideek, seinaleztatzea ezinbestekotzat jotzen bada, hango Kudeaketa Organoaren baimena eduki beharko dute eta baimenean markatu beharreko bidea, pertsona kopurua eta egingo den data zehatza jasoko dira. Baimendutako taldeak berak bidetik igarotzean kendu egin beharko du seinaleztapen oro.

i) Era berean, honako jarduera hauek, aurretik baimendu direnek, jarraian ezarritakoa bete beharko dute:

- <u>Orientazioa, mendi atletismoa:</u> taldeko kirol horiek Ibilbide Saretik kanpora egin nahi dituen edozein erakundek edo partikularrek bidali beharko dio Kudeaketa Organoari zonako maparen eta aurreikusitako ibilbideen track-aren kopia, dagokion jarduera baimena eskuratzeko. Ez da baimenik emango jarduera horiek Erabilera Publikoko Planean Erabilera Mugatu edo Zati batean Mugatu gisa (azaldutako datetan) ageri diren areetan egiteko, ez eta jarduera egiteko behar besteko ekipamendua (aparkalekua, sarbideak, etab.) ez duten zonetan ere.

- <u>Mendiko txirrindularitza eta zaldi ibilbideak:</u> Natura Eremu Babestuko bide sareetan baino ezingo dira egin: pistak, ibilbide sarea, bideak eta errepideak; ezingo da bide horietatik irten. Oinezkoek beti izango dute lehentasuna; beraz, oinezkoen eta bizikleta zaletuen edo zaldiz datozenen artean arazorik sortuz gero, aukera egongo da, zati batzuetan edota bide sare osoan, bizikletaz edo zaldiz ibiltzea mugatu edota debekatzeko.

- <u>Eskalada:</u> Eskalada foru-aldundiek ezartzen dituzten arauketa bereziek berariaz baimendutako bideetan baino ezingo da egin. Kudeaketa Organoak jarduera egoki garatzen dela ziurtatzen dituzten beharrezko arauketak ezarri ahalko ditu, bai eta, behin-behinean, hura mugatzea edo ezabatzea ere, arazorik eraginez gero.

    - Zehazki, debekatuta dago eskalada praktikatzea Muruako Harrobiko hormetan

    - Zehazki, Azkorrigane inguruan eskalada egiteko, Itxina arean, "Bizkaiko Lurralde Historikoko eskaladaren Arauketa Programa" bete beharko da; urtero argitaratzen du programa Bizkaiko Foru Aldundiak, bere web ofizialaren bidez, eta hura urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra mugatzen du.

- <u>Espeleologia:</u> kobetara bisita arautuko da, leku horietako natura eta kultura baliabideak kontserbatzeko balio altua duten elementu horiek erabiltzeko baldintzak zabaldu ahal izateko baimen sistemaren bitartez. Baimen sistema hori bisitari guztiei aplikatuko zaie.

  Itxinako Biotopo Babestuan sartutako barrunbeetara eta fauna balio bereziko beste koba batzuetara egindako bisitak mugatu egin ahalko ditu Kudeaketa Organoak. Gauzak horrela, lehentasuna emango zaie jarduera zientifikoei, kirol edo turismo jardueren aurretik Arauketa hori koherentea izango da saguzarrek kolonizatutako leizeen kasuan hartu beharreko irizpideak aurreikusten dituen Ondare Espeleologikoa Kudeatzeko Planarekin.

- Zehazki, debekatuta dago Itxulegor eta Legorras kobetara sarrera orokorra, kiropteroen lehentasunezko babesgune baitira. Barrunbe horietan, zientzia eta ikerketa jarduerak baino ez dira baimenduko, eta horiek Kudeaketa Organoak erabakitzen dituen baldintzei jarraikiz egin beharko dira, Gorbeiako NEBeko NBAPan adierazi bezala.

Gainerako barrunbeetara sartzeko, horren berri eman beharko zaio NEBeko Kudeaketa Organoari, eta horrek galarazi ahalko du horietara sartzea, horretarako arrazoiak azalduta, edo sartzeko baldintzak ezarri: pertsona kopurua, egoteko denbora, barrunbea mantentzeko intereseko konturen batean elkarlana (garbiketa, seinaleztapena, etab.).

Barrunbeen erabiltzaileek sortzen duten edozein zabor edo hondakin bildu, kanporatu eta toki egokietan utzi beharko dute.

2.7.1.3. <u>Erabilera publikoko jarduera antolatuak</u>

a) “Erabilera publikoko jarduera antolatu”tzat joko da Natura Eremu Babestuan pertsona talde batek edo erabilera publikoko ekipamenduak erabiliz garatzen duena. Horrelakoak pertsona fisikoek, erakunde publikoek edo pribatuek, irabazteko asmorik ez dutenek antolatzen dituzten jarduketen artekoak izaten dira, eta jendaurreko zabalkundea eman ahal zaie edo erakundearen barruko jarduera gisa gara daitezke. Besteak beste: erabilera publikoko merkataritza jarduerak; erromeriak eta erlijio ospakizunak; azokak eta ikuskizunak; erakusketak eta lehiaketak; erakundeek edo partikularrek deitutako bisitak, martxak eta/edo ibilaldiak, 25 pertsona baino gehiago daudenean; eskola kanpainak; auzolandegiak; kanpatzeak; boluntariotzako proiektu eta programak.

b) Antolatutako jarduerek NEBen Kudeaketa Organoaren berariazko baimena beharko dute, honako kasu hauetan:

- NEBeko ibilbide eta bide sareen bidez antolatutako erabilera publikoko jarduerak, 25 parte-hartzaile baino gehiago dituztenak edo jardueraren deialdi publikoan parte hartzaile kopuruari dagokionez mugarik ezartzen ez dutenak.
- Pertsonak NEBeko ibilbide sareetatik kanpo ibiltzea eta/edo sarbide libreko bideetatik kanpoko garraiobideak egotea eskatzen duten erabilera publikoko jarduera antolatuak.
- Zirkulazio murriztuko pista edo lurretatik doazen laguntza ibilgailuak erabiliko dituen erabilera publikoko edozein jarduera antolatu.
- Erabilera publikoko ekipamenduen (aparkalekuak, atsedenguneak, etab.) okupazio fisiko osoa edo partziala dakarren edozein jarduera antolatu.
- Uxaldian ehiza larrirako garaietan egiten diren edo pagausoa igarobide tradizionaletan ehizatzeko aprobetxamendu zinegetikorako lurretan eragina duten erabilera publikoko jarduera antolatuak, ibiltariei arrisku egoerarik ez eragiteko.
- NEBen aitorpen, antolamendu eta kudeaketa dokumentuen arabera eta garapen tresnen arabera –besteak beste Erabilera Publikoko Plana– baimena behar duten jarduera antolatu guztiak.

2.7.1.4. <u>Perretxikoak eta bestelako baso produktuak biltzea</u>

a) Perretxiko, onddo, landare lore eta basa fruituen aprobetxamendua 89/2008 Foru Dekretuak arautuko du Arabako Lurralde Historikoan. Bizkaian, honako arauketa honi jarraituko zaio:
   - Aprobetxamendu komertziala egiteko, beharrezkoa izango da NEBeko Kudeaketa Organoak berariaz baimena ematea.
   - Oro har, autokontsumorako aprobetxamendu ez komertzialak, pertsonako eta eguneko, aukera ematen du gehienez bi kilogramo onddo edo perretxiko batzeko, bi kilogramo fruitu eta sorta bat pertsonako eta eguneko, sortan batzen diren espezieen kasurako, eta, ontziren batean batzen diren landare edo loreen kasuan, 200 gramo berdean, pertsona eta egun bakoitzeko.

b) Natura Eremua kudeatzeko ardura duen organoak, populazioen egoeraren eta dagoen eskariaren, aurreko aprobetxamenduen edo beste edozeinen arabera, neurri murriztaileagoak ezarri ahalko ditu.

c) Perretxikoak eta onddoak sukaldaritza interesik gabe, bildumarako edo beste xede batzuetarako, aske biltzeko kudeaketa organoaren baimena beharko da.

d) Debekatuta dago *Narcissus* generoko edozein espezieren erraboilak edo loreak biltzea.

## 2.8. ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK

a) Kalifikatutako edo inbentarioan jasotako edo etorkizunean jaso daitezkeen kultura-ondasunek NEBen NBAPa aplikatuz dagokien babes araubidearen, 7/1990 Legearen, euskal kultura ondarearenaren, eta beren aitorpen arauaren mende egongo dira. Hori horrela, ondare arkeologikoa egon daitekeela uste den zonei 7/1990 Legearen 49. artikuluan ezarritako araubidea dagokie.

b) Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenarekin edo baso ustiapenarekin edo nekazaritzako eta abeltzaintzako edo basoko eraldaketako landa industria txikiekin zerikusia duen eraikin bat eraiki edo zabaltzeko edozein baimen eskaerarekin batera, Araba eta Bizkaiko Foru Aldundietako zerbitzu eskudunaren aldeko txostena aurkeztu beharko da. Aldez aurretik, gainera, NEBeko Kudeaketa Organoari baimena eskatu beharko zaio.

c) Erakunde publiko edo partikularrek sustatutako eraikin edo eraikuntzen kasuan, Kudeaketa Organoak, aurretik haien baimena eskuratu ondoren, egiaztatu beharko du obra proiektuan eta eraikuntzako baldintza teknikoen pleguetan obra amaieren klausulak sartu direla, bai eta, ondoren, bete egin direla; horrela, hura gauzatzean ingurumenean eragindako edozein kalte konponduko dela ziurtatu behar da.

d) Eraikinen elementu osagarriak (antenak, eguzki plakak...) egokitu egin beharko dira dimentsioei dagokienez haien inguruko paisaia babesteko beharrei. Horrela, beharrezkoa izango da Kudeaketa Organoaren baimena edukitzea horiek jartzeko.

e) Natura Eremu Babestuaren barruan dauden eraikin edo instalazio guztiek, horien hondakin uren isurketak arriskua ekartzerik badu uren kalitaterako, saneamendu sistema eta hondakin uren arazketa sistema egokia izan beharko du, eta administrazio hidraulikoaren isuriaren baimen egokia.

f) NEBen barruan kokaturiko aterpetxeen titular guztiek eurek sortutako zaborren gaineko erantzukizuna gain hartu beharko dute, eta baita inguruneko baldintza estetikoen eta egokitzapenaren gainekoa ere. Aterpetxeen lagapenak iraun bitartean, igarri daitezkeen gabeziak konpontzeko behar diren obrak gauzatzeko eskatu ahalko da Aterpetxe pribatuen babes erabilera ez da inolaz ere bizitegirako erabileratzat joko.

g) Ez da baimenduko energia ekoizteko edota garraiatzeko instalazio berririk, ezta komunikazioetakoak ere, salbu eta Organo Kudeatzaileak frogatutzat ematen badu ez dutela beste baliabide batzuen zaintza kaltetzen.

h) Kudeaketa Organoaren baimena beharko da pista edo bide berriak trazatzeko; jarduketa saihestu egin behar da, ahal den neurrian. Nolanahi ere, hura gauzatzeko, aurretik ingurumen ebaluazio egokia behar da eta, nolanahi ere, aplikagarri diren ingurumen eragina ebaluatzeko prozedurak bete beharko ditu. 'Paisaiako bereziak'[1] gisa mugatutako zonetan, Kudeaketa Organoak Natura Eremu Babestuko paisaia babesteko beharrezkotzat jotzen dituen mugak ezarri ahalko ditu.

i) Ibilgailu astunei NEBeko pistarik nagusienetan zirkulatzea debekatzen zaie, betiere, bide sareari kalte garrantzitsuak eragin diezazkioketen baldintzak gertatzen badira (egun euritsuak, ardatzeko karga gehiegizkoa).

[1]http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/es/contenidos/documentacion/paisaje/es_catalogo/indice.html

## 3. KUDEAKETA-GIDALERROAK ETA JARDUKETA-NEURRIAK

### 3.1. BIODIBERTSITATEA ZAINTZEA

#### 1. BASO NATURALAK ETA ERDINATURALAK

| | |
|---|---|
| **Amaierako 1. helburua** | NEBeko baso naturalen kontserbazio egoera hobetzea:<br>- Baso naturalek okupatzen duten azalera handitzea<br>- Baso masa autoktonoen egitura eta osaketa hobetzea<br>- Ondoen kontserbatzen diren kokalekuak gaur egungo egoeran mantentzea.<br>- Mehatxupeko flora eta fauna espezieen kontserbazioa, populazio bilakaera eta bideragarritasuna bermatzea. |
| **1.1 Helburu operatiboa** | Baso naturalek okupatutako azalera osoaren igoera sustatzea. |
| **Gidalerroak** | - Mendi publikoak antolatzeko planen eta proiektuen idazketan edo horien berrikuspenetan, kontuan hartuko dira NBAPan ezarritako helburuak, irizpideak eta kontserbazio arauak. Era berean, "Mendiak antolatzeko proiektuak. Eremu babestuetan kontserbatzeko tresnak" (Europarc, 2013) eskuliburuan jasotako irizpideak hartuko dira kontuan, eta baso biodibertsitatea babesteko, basoen naturaltasun eta integritate ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuak ematea bermatzeko helburuak, adierazle neurgarri eta neurri bereziak jasoko dira, eta horiek izango dira NEBeko mendi publikoen Baso Kudeaketako Plan Integraleko lehentasunezko helburuak. Besteak beste, honako kontsiderazioak hartuko dira kontuan:<br><br>a. Baso-kudeaketa bultzatzea natura ingurunearen iraunkortasun eta kontserbazio irizpideen arabera, betiere Natura Eremu Babestuaren kontserbazio helburuak aintzat hartuz.<br>b. Baso-komunitate autoktonoen egiturazko konplexutasun zehatza areagotzera zuzendutako neurriak abiaraztea.<br>c. Multzoak egitura irregularreko goi mendi bihurtzeko bultzada ematea, oinez oin edo basotxoak eratuz.<br>d. Ibai habitatekin kontaktuan dauden ameztietan masen heldutasun maila handiagoa sustatzea.<br>e. Plangintzan lurraldean egiten diren erabilera eta aprobetxamenduak txertatzea, eta arreta berezia eskaintzea egurraren ekoizpenari, zura ateratzeari, artzaintzari eta natura balioen kontserbazioari eta hobekuntzari.<br>f. Adineko aleak errespetatzea eta kontserbatzea, bai eta hondaturik edo hilik daudenak ere. Proportzioa masaren dentsitatearen eta osasun egoeraren araberakoa izango da.<br>g. Esku hartzerik jasango ez duten eremuak ezartzea.<br>h. Zur hilaren presentzia sustatzea lurrean eta oinean, joera honakoa lortzera zuzenduz: gutxienik 40 m3/ha. Aldez aurretik egondako zur hilaren hondakinak errespetatzea.<br>i. Egiten diren lanetan dauden zuhaixka eta zuhaitz espezieak errespetatzea.<br>j. Masa autoktonoen eta haien eta ibaien arteko masen jarraipena sustatzea.<br>k. Baso zereginen egutegia egokitzea fauna espezien arabera; |

| | |
|---|---|
| | horrela, zeregin horiek ez dira beteko batasunaren edo erregioaren intereseko fauna nemoralaren kalteberatasun epean.<br>l. Hondatzeko arriskua duten zuhaiztiak identifikatzea eta prebentziorako edo kalteak konpontzeko neurriak zehaztea (itxiturak, abeltzaintza zama arautzea, basoberritzea, eta abar). Artzaintzarako egutegia, abere kargak eta aprobetxatzeko azalerak zehaztuko dira, eta premisa horiek bat etorri beharko dute espezie osorako idatziko den Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Planarekin.<br>m. Zuhaizti bilakatzekotan dauden lahardi eta larreen azalerak identifikatzea, baita zuhaizti bilakatzeko bidean daudenak kontserbatzeko neurriak ere, hala badagokio.<br>n. Baso Antolaketarako Plan Teknikoen jarraipen eta berrikuspen fasean basoen naturaltasunaren indizea txertatzea. Indize konposatu horrek gutxienez alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:<br>▪ Flora bereizgarriaren dibertsitatea, ugaritasuna, egoera eta joera (katalogo floristikoan oinarrituta).<br>▪ Basoko hegaztien egoera eta joera.<br>▪ Koleoptero saproxilikoen ugaritasuna eta dibertsitatea.<br>▪ Basoko kiropteroen ugaritasuna eta dibertsitatea.<br>o. Baso inbentarioaren diseinuan jasoko dira basoen kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko datuak.<br><br>- Basogintza eta artzaintza aprobetxamenduek ezin dute arriskuan jarri zuhaitzen birsorkuntza. |
| **Jarduketak** | **1.M.1.-** Dauden mendi publikoen Baso Antolaketarako Planak berriskutea eta NEBerako Baso Kudeaketako Plan Integrala idaztea. Plan horrek aurretik aipatutako gidalerroak jaso beharko ditu.<br><br>**1.M.2.**- Lurzatietako lursaila, titulartasun publikokoa zein pribatukoa, zaintzeko kontratuak sinatzea, baso landaketen ordez baso naturalak izateko, pixkanaka, interes ekologiko bereziko arloetan, besteak beste, hezeguneen inguruneak, area kritikoak edo mehatxupean dauden flora eta fauna berreskuratzeko areak, etab.<br><br>**1.M.3.-** Komunikazio plana prestatzea, tokiko populazioaren eta baso jarduketak egiteko ardura duten pertsonen artean EKAPen ondoriozko baso kudeaketako helburuak eta gidalerroak zabaltzeko. Halaber, pertsona horiei informazioa emango zaie jardun zona bakoitzean dauden intereseko elementuen gainean: fauna mehatxatuko populazioak, balio bereziko zuhaitzak, hezeguneak edo beste habitat ahul batzuk, ondare arkeologikoa, etab. |
| **1.2 Helburu operatiboa** | Baso masa autoktonoen naturaltasuna, heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzea. Ondoen kontserbatzen diren kokalekuak gaur egungo egoeran mantentzea. |
| **Gidalerroak** | - Mendi altu eta irregularren garapena bultzatzea gaur egun dauden multzoetatik abiatuz, sexu ugalketa aldeztuz begetatiboaren aldean. |

| | |
|---|---|
| | - Basoko habitaten kontserbazio egoera ona lortzeko behar liratekeen egitura eta funtzioko baldintzak ezartzea eta basoen kudeaketa helburu horietarantz bideratzea.<br><br>- Basoetako basogintza jardueren helburuak haien egiturazko arkitektura dibertsifikatzea eta fauna espezieak hartzeko ahalmena handitzea izan beharko du. Adin mota guztiak biltzen dituzten masak sustatuko dira.<br><br>- Beste zuhaitz eta zuhaixka espezie batzuen agerpena sustatzea (gurbea, gorostia, eta abar), baita oihanpearen agerpena eta basoaren egitura aniztasuna ere (hariztiak).<br><br>- Habitata hobetzeko egiten diren basoko lan mota guztietan (garbiketa, meazketak eta soilguneak), haiek egitea beharrezkoa bada, pagoa eta haritza ez diren basoko espezieen gaineko inpaktua saihestu behar da, baso horietako zuhaitz dibertsitatea bultzatzeko. Lan aktiboa egin behar da kontserbatzeko arazoak dauzkaten espezieen populazioak ugaltzea errazteko.<br><br>- Zuhaitz helduegien presentzia mantendu eta sustatu behar da. Zuhaitz horiek fauna espezieek habia egin eta aterpe hartu ahal izateko zuloak dauzkate, batez ere lodiak, adartsuak eta motzak direnak eta merkataritza balio urria izanik edo batere baliorik izan gabe balio biologiko handia dutenak.<br><br>- Ekoizpen jarduera berritzaileak bultzatzea, baldin eta habitaten kontserbazioarekin eta haien funtzio ekologikoekin bateragarriak badira. |
| | **1.M.4.-** NEBeko bertoko baso orban nagusien ezaugarriak jasotzea, kontserbazio egoera ebaluatzeko (egitura aniztasuna, tamaina handiko zuhaitzen presentzia, zutik edo lurrean dagoen egur hila, tamaina txikiko edo ertaineko barrunbeak, aniztasun berezia, etab.) eta horien arteko konektibitateari eta beste KBE espazio batzuekiko beste batzuei bide ematea.<br><br>**1.M.5.-** Baso habitaten erreserba zonen sare bat mugatzea (baso helduak), hobeto kontserbatzen diren enklabeen eta honako habitat mota hauei lotutako faunarako eta florarako balio handienekoen identifikazioa oinarri hartuta:<br><br>- KOD. UE: 9120, 9160, 9180*, 9230, 9260<br>- KOD. EUNIS: G1.64, G1.82, G1.86, G1.86(X)<br><br>**1.M.6.-** Jarduketa arloak zehaztea, 1.M.4. neurriaren emaitzak oinarri hartuta, eta saiakera esperimentalak egitea, zutikako zuhaitz hilak (*snag*) eskuratzeko, zenbait teknikaren bidez: zuhaitzaren oina eraztunez lotzea edo zuritzea, zuhaitzaren goiko herena kentzea. Metodo horien bidez eskuratuko den amaierako dentsitatea, gutxienez, 15-20 hesola/ha-koa izango da, 30 cm baino gehiagoko DBH diametrodun zuhaitzetatik abiatuta.<br><br>**1.M.7.-** Azterlanak egitea haritzei eta NEBen bertakoak diren beste |

Enero 2018

| | |
|---|---|
| | espezie batzuei eragiten dieten gaixotasunei, izurriteei edo bestelako heriotza arrazoiei buruz.<br><br>**1.M.8.-** Kudeaketa jarraibideen saiakuntzak egitea, zuhaitz motzen egungo unadak mantentzeko.<br><br>**1.M.9.-** Natura masetan leheneratzeko egungo zonak berrikustea, eta egokitzat jotzen direnak mantentzea, egungo Baso Antolamendurako Planetan eta horien berrikuspenean eta NEBeko Baso Kudeaketako Plan Integralean ezarritakoa oinarri hartuta. Zona horietan, laguntzako jarduketak edo landaketak egingo dira, natura leheneratzea desegokia bada.<br><br>**1.M.10.-** Basoko habitaten arabera basoko biodibertsitatea mantentzeko eta berezko birsortzeari ez eragiteko onar daitekeen abereen eta basa ungulatuen karga kalkulatzea. |
| **1.3 Helburu operatiboa** | NEBen dauden basoko kiropterorik mehatxatuenen populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea eta basoko eta zuhaiztar espezieen beharrizanak asetzeko zuhaitz masen ezaugarriak zaintzea, bereziki *Myotis bechsteinii*, *Barbastella barbastellus*, *Plecotus auritus*, *Nyctalus leisleri* eta *Myotis daubentonii*. |
| **Gidalerroak** | - Basoetan soilguneak izango direla bultzatzea, kiropteroen ehiza guneak aldezteko.<br><br>- Kiropteroen komunitatearen gaineko laginak egiteko teknikak sustatzea, animalien harrapaketa eta erabilerarik gabekoak; hala eta guztiz ere, aleak markatzeko eta jarraitzeko aplikazioaren egokitasuna balioztatuko da, hala nola irrati bidezko jarraipena.<br><br>- Nekazaritzako eta basogintzako intsektiziden aplikazioak baso espezie horietan eta beste batzuetan eraginik ez izatea. |
| **Jarduketak** | **1.M.11.-** *Myotis myotis*, *Myotis mistacinus*, *Myotis bechsteinii*, *Barbastella barbastellus* eta *Myotis emarginatus*-en populazioen aldizkako jarraipena egingo da. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Besteak beste, NEBen dauden kiroptero espezierik garrantzitsuenak nahiz sasoi horretan NEBera erakartzen diren aleak biltzeko tokiarena egiten duten guneak identifikatuko dira.<br><br>**1.M.12.-** Gorbeiako NEBen kiropteroak kontserbatzeak duen garrantziaren inguruko zabalkunde eta sentsibilizazio kanpaina diseinatzea eta gauzatzea.<br><br>1.2 helburu operatiboan basoko masen edo habitaten naturaltasuna, heldutasuna eta konplexutasuna hobetzeari buruz jasotako neurriak aplikatzen dira. |

Enero 2018

| | |
|---|---|
| **1.4 Helburu operatiboa** | NEBen dauden eta mehatxurik gehien jasaten duten mamiferoen banaketa eta populazio bilakaera ezagutzea eta horiek kontserbatzeko neurriak sustatzea. |
| **Gidalerroak** | - Basoak basoko ugaztunen populazioak mantendu eta hobetzearekin bat datorren moduan kudeatzea. |
| **Jarduketak** | **1.M.13.-** Gorbeiako faunako Espezie Mehatxatuen eta horien estatusaren zerrenda eguneratzea.<br><br>**1.M.14.-** Haien populazioen aldizkako erroldak egin eta inbentarioan jasoko dira, arreta berezia jarriz Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezie mehatxatuenei. Batez ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola banaketa, haien populazioen kontserbazio egoera, presioak eta mehatxuak.<br><br>**1.M.15.-** Ale hilak edo zaurituak jaso eta leheneratzeko eta mehatxu eragileak aztertzeko zentroetara eramateko protokoloa ezartzea.<br><br>**1.M.16.-** A-68 autobidearen iragazkortasuna hobetzea, Altubeko basoan jarraitutasunik eza ekologikoa murrizteko, Altubeko biaduktuen azpiko espazioa egokituz, eta, horretarako, ertzak landareztatzea, partikularrek beheko egituretan bildutako hesiak eta objektuak kentzea, drainatze batzuetan uholdeak hartu ezin duen korridorea jartzea edo zabaltzea eta pasabide eta drainatzeen urtaroaren araberako erabileraren analisi xehatua egitea.<br><br>1.2 helburu operatiboan basoko masen edo habitaten naturaltasuna, heldutasuna eta konplexutasuna hobetzeari buruz jasotako neurriak ere aplikatzen dira. |
| **1.5 Helburu operatiboa** | Basoko hegazti faunako espezieak kontserbatzea eta leheneratzea. Berezkoak ez diren heriotza kausak ezabatzea. |
| **Gidalerroak** | - Basoko aprobetxamenduek kontuan izango dute, une oro, ustiatuko diren unadetan dauden basoko abifauna.<br>- Ale egokien garapena sustatzea, okil beltzak habiak egin ditzan: 40-50 cm-ko diametroak, enbor lisoak eta adarrik gabekoak, 10 eta 12 metro arteko gutxieneko altuera izango dutenak. |
| **Jarduketak** | **1.M.17.-** NEBen funtsezko elementu diren basoko abifauna espezieen populazioen aldizkako segimendua egingo da: arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*), erlatxori europarra (*Pernis apivorus*) eta okil beltza (*Dryocopus martius*); kasu honetan, hala badagokio, kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta bertako habitatetan eragina duten asalduren diagnostikoa jasoko da, populazio horien egoerari eusteko eta/edo hura hobetzeko.<br><br>**1.M.18.-** NEBen aurkitutako pozoiduragatiko hilkortasun kasuen segimendu protokoloa ezartzea, ingurune naturalean amu pozoituen |

| | |
|---|---|
| | legez kontrako erabileraren aurkako estrategia nazionalak eta Basa Flora eta Faunaren Batzordearen Ekotoxikologia Lantaldeak proposatutako pozoitze kasuetan jarduteko protokoloak ezarritako gidalerroak oinarri hartuta.<br>Aplikagarriak dira basoko masa edo habitaten egituraren konplexutasun, heldutasun eta naturaltasuna hobetzeko arauketak eta, zehazki, basoko lanen egutegiei buruzko **1.R.10.k** arauketa, eta habietatik 400 m-tara okil beltzaren hazkuntzan eragina izan dezaketen baso jarduerak egiteko debekuari eta aipatutako eremuan orkatzaren bakarkako ehiza larrirako eta basurdearen uxaldietarako debekuari buruzko arauketa ere, **1.R.19.-** eta **1.R.20.-** arauketak.<br>Era berean, okil beltzaren populazio egonkorra berreskuratzea eta finkatzea sustatzeko helburuak harreman zuzena du 1.M.5. neurriarekin, *"(…) Baso habitaten erreserba zonen sare bat mugatzea, hobeto kontserbatzen diren enklabeen eta faunarako eta florarako balio handienekoen identifikazioa oinarri hartuta (…)"*. |
| **1.6 Helburu operatiboa** | NEBen honako hauen banaketa ezagutzea: *Cerambyx cerdo*, *Rosalia alpina*, *Lucanus cervus, Osmoderma eremita, Euphydryas aurinia, Euplagia quadripunctaria* eta *Elona quimperiana*. Eta populazioen segimendu sistema ezartzea. |
| **Gidalerroak** | - Zur hilaren presentzia areagotzea, bai lurrean bai oinean, enborrak moztuz, mozketen ondorengo motzondoak mantenduz edo zuhaitzak eraztunean josiz. |
| **Jarduketak** | **1.M.19.-** Laginketa zehatzak egingo dira erkidegoaren edota eskualdearen intereseko ornogabeek NEBen eremuan duten presentziari buruzko ezagutza hobetzeko.<br>Koleoptero saproxilikoen kasuan, laginketa ahalegina, hasiera batean, Batasunaren intereseko espezieetan zentratu behar da, besteak beste, *Cerambyx cerdo*, *Rosalia alpina*, *Lucanus cervus* eta oraindik aurkitu ez diren espezieetan, esaterako, *Osmoderma eremita*.<br>Batasunerako intereseko beste espezie batzuetan zentratu beharko dira laginketa ahaleginak, esaterako, *Euphydryas aurinia* eta *Euplagia quadripunctaria* ropalozeroak edo Quimper barraskiloa (*Elona quimperiana*).<br>Kasu guztietan jasoko da kontserbazio egoeraren diagnostikoa, eta presioak eta mehatxuak identifikatuko dira, espezie horien egoerari eusteko eta/edo horiek hobetzeko. |

## 2. SASTRAKAK ETA LARREAK

| | |
|---|---|
| **Amaierako 2. helburua** | Txilardi heze eta mendi larreen egungo azaleraren kontserbazioa bermatzea eta mosaikoan jartzea, habitaten eta lotutako espezie |

<table>
<tr><td></td><td>mehatxatuen kontserbazio egoera onarekin bateragarri diren abereak kudeatzeko jarraibideak ezarriz.</td></tr>
<tr><td>2.1 Helburu operatiboa</td><td>Batasunerako intereseko larre eta sastrakak kontserbazio egoera onean mantenduko direla bermatzen duen abeltzaintza kudeaketa sustatzea (habitatak: 6170, 6210(*), 6230*, 6510, 4020*, 4030 eta 4090) eta, horretarako, mosaiko erako antolaketari eta egungo azalerari eustea; bereziki, lehentasunezkotzat jotzen direnak.</td></tr>
<tr><td>Gidalerroak</td><td>- Sastraka berritzeko edo kontrolatzeko edo larreak leheneratzeko, sasi garbitze mekanikoa edo, ahal dela, eskuzkoa erabiliko da, batez ere geroago abereen kargaren bidez leheneratutako larreak berma daitekeen eremuetan.<br>- Sastrakak modu planifikatuan kenduko dira, normalean, Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Plana oinarri hartuta, eta honako gidalerro hauei jarraikiz:<br>• Gutxienez 5 urte igaro beharko dira azken sasi kentzetik eremu berean jardun ahal izateko.<br>• Ez da sasirik kenduko % 50etik gorako maldak dauzkaten eremuetan. Oro har, sastrakak mekanikoki kenduko dira baldin eta % 30etik beherako malda badago, eta eskuzkoak, % 30 eta % 50 bitartekoetan.<br>• Sastrakak ez dira osorik kenduko, orban txikiak kendu gabe utziko dira (gutxienez hektareako % 20, 1 ha-ko edo gehiagoko aldameneko teseletarako) eta sastraken eta larreen arteko mugak irregularrak izango dira.<br>• Ez da sasirik kenduko habitat horietan eta haien babes perimetroetan espezie mehatxatuak dauzkaten eremuetan.</td></tr>
<tr><td>Jarduketak</td><td>2.M.1.- NEBerako Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Plana idaztea. Horrek, egungo egoeraren diagnostikoa abiapuntu izanik, honako hau zehaztu beharko du:<br>• Larre moten kalitatea eta produktibitatea.<br>• Larreen aprobetxamenduetarako gune zehatz bakoitzaren abeltzaintza karga onargarria.<br>• Artzaintza unitateen mugaketa eta, beharrezkoa balitz, haien arteko txandakatzea zuhaixka eta belar habitaten mosaikoko banaketari eusteko.<br>• Egutegia eta artzaintzan jarduteko gutxieneko eta gehieneko egunak, espezieen eta guneen arabera.<br>• Gaur egungo abeltzaintza azpiegiturak aztertzea eta haien hobekuntza premiak (etxolak, askak, gatzontziak, parasitoen kontrako ontziak, hondakinen bilketa).<br>• Larreak sortzeko eta hobetzeko irizpideak; honakoak hartuko dira kontuan:<br>o Eraldatzeko moduko azalerak zehaztuko dira.<br>o Eraldaketa metodoak zehaztuko dira.<br>o Larreak zaintzeko eta hobetzeko moduak zehaztuko dira.<br>o Ongarrien dosi gomendatuak eta guneen kareztadurak, baldin eta horiek baimentzen badira.</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | • Habitatak eta abeltzaintza espezieak kontserbatzeko egoeraren jarraipen protokolo eta adierazleak.<br>• Baimen daitezkeen jardunak.<br>• Prebentzio arauak.<br><br>Kasuan kasu, planak abereak kanporatzeko itxiturak ezartzea komeni den jasoko du, izan kontserbatu behar den flora enklabeak preserbatzeko, izan gutxiegi erabilitako gune jakin batzuen erabilera artzaintza gehiegi duten beste batzuen kaltetan bideratzeko.<br>Halaber, plan hori lurren titular d(ir)en erakundea/ek onartu beharko du, NEBen kudeaketa organoak aldeko txostena egin ondoren.<br><br>**2.M.2.-** Funtsezko elementu honetan jaso den Batasunaren intereseko habitaten espazio eta denbora bilakaeraren segimendu protokoloa ezartzea (6 urterik behin). Kontserbazio egoera ebaluatuko da, bilakaera eta horietan eragina duten asaldurak.<br><br>**2.M.3.**- Foru organo eskudunek 2015-2020 LPDren kudeaketan eta, zehazki, 10.1.5. azpineurriari (Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa) lotutako laguntzetarako deitutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak sinatzea sustatzea. Haietan, onuradunen konpromisoen artean, Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Planari heltzea eta hura betetzea dago.<br><br>**2.M.4.-** Abeltzaintza sektorearentzako (abeltzainak, elkarteak, erlezainak eta landa garapeneko agentziak) laguntza motei lotutako komunikazio plan bat egitea, Gorbeiako KBEri lotutako ekoizpen jarduerek bizirautea eta txilardi eta larreen kontserbazio egoera ona mantentzea ziurtatzeko.<br><br>**2.M.5.**- Gorbeiako KBEn dauden abeltzaintzako azpiegituren inbentarioa egitea, eta horien kontserbazio egoera eta funtsezko elementuak kontserbatzeko ekar dezaketen eraginak ebaluatzea.<br><br>**2.M.6.-** Beharrezkoa den gutxieneko azpiegitura instalatzea (uraskak, gatz ontziak) eta jada badagoena mantentzea, azienda larriaren larretze ohiturak orekatzeko. Parkeko larreetan kasu eta toki zehatzetan ageri diren abeltzaintzako gainkargak murriztu egin beharko dira, berariaz kontrolatuz hezegune eta tranpaletan duten eragina. Askak jartzean eta ur puntuak egokitzean, iragazkortasun irizpideak hartuko dira kontuan baso faunarako, batik bat anfibioetarako.<br><br>**2.M.7.** Erlezaintza dinamizatzeko eta berpizteko plan estrategikoa idaztea, gutxienez puntu hauek jasoz:<br><br>• Osasun arazoak eta Vespa velutina-renak ikertzea eta kontrolatzea.<br>• Plagizida neurotoxikoen erabilera arautzea, murrizteko eta, azkenik, debekatzeko.<br>• Erlauntzak instalatzea sustatzea. |

| | |
|---|---|
| | • Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea.<br>• Erleen eta polinizazioaren garrantziari buruzko dibulgazioa gizartearentzat.<br>• Polinizazio mapak prestatzea, erlauntzak jartzea behar duten zonak identifikatuko dituena; horietan erlezaintza garatzea sustatuko litzateke. Balio ekologiko handiko eremuetan edo eskuraezinetan polinizazio estazioak jarriko lirateke. |
| **2.2 Helburu operatiboa** | Txilardi hezeekin eta formazio belartsu natural eta erdinaturalekin lotutako mehatxupeko flora populazioen segimendua egitea, berreskuratzeko planetan ezarritako neurriak gauzatzea eta eraginkortasuna ebaluatzea. |
| **Gidalerroak** | - Flora mehatxatuaren espezieen zaintza lanak areagotu daitezen sustatzea, bereziki abeltzaintzak eta/edo erraboilen bilketak eragin diezaiekeenei dagokienez. |
| **Jarduketak** | **2.M.8.-** Gorbeiako Espezie Mehatxatuen inbentarioa eta katalogazioa eguneratzea, flora populazioekin lotuta.<br><br>**2.M.9.-** Flora konposizioa eta mendi larreetako ohiko espezieak zehazteko azterlan berezia egitea (6230*), bai eta sega belardietakoak (6510) larre mesofiloetakoak ere ((6210)*). Habitat horien kontserbazio egoera berrikustea eta orkidea ugariko enklabeak zehaztea; horrela, 6210 habitata egokiro zehaztu ahalko da.<br><br>**2.M.10.-** *Diphasiastrum alpinum, Ranunculus amplexicaulis, Narcissus bulbocodium, Arnica montana, Lycopodium clavatum, Meum athamanticum, Huperzia selago, Carex strigosa, Genista micrantha, Leontodon pyrenaicus, Rumex aquitanicus, Tozzia alpina* populazioak aldian behin monitorizatuko dira, bai eta Direktibaren II. eranskinean jasotako beste espezie batzuk ere, besteak beste*, Narcissus asturiensis eta Narcissus pseudonarcissus ssp. nobilis* edo etorkizunean KBEen eremuan identifika daitezkeen flora mehatxatuko beste espezie batzuk.<br><br>Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.<br>**2.M.11.-** Aplikatzekoak izango dira *Diphasiastrum alpinum eta Ranunculus amplexicaulis* espezieen kudeaketa planen neurriak (113/2006 eta 117/2006 Foru Dekretuak, hurrenez hurren), bai eta "*EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian "galzori larrian" jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarri teknikoak'* erreferentziazko dokumentuko neurrien programa ere*.* (IHOBE, 2011ko otsaila).<br><br>**2.M.12.-** NEBen dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez "galzorian" eta "kalteberak" jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egiteko 2.M.10. jardueran aipatutako erreferentzia dokumentuaren irizpideak hartuko dira kontuan. |

Enero 2018

| | |
|---|---|
| **2.3 Helburu operatiboa** | Goi mendiko eta landazabaleko hegazti faunako egungo populazioen segimendua eta kontserbazioa egitea, horien elikadura areetakoak, eta espezie enblematikoak, besteak beste, belatxinga mokogorria eta antzandobi arrunta, ugaltzeko nukleoak leheneratzea. |
| **Gidalerroa** | - Goi mendiko eta landazabaleko hegazti faunaren ezaguera hobetzea, bai eta egon daitezkeen inpaktuak prebenitzea ere. |
| **Jarduketak** | **2.M.13.-** Goi mendiko eta landazabaleko hegazti faunako espezie populazioen aldizkako segimendua egitea eta arreta berezia eskaintzea mirotz zuriaren, etze txinboaren eta belatxinga mokogorriaren ugalketa aldiaren kontrolari, ugalketa enklabeak ez erretzeko eta lanberritzeko (txilardien, otadien eta beste sastraka batzuen habitatak). |
| **2.4 Helburu operatiboa** | Narrastien komunitateko berezko habitatak kontserbatzea eta NEBen dauden espezieen gaineko inpaktuak zuzentzea. *Lacerta schreiberi*-ren populazioen ugaritasuna, banaketa eta kontserbazio egoera ezagutzea. |
| **Gidalerroak** | - Naturguneko narrastien populazioen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea. |
| **Jarduketak** | **2.M.14.-** KBEn esanguratsuenak diren narrastien populazioen aldian behingo segimendua egingo da, eta bereziki *Lacerta schreiberi*rena. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. |

## 3. HARPEAK, HARKAIZTIAK ETA LOTUTAKO HABITATAK

| | |
|---|---|
| **Amaierako 3. helburua** | Harpeei, barrunbe karstikoei eta harkaiztiei lotutako Batasunaren intereseko espezieen kontserbazio egoera ona zaintzea edo lortzea.<br>Kiroptero eta hegazti harkaiztarren populazioen kontserbazioa, leheneratzea eta bideragarritasuna bermatzea, NEBen hartzeko ahalmena hobetuz. |
| **3.1 Helburu operatiboa** | NEBeko haitzezko habitaten eta harpeen kontserbazioa, mehatxu eragileen murrizketa eta kontrola eta habitat horien ezaguera handitzea. |
| **Gidalerroa** | - Naturguneko haitzezko habitaten eta lurpeko barrunbekoen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea. |
| **Jarduketak** | **3.M.1.-** NEBeko lurpeko barrunbeen katalogoa sortzea.<br>**3.M.2.-** Espeleologia talde eta elkarteekin batera Ondare Espeleologikoa Kudeatzeko Plana egitea eta gauzatzea, barrunbeetara sartzeko eta haiek miatzeko. Plan horretan berariazko araudi bat sartuko da, habitat hipogeoen balioen kontserbazioa ziurtatzeko, bereziki kiropteroek |

| | |
|---|---|
| | kolonizatutako barrunbeen kasuan, bai eta barrunbe bakoitzaren erabilera publikorako harrera gaitasunaren azterlana, hala badagokio, eta barrunbe irisgarrienetarako garbiketa plana ere. |
| **3.2 Helburu operatiboa** | KBEn dauden kiroptero harpetarrik mehatxatuenen populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea, kiropteroen aterpe nagusien ezaugarri fisiko, biologiko eta ingurumenekoak zaintzea (Turismoak ustiatu gabeko harpeak, 8310 EB KOD.) eta gizakiek espezie horiekin dituzten jarrerak hobetzeko hezkuntza jarduerak sustatzea. |
| **Gidalerroa** | - Naturguneko kiropteroen populazioen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea.<br>- Animaliak harrapatzea eta erabiltzea ez dakarten kiroptero kabernikolen komunitatearen laginketarako teknikei bide ematea. |
| **Jarduketak** | **3.M.3.-** *Miniopterus schreibersii*-ren populazioen eta beste espezie kabernikola batzuen aldian behingo segimendua egingo da. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Besteak beste, NEBen dauden kiroptero espezierik garrantzitsuenak nahiz estalketan (*swarming site*) bisitatzen dituzten espezieak biltzeko tokiarena egiten duten guneak identifikatuko dira, eta sasoi horretan NEBera erakartzen diren aleen area geografikoa zehaztuko da.<br><br>NEBeko Ondare Espeleologikoa Kudeatzeko Plana egiteari eta gauzatzeari buruzko ***3.M.2*** neurria aplikatu behar da.<br><br>**3.M.4.-** Legorras, Gingia eta Artzegi barrunbeetako sarreretan saguzarrentzako itxitura egokitua jartzea.<br><br>**3.M.5.-** Mairulegorretako kobazuloko faunari eta mikroklimari buruzko aurretiko azterketa egitea.<br><br>**3.M.6.-** Ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizazioko kanpaina diseinatzea NEBeko kiropteroak kontserbatzearen garrantziari dagokionez. Jarduera hori NEBen erabiltzaile eta bisitari guztientzat, ikastetxeentzat eta bereziki euren jarduerekin espezie horien eta haien habitaten kontserbazio egoera gehien oztopa dezaketen pertsona eta taldeentzat dago pentsatuta: foru zaindegia, basogintza sektorea, baserrien jabeak, espeleologoak, etab.<br><br>**3.M.7.-** Fauna talde horri, haren ezaugarri eta beharrei buruzko informazio eta zabalkunde panelak instalatuko dira barrunbe irisgarrienen, bisitari gehien jasotzen dituzten eta/edo espezie horientzako balio handiena duten barrunbeen barrualdean (lehen 100 m-ak gaindituTakoan): Itxulegor, Superlegor, Elorrea, Mairulegorreta, Legorras, Gingia eta Artzegi. |
| **3.3 Helburu** | Flora mehatxatuko populazioen jarraipena egitea eta KBEko jarduketen |

| | |
|---|---|
| **operatiboa** | eraginkortasuna ebaluatzea. Flora mehatxatuko espezieak berreskuratzeko dauden planetan ezarritako neurriak gauzatzea eta kudeaketa plan espezifikorik ez duten flora mehatxatuko espezieak berreskuratzeko planak egitea bultzatzea. |
| **Gidalerroa** | - Naturguneko flora mehatxatuen populazioen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea. |
| **Jarduketak** | ***2.M.7***. neurria, Gorbeiako Espezie Mehatxatuen Inbentarioa eguneratzeari buruzkoa, flora populazioei dagokienez, aplikatu behar da.<br><br>**3.M.8.** Flora mehatxatuko populazioak eta harkaiztegiei lotutako habitatetan dauden megaforbioak monitorizatzea, kontrolatzea eta aldizka (3 urtean behin) haien jarraipena egitea.<br><br>*Nigritella gabasiana, Pedicularis tuberosa, Leontodon pyrenaicus* eta *Tozzia alpina* populazioetan jarriko da arreta berezia, baita KBEen eremuan etorkizunean identifikatzen diren flora mehatxatuko beste espezie batzuetan ere.<br><br>Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.<br><br>**3.M.9.-** *Nigritella gabasiana* espeziea babestu eta leheneratzeko jarduerak gauzatzea, "EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori larrian' jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarriteknikoak" erreferentzia dokumentuan jaso diren leheneratze plan bereziekin bat etorriz. (IHOBE. 2011ko otsaila).<br><br>**3.M.10.-** Funtsezko elementu honetan dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez "galzorian" eta "kalteberak" jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egiteko 3.M.9. jardueran aipatutako erreferentzia dokumentuaren irizpideak hartuko dira kontuan. |
| **3.4 Helburu operatiboa** | Espezie harkaiztarrak zaintzea eta, horretarako, habiagintza tokiak zorrozki babestea, elikatzeko eta bizitzeko eremuan beharrezkoa den gutxieneko azalera zaintzea eta berezkoak ez diren heriotza kausak ezabatzea. |
| **Gidalerroa** | - Naturguneko hegazti harkaiztarren populazioen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea.<br>- Lurraldeen arteko koordinazioa bultzatzea harkaitzeko espezieen maneiuan eta kudeaketan.<br>- Sai arreak abeltzaintza estentsiboari eragindako kalteak ikuskatzeko sistemari eustea eta horien konpentsazio ekonomikoa mantentzea. |
| **Jarduketak** | **3.M.11.-** KBEn funtsezko elementu diren basoko abifauna harkaiztarren espezieen populazioen aldizkako segimendua egingo da: sai zuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*) eta belatz handia |

| | |
|---|---|
| | (*Falco peregrinus*); hala badagokio, kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa jasoko da, aipatutako populazioen egoerari eusteko eta/edo hori hobetzeko helburuarekin.<br>Sai zuriari dagokionez bereziki, espezie horrek EAEn duen mehatxu estatusa eta bizi duen egoera kontuan hartuta, jarraipena urterokoa izango da eta ugalketa parametroen azterketa barne hartuko du. Metodologia estandarizatuak erabiliko dira, eta bi parametrotan arreta berezia jarriko da: ugalketa arrakasta eta produktibitatea.<br><br>**3.M.12.-** NEBeko espezie nekrofagoen populazioen gutxieneko eskakizun trofikoen balioespen kuantifikatua egingo da, ahalik eta modu doituenean, beharrezko biomasa gisa (kg/urte). Era berean, hegazti nekrofagoen populazioentzat eskuragarri dagoen elikagaia ebaluatuko da, populazio horientzat nahikoa den ala ez jakite aldera, eta, hala badagokio NEBren eremuan eta/edo handik hurbil hondakindegiak eta elikagai puntuak egokitzeko beharra aztertuko da.<br><br>**3.M.13.-** NEBen sai zuriarentzako funtsezko area definituko da. Espezieak bizirik irauteko eta suspertzeko ezinbesteko eremuak hartuko ditu barne: habiagintza zonak, ugalketa saiakerak egiaztatzen diren enklabeak, etzalekuak...<br><br>**3.M.14.-** Linea elektrikoetako titular diren erakundeekin batera, arriskua duten lineetan jarduteko plan bat egingo da, linea horietan talken aurkako gailuak eta elektrokuzioaren aurkako neurriak ezartzeko.<br><br>**3.M.15.-** Ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizazioko kanpaina diseinatzea KBEko hegazti fauna harkaitzarrak (eta hegazti fauna, oro har) kontserbatzearen garrantziari dagokionez. Jarduera hori NEBen erabiltzaile eta bisitari guztientzat, ikastetxeentzat eta bereziki euren jarduerekin espezie horien eta haien habitaten kontserbazio egoera gehien oztopa dezaketen pertsona eta taldeentzat dago pentsatuta: baso jabeak, abeltzainak, foru eta ehiza zaindariak, ehiztarien elkarteak, barrutiak, eskalada taldeak, etab.). |

## 4. HEZEGUNEAK

| | |
|---|---|
| **Amaierako 4. helburua** | NEBeko hezeguneei lotutako Batasunaren intereseko habitaten eta flora mehatxatuaren populazioen kontserbazio egoera ona zaintzea edo lortzea. |
| **4.1 Helburu operatiboa** | NEBeko hezegune nagusien banaketa, kontserbazio egoera eta bilakaera ezagutzea. |
| **Gidalerroak** | - Ekosistema horien ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea. |

| | |
|---|---|
| **Jarduketak** | **4.M.1.-** NEBeko hezegune nagusietatik Batasunaren intereseko habitatak dauzkatenen inbentario xehea egitea. Hezegune horiek tipifikatu beharko ditu, hauek ere jasorik: haietako bakoitzean dauden landare komunitateen inbentarioa, haien kontserbazio egoeraren diagnostikoa eta kontserbazio neurrietarako proposamen bat (kontserbatzeko edo leheneratzeko arauketak eta/edo jarduketak).<br><br>**4.M.2.-** Kartografikoki zehaztuko dira hezeguneak babesteko perimetroak, bai eta horiei lotutako gidalerroak eta arauketak ere. |
| **4.2 Helburu operatiboa** | NEBeko hezegune nagusiak babestea, kontserbazio egoera ona lortu edo hari eutsi diezaioten. |
| **Gidalerroak** | - Babestu eta leheneratzeko jarduerak inpakturik txikieneko eta paisaian txertatzeko irizpideei jarraiki egingo dira. |
| **Jarduketak** | **4.M.3.-** EAEko Barrualdeko Lakuen eta Hezeguneen Kalitate Ekologikoaren Jarraipen Sarean dauden laginketa estazioak mantentzea; horien emaitzak urteko jarraipen txostenetan jasoko dira. Arro erakundeak ezarritako laginketa eta balorazio irizpideak izango dira kontuan.<br><br>**4.M.4.**- Altubeko putzuak leheneratzeko proiektu bat idaztea. Bertan, honako hau jaso behar da:<br>• Perimetro hesia instalatzea.<br>• Erriberako landarediko perimetro landaketak egitea.<br>• Putzuen inguruan dauden drainatzeak eta harpenak kontrolatzea.<br><br>**4.M.5.-** Saldropoko hezegunea leheneratzea. Jarduketa horrek honako hauek hartzen ditu barne:<br>• Orain arte Saldropoko hezegunean hartu diren leheneratze neurrien eraginkortasuna kontrolatzea eta haien jarraipena egitea: drainatzeen itxitura, perimetroko hesia, urkien, haltzen eta perimetro heskaiaren landaketak.<br>• Saldropoko sahastiaren heltzea sustatzea, oso erasokorrak ez diren esku hartzeen bidez, ur orria jasotzea, lurzorua istiltzea eta naturaltasun handiagoa errazteko.<br>• Espezie jakin batzuk sustatzeko mikrohabitatak sortzea.<br>• Ornogabeen populazioaren bilakaeraren jarraipena egitea.<br>• Saldropoko antzinako zohikaztegiko biltegiaz geratzen dena kontserbatzea. |
| **4.3 Helburu operatiboa** | Eskualdearen eta/edo Batasunaren intereseko flora espezieak, NEBeko hezeguneei lotutakoak, kontserbatzea eta berreskuratzea. |
| **Gidalerroak** | - Naturguneko hezeguneei lotutako flora mehatxatuen populazioen estatusa hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea. |
| **Jarduketak** | **4.M.6.-** *Ranunculus aconitilolius, Thelypteris palustris, Utricaria australis, Apium inundatum, Spiranthes aestivalis* eta *Sphagnum squarrosum* |

Enero 2018

| | |
|---|---|
| | espezieen populazioak aldizka monitorizatuko dira, baita funtsezko elementu honetan etorkizunean identifikatzen diren flora mehatxatuko beste espezie batzuk ere.<br><br>Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.<br><br>**4.M.7.-** *Ranunculus aconitifolius, Thelypteris palustris* eta *Utricularia australis* espezieak babestu eta leheneratzeko jarduerak gauzatuko dira, "*EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori larrian' jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarri teknikoak*" dokumentua erreferentzia gisa hartuta. (IHOBE, 2011ko otsaila).<br><br>**4.M.8.-** Dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez "galzorian" eta "kalteberak" jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egitean, "*AEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori larrian' jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarri teknikoak*" erreferentziako agiriko irizpideak aintzat hartuko dira. (IHOBE. 2011ko otsaila). |
| **4.4 Helburu operatiboa** | Eskualdearen eta/edo Batasunaren intereseko fauna espezieak, NEBeko hezeguneei lotutakoak, kontserbatzea eta leheneratzea. |
| **Gidalerroak** | - Naturguneko funtsezko elementu honetan intereseko fauna populazioen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea. |
| **Jarduketak** | "4. Hezeguneak" eta "5. Ibai sistema" funtsezko elementuei buruzko neurriak aplikatu behar dira, barrualdeko ur lenitikoetan (Altubeko aintzira konplexua) arreta berezia jarriz, apoarmatu istilzaleari dagokionez.<br><br>**4.M.9.-** NEBen esanguratsuenak diren narrastien populazioen aldian behingo segimendua egingo da, eta bereziki *Emys orbicularis*ena. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Era berean, kanpaina horiek apoarmatu aloktonoen espezieak kontrolatzeko eta, hala badagokio, handik kentzeko baliatuko dira.<br><br>**4.M.10.-** NEBeko anfibio garrantzitsuenen populazioen aldizkako jarraipena egingo da, *Ichtyosaura alpestris, Rana dalmatina* eta *Triturus marmoratus* espezieetan arreta berezia jarriz; kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa jasoko da, aipatutako populazioen egoerari eusteko edo hori hobetzeko helburuarekin. Aurreko kanpainetan erabilitako zentsu ibilbideak edo laginketa metodologiak errepikatuko dira, konparatzeko helburuarekin, eta eremu berriak barne hartzeko zabalduko dira egokitzat jotzen denean.<br><br>**4.M.11.-** Laginketa zehatzak egingo dira erkidegoaren eta/edo |

| | |
|---|---|
| | eskualdearen intereseko ornogabeek NEBen eremuan duten presentziari buruzko ezagutza hobetzeko. Odonatuen kasuan, laginketa ahalegina, hasiera batean, *Coenagrion mercuriale* Batasunaren intereseko espeziean ardaztu behar da. Haren kontserbazio egoeraren diagnostiko bat barne hartuko du, presioak eta mehatxuak identifikatzen dituena, espezie horren egoerari eusteko edo hori hobetzeko helburuarekin.<br><br>**4.M.12.-** NEBeko anfibioen heriotza eta habitaten zatiketa saihesteko beharrezkoak diren jarduketak egingo dira. Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:<br><br>• Baiako Zentraleraino iristeko pista anfibioek zeharka dezaten baldintza egokiak berrezartzea.<br>• Iondegortako urtegiaren barrura erori diren anfibioak kendu eta aldizka askatzea, batez ere otsailetik uztailera bitarteko hilabeteetan.<br>• A-624 errepideak baso igel jauzkariaren (*Rana dalmatina*) populazioan duen eragina analizatzea eta, hala badagokio, anfibioentzako pasabideak instalatzea egokitzat jotzen diren puntuetan.<br>• Faunarentzako pasabideak instalatzea eta seinale adierazleak instalatzea NEBeko sarrera nagusietan (Saldropo, Sarria eta Murua).<br><br>**4.M.13.-** Baso igel jauzkariaren ugalketarako laguntzako putzuak kontserbatzea edo sortzea (Oketa eta beste batzuk).<br><br>**4.M.14.-** Lamioxin urmaeleko zamo txikiaren (*Carassiuss auratus*) populazioa kontrolatzea, baso igel jauzilariaren (*Rana dalmatina*) larben edo apaburuen harraparia izan baitaiteke; hala badagokio, NEBeko putzu eta hezeguneetako anfibioen kontserbazioarekin bateraezinak izan daitezkeen jatorri aloktonoko beste espezie batzuen populazioa ere kontrolatzea.<br><br>**4.M.15.**- NEBen eremuan eragina duten eragile eta sektoreei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina garatzea, apoarmatu exotikoaren presentzia, hedapena eta bertokoekin lehian sartzeko aukera galarazteko. |

## 5. IBAI-SISTEMA: ERREKAK, UBIDEAK ETA LOTUTAKO HABITAT NATURALAK

| | |
|---|---|
| **Amaierako 5. helburua** | NEBeko ibai sistemaren erabateko funtzionaltasuna mantendu, kontserbatu eta leheneratzea, intereseko espezie ugari dauzkaten zenbait habitat garatzen diren eremu gisa eta dibertsitatea eta prozesu ekologikoak mantentzen laguntzen duen korridore ekologiko gisa. Hau dakar:<br><br>- NEBeko ibaien eta erreken uren egoera ekologiko ona bermatzea.<br><br>- Urari lotutako habitatak eta fauna eta flora populazioak aktiboki kontserbatzea eta hoberen ordezkatuta daudenak babestea. Haien heldutasuna, egitura konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea.<br><br>- Ibai sistemaren dibertsitate ekologikoa eta eginkizun biodinamikoa bermatuko duen ibaiertzeko korridore jarraitu bat lortzea. |

| | |
|---|---|
| **5.1 Helburu operatiboa** | NEBeko ibai eta erreketako uraren egoera ekologiko ona bermatzea, sistemaren barruan bizi diren intereseko espezieen populazioen eta haiei lotutako habitaten kontserbazio egoera ona lortzeko ezinbesteko baldintza gisa. |
| **Gidalerroak** | - Uraren kalitatezko parametro fisiko-kimikoak mantentzea, BENeko ibai eta erreketan isurketak ekidinez eta ibaiertzeko baso estaldura erraztuz. |
| **Jarduketak** | **5.M.1.-** EAEko ibaien egoera biologiko eta kimikoaren jarraipen sarean dauden laginketa estazioak mantentzea; horien emaitzak urteko jarraipen txostenetan jasoko dira. Arro erakundeak ezarritako laginketa eta balorazio irizpideak izango dira kontuan.<br><br>**5.M.2.-** NEBen barruan kokatutako saneamendu sistemei buruzko informazio gehigarria eskuratzea, sistema horien inbentarioa egiteko. |
| **5.2 Helburu operatiboa** | KBEren esparruaren barruko ibai ibilguetan emari naturalak bermatzea. |
| **Gidalerroa** | - Kudeaketa Organoak NEBeko ibai eta erreketan harpenek dinamika eta morfologia ez baldintzatzea bermatuko dute. |
| **Jarduketak** | **5.M.3.-** NEBen barruan kokatutako zuzkidura sistemei buruzko informazio gehigarria eskuratzea, sistema horien inbentarioa egiteko. |
| **5.3 Helburu operatiboa** | Erriberako habitaten kalitatea eta kontserbazio egoera hobetzea, faunako espezieak mugi daitezen eta ibaietako nahiz lehorreko sistemak behar bezala jardun dezaten, erriberen arteko lotura bermatzen duen igarobide ekologiko jarraitua berreskuratzeko xedez. |
| **Gidalerroa** | - Erriberako basoak luzeran eta zeharka mantentzea eta leheneratzea bultzatu eta lehenetsiko da eta, horretarako, erriberako landaredia ez duten edo hura espezie aloktonoek ordezkatuta dagoen ibaiertzak basoberrituko dira, eta landaredia naturaleko etengabeko banda ezarriko da ibaiaren ibilera osoan zehar. |
| **Jarduketak** | **5.M.4.-** Ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizazioko kanpaina diseinatzea eta gauzatzea ibai igarobide ekologikoa eta horri lotutako habitat naturalak kontserbatzearen eta leheneratzearen garrantziari buruz. Jarduera hori Gorbeiaren erabiltzaileentzat eta bisitarientzat oro har, ikastetxeentzat eta, bereziki, beren jarduerengatik habitat horien kontserbazio egoera gehien oztopatu ahal duten pertsonentzat, taldeentzat eta administrazioentzat izango da: foru zaindariak, nekazaritza eta baso jabeak, basogintza elkarteak, administrazio batzarrak, etab.<br><br>**5.M.5.-** Ibaiertzetan landaredi naturala (tokian egon daitekeen landarediko berezko espezieekin) leheneratzeko eta hobetzeko borondatezko akordioak sustatzea, gutxienez 10 m-ko zabalerako |

| | |
|---|---|
| | bandan zerga erreken ertzetan eta 20 m-ko zabalerakoan ibilgu nagusietan ur ibilgiek lursail publikoak (herri-basoak eta onura publikoko mendiak) zeharkatzen dituzten guneetan, eta 5 m-ko zabalerakoan NEBzeharkatzen duten gainerako ur ibilguetan. Modu horretan, erriberako sistemei lotutako fauna espezieentzako babeslekurako egokiak diren guneak sortu nahi dira. Baso laguntzak emateko politikaren bidez egingo litzateke; laguntza horiek espeziea aldatzeagatiko konpentsazioekin bat etorri ahalko dira NBAPn adierazitako zonetan. Jarduketa horiek guztiak egiteko, arro erakundeen baimen egokiak behar dira.<br><br>**5.M.6.-** Eskumena duen arro erakundearen aurrean, erabileratik kanpoko aprobetxamendu emakida guztien iraungipena sustatzea, bai eremuan daudenena, bai mugetatik kanpo egonik ere kontserbatzeko helburuak arriskuan jar ditzaketenak, jarduteko lehenespena izanik Altube eta Baia ibaien oztopo zeharkaezinak. Era berean, kontuan hartuko da Baia ibaiarentzat Puron, Omecillo eta Baia[2] ibaien arroetan oztopoen inbentarioan ezarritako jarduketa lehentasuna.<br><br>**5.M.7.-** Emakidari lotutako oztopoa eraisteko edo iragazkortzeko aukerak aztertzea. Aukera badago, oztopoa eraitsiko da, edo bestela, iragazkortasunerako eraginkorrena den konponbidea aukeratuko da. Ahal dela, ondoz ondoko asken eskalak egin beharrean, alboko arrapalak edo bideak egingo dira.<br><br>Aplikatzekoa da, halaber, ***1.M.17.*** neurria, ***1.4. helburu operatiboa***n jaso dena, A-68 autobidearen iragazkortasuna hobetzeari buruzkoa. |
| **5.4 Helburu operatiboa** | Ibai sistemari lotutako flora mehatxatuko populazioen jarraipena egitea, berreskurapen planetan ezarritako neurriak betetzea eta NEBen egindako jarduketen eraginkortasuna ebaluatzea. |
| **Gidalerroak** | - Naturguneko euri sistemei lotutako flora mehatxatuen populazioen estatusa hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea. |
| **Jarduketak** | ***2.M.8.*** neurria, Gorbeiako Espezie Mehatxatuen Inbentarioa eguneratzeari buruzkoa, flora populazioei dagokienez, aplikatu behar da.<br><br>**5.M.8.-** *Prunus lusitanica, Thelypteris palustris* eta *Trichomanes speciosum* espezieen populazioak aldizka monitorizatuko dira, baita NEBeko ibai sistemaren eremuan etorkizunean identifikatzen diren flora mehatxatuko beste espezie batzuk ere.<br><br>Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. |

[2] Puron, Omecillo eta Baia ibaien arroetako oztopoen inbentarioa, 2012. Agencia Vasca del Agua-Ur Agentzia, Hazi.

| | |
|---|---|
| | **5.M.9.-** *Prunus lusitanica* espeziea babestu eta leheneratzeko jarduerak gauzatuko dira, "*EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori larrian' jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarri teknikoak*" erreferentzia dokumentuan jaso diren leheneratze plan bereziekin bat etorriz. (IHOBE. 2011ko otsaila).<br><br>**5.M.10.-** KBEko euri sisteman dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez "galzorian" eta "kalteberak" jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egiteko ***5.M.9***. jardueran aipatutako erreferentzia dokumentuaren irizpideak hartuko dira kontuan. |
| **5.6 Helburu operatiboa** | Ibai-sistemari lotutako fauna mehatxatuaren populazioen jarraipena eta kontserbazioa (oparotasuna, banaketa eta kontserbazio egoera), arreta berezia jarriz espezie hauei: martin arrantzalea, baso igel iberiarra, loina, amuarraina eta karramarro autoktonoa. |
| **Gidalerroak** | - Naturguneko funtsezko elementu honetan intereseko fauna populazioen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea.<br>- Ibai karramarroaren presentzia baieztaturik dagoen guneetan zaintza zereginak handituko direla sustatzea. |
| **Jarduketak** | "4. Hezeguneak" eta "5. Ibai sistema: errekak, ubideak eta lotutako habitatak" funtsezko elementuen kontserbazio egoera onari buruzko neurriak aplikatu behar dira eta, bereziki, oztopoak kentzeari, uren kalitatearen egoera ona mantendu edo berreskuratzeari eta NEBeko iktiofaunako populazioen mantentzea bermatzen duen ibilgu araubide bat ezartzeari buruzkoak<br><br>**5.M.11.-** Martin arrantzalearen populazioaren aldian behingo segimendua egingo da. Bidezkoa bada, haren kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatari eragiten dioten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.<br><br>***4.M.10.-*** neurria, ***4.4 helburu operatiboa***n jasota baitago, NEBeko funtsezko elementuak diren anfibioen populazioen aldizkako jarraipenari buruzkoa, aplikatu behar da, eta bereziki *Rana iberica* espezieari dagokionez.<br><br>**5.M.12.-** Azterlan bat egitea arrainen habitataren (mesohabitata) ezaugarriak ezartzeko eta NEBen dauden arrain espezie batzuen eta besteen eskakizun ekologikoak zehazteko: populazioaren tamaina, banaketa, kontserbazio egoera eta NEBek espezie horiek barnean hartzeko duen ahalmena.<br><br>**5.M.13.-** NEBeko funtsezko elementuak diren arrain faunako espezieen (amuarraina eta loina) populazioen aldizkako jarraipena egingo da, urterokoa amuarrain arruntari dagokionez. Hala badagokio, kontserbazio egoeraren, ugaritasunaren, egituraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asalduren identifikazioa barne hartuko |

| | |
|---|---|
| | du, aipatutako populazioen egoerari eusteko eta/edo hori hobetzeko helburuarekin.<br><br>**5.M.14.-** Definitutako funtsezko espezieen gainean eragina edukitzeko gaitasun handiena duten arrain espezie exotikoen (lutxoa, eguzki arraina eta perka amerikarra) jarraipena egiteko eta horiek kontrolatzeko aldizkako jarduketak gauzatuko dira, Zadorrako arroan eta Urrunagako urtegiko uretan gora dauden ibai ibilguetan (Undabe ibaia) arreta berezia jarriz.<br><br>**5.M.15.-** Bertako karramarroaren kasuan (*Austropotamobius italicus*), populazioetan igarri diren atzerakadak igarrita, urtero txostena egitea proposatzen da NEBen barruan dauden populazioei buruz (azterlan morfometrikoa, sexua, pisua...).<br><br>**5.M.16.-** *Austropotamobius pallipes* espeziea NEBeko ibai sarean tokiz aldatuz hedatzeko plana diseinatzea. Horretarako, banaketari buruzko azterketak zein habitatak karramarro aloktonoen banaketaren arabera duen gaitasuna hartuko dira kontuan, baita *baso igel iberiarrik, baso igel jauzkaririk* edo bestelako intereseko espezierik ez egotea ere.<br><br>**5.M.17**- *Austropotamobius italicus* populazioarekin interferitu dezaketen lekuetan karramarro aloktonoen kontrol kanpainak garatzea. |

## 3.2. ZIENTZIA- ETA IKERKETA-JARDUERA

### 3.2.1. Kudeaketa-gidalerroak

a) Natura Eremu Babestuaren Natura Ondarea zein haren erabilerak eta egoerak denboran zehar izan duen bilakaera aztertzeko eta ikertzeko jarduerak sustatzea, bereziki biodibertsitatearen kontserbazio egoera zehazteko eta haren jarraipena egiteko erabiltzen direnak.

b) Azterlanak eta ikerketak egin ditzaten sustatzea, helburu gisa inguruaren kudeaketa erraztea, balioen, arazoen eta balizko konponbideen ezagutza sakontzea duten heinean.

c) Azterlanetan eta ikerketa proiektuetan lortutako informazioaren antolaketa eta hedatzea hobetzea eta, zehazki, Natura Eremu Babestuaren kudeaketan hobeto aplikatzea.

### 3.2.2. Jarduketak

a) Aholku Batzorde Zientifikoa sortuko da, Patronatuak Kudeaketa Organoaren proposamenez hautatua. Aholku Batzorde Zientifikoaren zeregin nagusia izango da Kudeaketa Organoari aholkuak ematea Natura Eremu Babestuaren barruan egin daitezkeen azterketa eta proiektuen inguruan.

b) Natura Eremu Babestuko gain altu batean meteorologia estazioa instalatzea, Euskal Meteorologia Agentziarekin koordinatuta, klima aldaketak NEBeko habitat edo espezieetan duen eragina ebaluatzeko.

c) Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal geoerreferentziatua” sortzea, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilera txikietarako, aldi baterako putzu eginda dauden lurretarako, urmaeletarako, heskaietarako, landa bideetarako, bidexketarako, azaleratze geologikoetarako, etab. Inbentario horrek, gutxienez, elementu bakoitzaren interesa eta bere kokapenaren beharrezko UTM koordinatuak jasoko ditu.

## 3.3. BASO-JARDUERA

### 3.3.1. Kudeaketa-gidalerroak

a) Baso lanak, ahal dela, denbora lehorreko sasoietan egingo dira, lurzoruaren ahalmena eta aprobetxamendurako zonako sarbideak kontserbatzeko.

b) Baso lanen aurretik, kontuan izango dira biodibertsitatea kontserbatzeko honako irizpide hauek:

- Mozketak, ateratzeak, pilaketak eta garraiatzeak balore hidrografikoetan, oro har (ur ibilguak, hezetasunak eta ur-puntuak), eta gailurretako uhandrearen habitat potentzialetan, bereziki, ekar ditzakeen eraginak murriztea.
- Esku hartzeko eremuan egon daitekeen flora edo fauna babestua berrikustea.
- Lurrean egon daitezkeen kobak edo babeslekuak edo esku hartzeko zonetan dauden zuhaitz zaharrak eta/edo zuhaitz lehorrak berrikustea.

c) Zuhaitzen seinaleztapen klasikoa hobetu egin beharko da, unaden inbentarioan eta markatzean identifikatutako balio naturalen kontserbazioarekin bat.

d) Baso ziurtapen jasangarriari atxikitako azalera zabaltzen dela sustatuko da, bai mendi publikoetan, bai partikularretan.

e) Ondare arkeologikoa egon daitekeela uste den zonetan, bereziki zainduko da ondare kulturala zaintzen dela baso jardunak egiterakoan. Inbentariatutako elementuen babes perimetroan landaketak egitea saihestuko da.

f) Natura Eremu Babestuko Kudeaketa Organoak baso lurrak erosten jarraituko du; batez ere, baso naturalak eta ekologiaren aldetik, paisaia aldetik eta/edo babes aldetik interesgarrienak eskuratzen saiatuko da. Organo honek erraztu egingo du trukatzeak eta partzuergoak egiten direla, alderdiek horixe erabakitzen dutenean.

g) Mozketa baimenak irizpide teknikoak, ekonomikoak, paisaiakoak eta ekologikoak aintzat hartuta emango dira. Salbuespeneko izaeragatik, baso soilketa ekartzen duten edo nagusiki hazkunde moteleko espezie naturalez oihandutako mendietan erabilera aldatzea eragiten duten erabakiak kasu bakoitzean hartuko dira. Honako irizpide hauen arabera arrazoitu beharko dira erabakiok: pertsonen eta ondasunen babesa, masaren beraren mantentzea (izurriak, suteak) edo Natura Eremu Babestuaren funtzionamendu normalari eragiten dioten beste kausa batzuk.

h) Eman beharreko baso laguntza edo dirulaguntza mota zehazte aldera, hurrengo gidalerro eta irizpideak jarraituko dira:

- Adin bereko landaketen lurzati handietan lehentasuna edukiko dute jabeekiko akordioek, haiek beren mendien kudeaketarako planak landu ditzaten. Horietan, aintzat hartuko da espezie bakoitzaren banaketa egokiena eta horiei aplikatu egingo zaizkie Plan Zuzentzaile honetan eta sektoreko legedian ezarritako laguntzak.

- Babes berezia duten zonetan (arrazoi fisikoak, ekologikoak edo paisaia aldetikoak direla medio), legez araututa dagoena baino bertako hostozabal kopuru handiagoa erabiltzearen alde jokatuko da, betiere, jabeekin bat egin ondoren.
- Basoberritze osoan espezieak nahasteari emango zaio lehentasuna. Koniferoen baso masetan, masa linealetan edo hostozabal autoktonoen arboladietan “mikroerreserbak” sartzea sustatuko da.
- Baso ustiaketetan ingurumenaren gainean eragin txikia duten tekniken erabileraren alde egingo da eta hori diruz lagunduko da; gauza bera gertatuko da mozketa hondakinen suntsiketa mekanikorako baliatzen diren makinei dagokienez.

i) NEBeko bide sarea egoki mantentzea, suterik egongo balitz garrantzitsua izateagatik. Egunik arriskutsuenetan, sua itzaltzeko ibilgailuek erabiltzeko moduan egon beharko du bide sareak eta zirkulazioa oztopa dezaketen trabak ahal delarik ekidin beharko dira.

### 3.3.2. Jarduketak

a) Berretin mendia eta Gorbeiarako igoera -Zarate eta Muruatik- lotzen dituen sarbidea zuzentzea Pagazuri inguruan.

b) Baso lurzati bakoitzaren ezaugarri fisiko eta administratiboak eta jasotako dirulaguntzak biltzen dituen datu base bat sortzea.

c) Zaintzako eta suteen aurkako borrokako lanetan komunikazio-sistema bat gaitzea, Arabako eta Bizkaiko zaintza eta jarduketa baliabideak koordinatuz.

d) NEBen dauden balio natural altuko arboladi naturaletatik datozen haziak biltzeko egungo esperientziekin jarraitzea.

e) Baso lursail partikularrak erosteko politikarekin jarraitzea, aurrekontu baliakizunen menpe jarrita; natura eta paisaia interes altuko edo babes maila handieneko guneetan ardaztuko da (zuhaitz lepatuen unadak, Eletxiko harizti gaztainadia, Iñurbe haitzaren handitzea, Gorbeiganeko iparraldeko aldea, hegazti nekrofagoen funtsezko arloak, etab.).

f) Trenbideak eragindako zonan mazelen egonkortasun galera arintzeko behar diren neurriak finkatzea.

g) Siskinako Pagoa zuhaitz berezi gisa aitortzen dela sustatzea. Hura Ubidea pistaren ondoan kokatzen da.

## 3.4. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINTZA-JARDUERA

### 3.4.1. Kudeaketa-gidalerroak

a) Gorbeiako abeltzaintza kudeaketak hurrengo alderdiak sustatu eta bultzatuko ditu:

- “Txilardiak eta mendiko larreak” izeneko inguruneari eta jarduera garatzen den beste ingurune batzuei lotutako habitaten eta intereseko espezieen kontserbazio egoera ona.
- Gorbeiako larre habitaten aprobetxamendua eta hobekuntza, errentagarritasun ekonomikoko baldintzetan, habitat horien kontserbazio helburu, arauketa eta irizpideen menpe egongo dira.
- Bertako azienda arraza eta aldaerak, bereziki mendigunekoak berezkoak direnak.

- Ardi latxaren artzaintzaren kontserbazioa eta artisau gazten prestaketa zainduko da eta, gatazkarik egonez gero, lehentasuna emango zaio azienda larriaren artzaintzari dagokionez.
- Animalien kalitate genetikoa.
- Abere aziendaren osasuna eta hartatik ateratako produktuak manipulatzeko prozesuak.
- Abeltzaintza estentsibo antolatua, intentsiboaren aurretik.
- Erlezaintza aprobetxamendua
- Abeltzaintza azpiegitura egokiak, natura eta kultura ondareko elementuen gaineko eraginak saihesten laguntzen dutenak, egotea.
- Beren interesak zaintzen dituzten eta Parkeko Kudeaketa Organoarekiko solaskide izateko balio duten abeltzain elkarteak.
- Abeltzainak profesionalki gaitzea.
- Produktu deribatuen kalitatea eta horien banaketa eta merkaturatze egokiak.

b) Natura Eremu Babestuaren Kudeaketa Organoak abeltzaintza elkarteen bitartez bideratuko ditu gune babestuko erabilera horren kudeaketaren inguruko auziak eta jarduketak eta, era berean, abeltzaintza arloan eskumena daukan foru sailak komenigarritzat jotzen dituen xedapenak aintzat hartuko ditu.

c) Natura Eremu Babestuaren eremuan lursailak dauzkaten udalek larreak antolatzeko ordenantzak eman ditzatela bultzatuko da; agiri horietan, EKAP honetan jasotako xedapenak txertatu beharko dituzte, bai eta Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Planetik ondorioztatzen direnak ere, plan hori onartu ondoren.

d) Abeltzaintzako azpiegiturak:

- Parkearen Kudeaketa Organoak abeltzain elkarteekin batera lan egingo du, azpiegiturak mantentzeko eta berriak sortzeko. Dauden azpiegituren erabateko erabilera lortzen saiatuko da, berriak sortu baino lehen. Helburu horrekin zerikusia duten jarduketak abeltzaintza eta basogintza indartzeko eremuetan egingo dira lehentasunez.
- Erabiltzen ari ez diren abeltzaintza azpiegiturak ezabatzera joko da, eta baita eragin adierazgarriak sortu ditzaketen horiek ezabatzera ere. Era berean, oinarrizko azpiegiturak (txabolak, hornidurak, saneamendua, etab.) eta lagungarriak (artegiak, tratamendu eskortak, jezteko eremuak, itxiturak, etab.) hobetzea sustatuko da, produkzio egitura sektorean eskatu behar diren arauketa eta inguruabar berrietara egokitzeko moduan.
- Abeltzaintza azpiegiturak diseinatzerakoan, uren kalitateari (lurpeko nahiz azaleko uren kalitateari) kalterik ez eragiteko neurriak hartu beharko dira, erabilitako produktuei edo abereak sartzeko eta kontzentratzeko aurreikusitako tokiei dagokienez.
- Abeltzaintza azpiegiturak eraikitzea eragin edo eragiten duen erabilerarako soilik baliatuko dira, Natura Eremu Babestuaren Kudeaketa Organoak gainbegiratuta.

e) Mendiko larreak mantentzearekin, arraza autoktonoak kontserbatzearekin edo heskai biziak muga gisa erabiltzearekin bateragarriak diren abeltzaintza praktiketarako

nekazaritza eta ingurumen laguntzak ematea bultzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Planaren esparruan (2014-2020).

### 3.4.2. Jarduketak

a) NEBen barruan desparasitazio hondakinak kentzea. Bilketa zerbitzuaren egutegia eta antolaketa ezartzea.

b) Austigarmineko desparasitazio ontzia egokitzea.

c) Baiako antzinako ontzi antiparasitarioa paisaiari dagokionez leheneratzea. Erabilera horretarako egindako ekipamendu berrian interpretazio panel bat jartzea.

d) Arimekortako larre eremuan aterpeetara eta txaboletara heltzeko pista bakarra egokitzea, mugatua, Iondegortako aparkalekutik. Dauden errodadurak leheneratzea.

e) Gorbeian txabolak hobetzeko politikarekin jarraituko da (atontzea, hornidurak, saneamendua, sarbidea, eta abar).

f) Beharrezkoa den gutxieneko azpiegitura (uraskak, gazitegiak), finkoak edo mugikorrak, instalatzea eta badagoena mantentzea, abeltzaintza gainkargak murrizteko asmoz; horretarako, zehatz-mehatz hezeguneen eta istingen gainean duten eragina kontrolatuko da.

g) Dauden itxituren, haien egungo egoeraren eta horietan atondutako igarobideen inbentarioa eta kartografia eguneratzea. Itxitura zaharrak, hondatuak edo erabilgarritasuna galdu dutenak kendu egingo dira.

h) Salbuespenez ongarritzeak eta kareztatzeak puntualki aplikatzen badira, Kudeaketa Organoaren baimena eta ikuskapena beharko dira. Horretarako, urtean aplikazio horren emaitzen ebaluazioa egingo da, eraginpeko guneen eta habitaten arabera eta, nolanahi ere, *Sastrakak eta larreak* funtsezko elementuaren kontserbazio helburuak betez.

## 3.5. KUDEAKETA HIDROLOGIKOA

### 3.5.1. Kudeaketa-gidalerroak

a) Natura Eremu Babestuaren Kudeaketa Organoak alderdi hidrologikoei eragiten dieten proiektu eta lanen berri emango du. Gorbeia barruan dauden urtegi eta ur harpenen beharrizan, kokapen eta edukierari buruzko erabakietan parte hartuko du organoak. Lehentasunez, natura eta paisaia balio handieneko eremuak babestuko ditu eta jarduketa horiek sorrarazitako eraginak murrizten ahaleginduko da.

b) Kudeaketa Organoak Natura Eremu Babestuaren barruan gauzatzen diren lanak gainbegiratu ahalko ditu, eta gaian eskumena duen administrazioari edozein arau hausteren berri emango dio, ondorioz jardun dezan.

c) Erreken eta urtegien ertzetan landaredi naturaleko zerrenda bat kontserba dadin sustatzea, ur ingurunea babeste aldera. Jarraibide hori bereziki zortasuneko zonako 5 m-etan egingo da, eta 5 m gehiago zabalduko da polizia zonan. Erriberetako berezko espezieez basoberritu beharko dira gaur egun horrelako landaredirik ez badago. Jarduketa horiek koherenteak izan beharko dute arro erakundeek polizia zonan ezarritako irizpideekin, eta, bereziki, uholde kasuen aurreko prebentzioarekin lotutako irizpideekin.

d) Ibilguaren babes eremua ezarriko da, 50 m-ko zabalerakoa Baia ibaiaren ibilguko bi aldeetan, 25 m-ko zabalerakoa Zubialde, Ugalde, Oiardo eta Altube ibaien ibilguetako bi aldeetan eta 200 m-ko koroan Zubialdeko urtegietan. Gainerako ibilgu txikietarako, babes eremua 10 m-koa izango da, ibilguko bi aldeetan. Kasu guztietan errespetatuko da pasabiderako zortasun bidea. Horrek esan nahi du lursail naturala aldatzeko edozein esku hartze debekatuta egongo dela, nekazaritza eta basozaintzako lanei, obra publikoei eta onura publikoko eta interes sozialeko azpiegituren instalazioei edo kultura-ondarea babesteko ekintzakoei lotutakoak izan ezik, behar bezala arrazoituta badaude. Irizpide hori aplikatzean, uholdeen aurrean ibaien huste funtzioari eusteko arro erakunde eskudunaren irizpide zehatzetan arreta berezia jarriko da.

e) Era berean, Natura Eremu Babestuaren barruko edateko uraren harpenak babestuko dira, uraren kalitatea nahiz kantitatea zaintzeko helburuarekin, bai emari ekologikoa ziurtatzeko bai populazioak hornitzeko baliabide gisa. Horretarako, Ekialdeko Kantauriko eta Ebroko Mugapeen Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroan jasotako harpenak eta haien babes perimetroa hartuko dira kontuan (ikus: http://www.uragentzia.euskadi.net/appcont/gisura/).

f) Gorbeiako ur aprobetxamenduen erabilera lehentasunak Ekialdeko Kantauriko eta Ebroko Mugapeen Espainiako aldearen Plan Hidrologikoen zehaztapenei jarraikiz ezarriko dira.

**3.5.2. Jarduketak**

a) Natura Eremu Babestuaren Kudeaketa Organoak “Goi Baiaren Horniduraren Eraikuntza Proiektua”ren segimendua egitea, dagokionean ingurumen eraginaren adierazpenak ezartzen duenarekin bat etorriz.

b) Kudeaketa organoak ur deribazioak zaintzea eta kontrolatzea, edozein aprobetxamendu motarako, bai eta ur aprobetxamenduko emakida berri eta zaharretan emari ekologikoen arauketa aplikatzea ere, eta, horretarako, bereziki ibilguak aldentzea dagokion KBEren kontserbazio helburuak betetzeko mehatxu handiena dakarten kasuetan eragitea. Ur aprobetxamenduek bete beharreko baldintzekin lotutako gorabeherak antzemanez gero, emakida tituluekin bat etorriz, administrazio hidraulikoari jakinaraziko zaio neurri egokiak har ditzan.

c) Kudeaketa Organoak NEBeko hondakin uren isuriak gainbegiratu ahalko ditu eta administrazio eskudunari egon daitekeen edozein irregulartasunen berri eman.

d) Laguntza ekonomikoa ematea, baso laguntzak emateko politikaren bidez, edo ibaiertzetan landaredi naturala (tokian egon daitekeen landarediko berezko espezieekin) leheneratzeko eta hobetzeko borondatezko akordioak sustatzea, gutxienez 10 m-ko zabalerako bandan zerga erreken ertzetan eta 20 m-ko zabalerakoan ibilgu nagusietan ur ibilguek lursail publikoak (herri basoak eta onura publikoko mendiak) zeharkatzen dituzten guneetan, eta 5 m-ko zabalerakoan NEBa zeharkatzen duten gainerako ur ibilguetan, pasabiderako zortasun gunea errespetatuz. Laguntza horiek espeziea aldatzeagatiko konpentsazioekin bat etorri ahalko dira NBAPn adierazitako guneetan, eta, nolanahi ere, arro erakunde eskudunaren baimen eta txosten egokiak izan beharko ditu.

e) NEBeko mendi hegal jakin batzuetan gaur egun higadurak ukitutako puntuak pixkanaka kentzea eta, horretarako, eremu horietan espezie autoktonoen arboladiak sortzea.

## 3.6. EHIZA- ETA ARRANTZA-JARDUERA

### 3.6.1. Kudeaketa-gidalerroak

a) Natura Eremu Babestuaren Kudeaketa Organoak zainduko du NEBeko erabilera eta jarduera guztien artean koordinazioa egoteko; horretarako, erabilerok denboran eta espazioan batera gertatzeak sorraraz ditzakeen gatazkak aztertuko ditu eta neurri egokiak ezarriko ditu. 2/2011 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ehizarenak, ezarritako segurtasun zonei jaramon egin beharko zaie. Aisialdi erabilerako instalazioak segurtasun eremutzat joko dira eta, gutxienez, 100 metroko babes koroa izango dute inguruan (parketxeak, bidezidorrak, atsedenlekuak...). Ehiza jarduera denboran eta espazioan aisialdikoarekin batera gertatzea saihestuko da eta alderantziz. Hori egin ezin bada, sarbidea mugatuko da edo ordutegi espezifikoak ezarriko dira.

b) Mendiguneko alde altuan sortutako ehiza aprobetxamendurik gabeko zona azaletik mantenduko da eta hango mugak lursailaren gainean adieraziko dira argi eta garbi, basoko faunarentzako babes eta lasaitasun funtzioa behar bezala bete dezan.

c) Beharrezko neurriak hartzen jarraituko da, pixkanaka mugatu eta murrizteko mendigunean egonkortutako fauna basati ez mehatxatuak Natura Eremu Babestuaren ingurunean sortzen dituen gatazkak. Nekazaritza edo basogintza jabetzetan kalte esanguratsurik gertatu dela dudarik gabe egiaztatuz gero, Natura Eremu Babestuaren Kudeaketa Organoak tarteko espeziearen gaineko kontrol jarduketak baimendu ahalko ditu. Dena dela, neurri prebentiboak lehenetsiko dira.

d) Txaleko islatzailea nahitaez erabili beharko da ehiza handiko uxaldietan, eta Natura Eremu Babestuaren barruko gainerako ehiza modalitateetarako.

e) Ehiza plangintza Natura Eremu Babestua ehiza kudeaketako unitate bakartzat jotzera bideratuko da eta, horretarako, dagokion NEBeko Ehiza Antolamenduko Plan Teknikoa edukiko du.

f) Oreinari arreta berezia eskainiko zaio, sartutako populazioa baita; horretarako, kupoak ezarriko dira, urteko zentsuetan eta NEBen ehizatutako oreine kontrolean oinarrituta.

g) Erbi europarra eta eper gorria: ez da baimentzen espezie horiek ehizatzerik Natura Eremu Babestuaren eremuan, Kudeaketa Organoaren berariazko baimena eduki ezean. Zona egokietan espezie horien populazioen alde egiteko saiakera egingo da, eta jarraipen programa bat finkatuko da bientzat.

### 3.6.2. Jarduketak

a) NEBerako Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoa prestatzea, Natura Eremu Babestua planifikatzeko eta kudeatzeko irizpideekin bat etorriz.

b) Lursailaren gainean ehiza aprobetxamendurik ez duten azalerako mugak ezartzea.

c) Basurdeen uxaldiak seinaleztatzea, ehiztarientzako aparkaleku baimenduak eta pase lerroak.

d) Garai baliodunean, usoaren igarotze lerroak eta ehiztarientzako baimendutako aparkalekuak seinaleztatzea.

e) Seinale zaharkituak kentzea.

f) Natura Eremu Babestuan erbi europarraren eta eper gorriaren segimendu programa garatzea.

g) Zerbidoek eta basurdeek Natura Eremu Babestuaren barruan eragindako kalteen segimendu programa garatzea.

## 3.7. ERABILERA PUBLIKOA

### 3.7.1. Kudeaketa-gidalerroak

a) Gorbeiako erabilera publikoaren kudeaketa Natura Beremu Babestua kontserbatzeko konpromisoen arabera egingo da, gizartearen itxaropenak eta EUROPARCek (Europako Natura eta Nazio Parkeen Fundazioa), EUSKALITek (Bikaintasunerako Euskal Fundazioa) edo AENORek (Espainiako Normalizazio eta Egiaztapen Elkartea) eta antzeko erakundeek proposatutako estandarrak aintzat hartuz.

b) Beti izango du lehentasuna ingurune naturaleko elementu berezi eta ahulenen zaintzeak erabilera publikoko eskaeraren aurretik. Gauzak horrela, NEBeko Kudeaketa Organoak beharrezkotzat jotako presazko neurri eta muga guztiak jarri ahalko ditu, babes helburu horiek betetzeko.

c) Erabilera publikoari dagokionez, Gorbeiako NEB kudeatzeko gidalerroak Gorbeiako Erabilera Publikoko Planean (EPP) zehaztuko dira; planaren ereduak laguntza emango du Gorbeiako baliabideak modu aktiboan kontserbatzeko, erabilerak murrizteko antolamendu bakar eta pasiboa saihestuz.

d) Erabilera Publikoko Planak sektoreetan banatuko du Natura Eremu Babestua erabilera publikoak eragin dezakeen kalteberatasunaren arabera, betiere NBAPn jasotako informazio ekologikoa aintzat hartuz. Eremu hauek bereiziko dira:

- Erabilera publiko mugatuko eremuak.
- Denboran mugatutako erabilera publikoko eremuak.
- Erabilera publiko zabaleko eremuak.
- Erabilera publiko apaleko eremuak.
- Erabilera publiko trinkoko eremuak.

e) Gorbeiako NEBen erabilera publiko plana onesten ez den bitartean, honako kudeaketa gidalerro hauek hartuko dira kontuan:

- Bi Lurralde historikoetan eskudun diren erakundeen arteko koordinazioa bermatu egingo da, NEBen erabilera publikoaren kudeaketari koherentzia emateko helburua betetzeko.
- Erabilera publikoko jarduerak eta ekipamenduak NEBen guneen edukiera eta kalteberatasunaren arabera egokituko dira, jardueren intentsitatea kontuan hartuz.
- Aisialdi erabilera trinkoak NEBen inguru periferikora bideratuko dira; horretarako, eremuko udalekin koordinatuz, disuasio eremuen sare bat prestatuko da, ondoko inguruetan aisialdi zerbitzuak eskaini ahal izateko.
- Eraginpeko eremuko udalekin koordinatuz, autobarabanetarako zerbitzuguneak ezartzea sustatuko da Natura Eremu Babestuaren inguruan.

- Aisialdiko erabileren artean gatazkarik egonez gero, ingurunearentzat inpaktu gutxien duten erabilera publikoko jarduera horiek garatzearen alde egingo da eta, baldintza berdinetan egonez gero, izaera orokorragoa edukitzeagatik erabiltzaile kopuru handiagoari eragiten dieten horien alde egingo da.
- Ingurunean inpakturik ez duten kirol jarduerak sustatuko dira.
- Mendiko karrerak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzeko, erreferentzia gisa hartu beharko da lan hau: Natura Eremu Babestuetan mendiko karrerak egiteko jardunbide egokien Gida (EUROPARC-Espainia, 2016).
- Kanpo gidarien talde bat sortzeko eta istripuen erreskate jarduerak egiteko bultzada emango da, azken jarduera horretako antzeko taldeekin koordinatuz eta eragin sozioekonomikoko eremuko biztanleen partaidetza lehenetsiz.
- Turismo iraunkorreko politika berriak abian jartzea sustatuko da, naturaren turismoaren sustapen eta garapena bateragarria izan dadin natura eremua babesteko helburuekin.
- Kirol federazio eta elkarteekin (mendikoak, eskalada, espeleologia, BTT, hipika, orienting, etab.) eta turismo aktiboko enpresekin koordinatu eta lankidetzan jardungo da, NEBen garatzen diren kirol eta aisialdi jardueren antolamenduan.
- NEBen erabilera publikoaren eta etorreraren jarraipen sistema bat ezarriko da, NEBen erabilera publikoaren magnitudea nahiz lurralde eta denbora banaketa ezagutzeko asmoz, hori oinarria izango baita jarduera horien etengabeko egokitzapena bideratzeko.

f) Erabilera publikoko planak kudeaketa gidalerro zehatzak ezarriko dizkie atsedenlekuei, erabilera publikoko kirol jarduerei, erabilera publikoko bestelako jarduerei, baso produktuen bilketari eta abarri. Gorbeiako NEBen Erabilera Publikoko Plana onetsi arte, honako kudeaketa gidalerro hauei jarraitu beharko zaie:

3.7.1.1. <u>Atsedenlekuak</u>

- Erabilera publiko trinkoko lekutzat hartuko dira.
- NEBen barruko piknik erako atseden jarduerak kontrolatzea. Horretarako, ekipamendu eta zerbitzu egokiz hornitutako lekuak atonduko dira, kalitatezko atsedena eskainiko dutenak, baina eremuaren berezko izaerari atxikiz.
- NEBen periferian atseden erabilerako alternatibak garatzea lehenetsiko da, eragin sozioekonomikoaren eremuaren barruan.
- Ibilgailuak pistetan eta horretarako prestatutako guneetan aparkatzeko eta haietarako sartzeko modua arautuko da.

3.7.1.2. <u>Erabilera publikoko kirol jarduerak</u>

- NEBen bidezidorren sare orokorra kontserbatzeko eta seinaleztatzeko egoera egokiari eutsiko zaio; sare hori NEBko hirigune nagusiekin konektatuko da, museoekin, kultura ondareko elementuekin, landa turismoekin eta hurbil dauden Urkiolako Natura Eremu Babestuarekin eta Arkamo-Gibijo-Arrastariarekin.
- Bidezidorretan jendearen ugaritasuna murriztea ahalbidetzen duten ibilbideak bultzatu eta sustatuko dira; izan ere, horien gehiegizko erabilerak eremuaren kontserbazio helburuak jar ditzake kolokan, bereziki zaurgarritasun bereziko guneak gurutzatzen edo zeharkatzen dituzten bidezidorretan (babes guneak, kontserbazio guneak).

    - Ahultasun txikiagoko tontorretarako bidezidorrak: Kolometa, Oderiaga, Oketa.
    - Mendi hegalak lotzen dituzten baina mendiguneko alde altuetara heltzen ez diren bidezidorrak.
    - Zirkuitu eta ibilbide didaktiko txikiak alde baxuetan.
    - Gorbeia-Urkiola ibilbidea.
- Bidezidorren Sare Orokorra erabilera publiko apaleko eremutzat hartuko da.

3.7.1.3. Erabilera publikoko jarduera antolatuak

- Kontrolpeko kanpaketa librerako emandako baimenak mugatu egingo dira, eta antolatutako kanpamenduak harrerarako edukiera nahikoa duten eremuetara eta aterpetxeen edota aisialdi eremuen kanpoaldeetara mugatuko dira, zaintze balioekin bat etorriz.
- Erabiltzaile mota ezberdinei zerbitzua ematea, bisitariari NEBen edo haren ingurumarietan lo egiteko aukera emanez ostatu modalitate ezberdinak garatuz. Landa garapeneko planetan definitutako irizpideei laguntzea, tokian tokiko ekonomia ostatuen sorkuntzan integratuz (landa turismoak, hotelak, landetxeak eta kanpinak, etab.).
- Ingurumen hezkuntzako programak herritarrei eta NEBen garatzen diren erabileretan eta jardueretan inplikatutako sektoreetako teknikariei ere zuzenduko zaizkie, bereziki NEBren eraginpeko eremuko biztanleei eta NEBen garatzen diren jardueretan inplikatutako pertsonei edo enpresei (adibidez, turismo aktiboa).
- NEBeko balio ekologiko edo tradizionalen nahiz paisai edo kultura intereseko balioen informazio, interpretazio eta zabalkunde ekipamenduak mantendu eta eguneratuko dira, erabiltzaileek eremuarekiko duten sentsibilizazioa areagotzearren eta adierazpena arrazoitu zuten balioak kontserbatzeko premia agerian jartzearren. Bereziki, ikastetxeei zuzendutako jarduera didaktiko eta hezitzaileen zerbitzuari eutsiko zaio, begiraleek eta hezitzaileek emandakoa eta gehienbat NEBko parketxeetan kudeatutakoa. Zerbitzu hori NEBen edo haren eragin sozioekonomikoko gunean dauden bestelako ekipamenduetara ere zabaldu ahalko da.
- Gorbeiako NEB topaketa eta bilera gune gisa sendotzea sustatuko da, hari lotutako gaiak garatzeko: oro har Natura Eremu Babestuak, Natura 2000 sarea, ehizaren kudeaketa, etab.
- Bereziki sustatuko dira Mendiguneko bi isurialdeetako biztanleria hurbiltzeko balio duten bisitak, jardunaldiak eta jarduerak.
- Natura Eremu Babestuaren irudia sartzea gizartean; horretarako, parkean interesa duten irabazteko xederik gabeko erakunde ezberdinekin –Gorbeiako Lagunak Elkartea eratuko dutenak- harremanak indartu behar dira.

3.7.1.4. Perretxikoak eta bestelako baso produktuak biltzea

- Zenbait eremutan perretxikoen bilketa eta bateragarritasuna antolatzea jarduera zinegetikoarekin, betiere ikusgaitasun txikiko guneetan eta modalitate batzuetan bat egiten dutenean sortzen den arriskua saihestuz (pekada eta basurdea, batik bat).

**3.7.2. Jarduketak**

a) Gorbeiako Natura Eremu Babestuaren Erabilera Publikoaren Plana onartzea eta argitaratzea, betiere eremua Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzeko ezarritako irizpideen eta informazio ekologikoaren arabera.

b) Erabilera publikoko planaren jarduketa programak abian jartzea.

c) Natura Eremu Babestuen UNE 187002 arauan (AENOR) oinarritutako Parkea Kudeatzeko Sistemaren ezarpen eta egiaztapen zereginei heltzea; haren marka ezaguna kalitatezko Q da.

d) Gorbeiako Natura Eremu Babestua egiaztatzeko lanei heltzea, Turismo Iraunkorreko Europar Gutunaren bidez.

3.7.2.1. Atsedenlekuak

e) Pagomakurreko aisialdi eremuaren eta ingurunearen antolamendurako plan berezia prestatzea eta garatzea, zerbitzuak eta ekipamenduak egokituz dagoen eskarira.

f) Altubeko errepideko ertzetan, Natura Eremu Babestutik pasatzen den tokian, aparkaleku eremu txiki bat egokitzea.

g) NEBeko aterpeetan eta instalazioetan hondakinak kudeatzearekin zerikusia duen laguntza gidalerroa.

h) Pagomakurrerako igoeran dauden aterpe publikoak, NEBen kudeaketari eta zaintzari edo bisitarien ostatuari lotutako erabileretarakoa, erreformatzea.

3.7.2.2. Erabilera publikoko kirol jarduerak eta/edo jarduera antolatuak

a) NEBeko bidezidor sarea osatzen duten bideek kirol jarduera mota bakoitzarentzat duten harrera gaitasuna ebaluatzea.

b) NEBen barrunbeen erabilera publikorako harrera gaitasuna aztertzea.

c) Barrunbe irisgarrienen garbiketa plana, bereziki Mairulegorretako kobazuloarena.

d) Lezabal leizean, Itxinan, seinaleak eta segurtasun neurriak ezartzea.

e) Bidezidor sareko bideak larre irekiko guneetan sartzen diren puntuetan txakur askeak debekatuta daudelako seinaleak jartzea.

f) NEBeko eta gune mugakideetako kultura baliabideen inbentarioa egitea, ibilbide didaktiko berrietan txertatzeko asmoz.

g) Gazteentzako laneko udalekuen udal ekimenak babestea, NEBeko natura eta kultura ondarea berreskuratzeko.

3.7.2.3. Perretxikoak eta bestelako baso produktuak biltzea

h) Erabilera honi buruzko araudi muga berriei buruzko informazio kanpaina egitea. Halaber, jarduera honek ehizarekin bat egiten duenez urtaroaren aldetik, gomendatu egingo da informazio kanpaina horretan txaleko islatzaileak erabiltzea perretxiko-biltzaileek.

## 3.8. TOKI-GARAPENA

### 3.8.1. Kudeaketa-gidalerroak

a) Gorbeiako eragin sozioekonomikoko eremuan dauden udalerrien aldeko diskriminazio positiboa gauzatuko da Natura Eremu Babestuaren helburuak xede dituzten erakunde publikoen laguntzak eta dirulaguntzak aplikatzean.

b) NEBen eta haren eragin eremuaren garapen sozioekonomikoa Arratia-Nerbioiko eta Gorbeiako Inguruetako Landa Garapeneko Planetan xedatutako estrategia eta irizpideetan kokatuko da.

c) Eskualdeko landa garapeneko estrategiak, Landa Garapeneko Planetan azaldutakoak, Natura Eremu Babestuko habitatak eta espezieak kontserbatzeko helburuekin bateragarri egingo dira.

**3.8.2. Jarduketak**

a) Gorbeiako Natura Eremu Babestuaren Garapen Sozioekonomikoko Programa idaztea, Gorbeiako NEBen bi aldeetan dauden Landa Garapeneko Planekin bat datorrena.

b) Gorbeia NEB egotearen ondoriozko onurei buruzko azterketa ekonomikoa egitea, hango biodibertsitatearen eta ondoriozko ingurumen zerbitzuen balio ekonomikoa kontuan hartuz, etorkizunean beren esku hartzearekin baso faunetako habitate eta espezieak kontserbatzen laguntzen duten jarduerei Ingurumen Zerbitzuengatiko Ordainketak aplikatzea baloratzeko.

c) Aipatutako programa eta azterketa ekonomikoa toki komunitateen eta eragileen artean zabaltzea eta alderdi interesdunen esku uztea.

d) Kudeaketa Organoak parte hartuko du Arratia-Nerbioi Mendiko eta Gorbeiako Inguruetako Landa Garpenerako Programen berrikuspen eta onarpenean, eta honako hauetara zuzendutako neurriak sartuko ditu:

- Parkearen helburuei eragin negatiboak ekar diezazkieketen proiektu edo jarduerak planifikatzen direla aurreikustea, bai Parkearen barrualderako, bai bere Kanpoaldeko Babes Eremurako.
- Natura Eremu Babestuaren funtsezko elementuak kontserbatzea.
- Erabilera publikoko ekipamenduak.
- Natura Eremu Babestuaren baliabide turistikoen erabilera iraunkorra sustatzea.

e) Erabilera publikoa eta natura baliabideen kontserbazioa direla eta, konpentsazio sistema ebaluatzea eta berrikustea, erabileren mugengatik eta etekinen galeragatik kalte-ordainen, laguntzen eta bestelako neurrien bidez.

f) Sektoreko erakundeekin, ikastetxeekin eta tokiko erakundeekin bisitaldi didaktikoen eskaintza finkatzea, zonan ageri diren ekoizpen sektoreetako ustiategi adierazgarrietara.

## 3.9. ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK

**3.9.1. Kudeaketa-gidalerroak**

a) Eraikuntza erabileren arauketan, protagonismo nagusia udal planeamenduko agiriei ematen zaie, betiere, NBAPekin eta EKAP honekin kontraesanean ez badaude.

b) Natura Eremu Babestuko Kudeaketa Organoak beharrezko eraikuntzak eduki beharko ditu hura kudeatzeko; gauzak horrela, beharrezkoa denean, mekanismoak jarriko ditu martxan eraikin horien kudeaketa publikora berriro itzultzeko. Horiek onura publikoko mendietan kokatzen diren aterpetxeak izaten dira funtsean, gaur egun partikularren eskuetan. Horrela, ahal den heinean, eraikuntza behar berriak bideratuko dira, batez ere erabilera publikora edo Parkearen kudeaketa jada existitzen diren eraikinetarantz eramatera uztartuta.

c) Natura Eremu Babestuaren barruan aurri egoeran dauden baina eraikuntza, kultura, eta abarreko balioa duten eraikinak berriro eraikitzeko ahalegina egingo da. Berreraikitze horiek jatorriko eraikinaren egitura eta tamaina mantenduz egingo dira, eta ez da aukerarik egongo sarbideak hobetzeko horiek lehendik existitzen ez baziren.

d) Natura Eremu Babestuaren zona mugakideetarantz orientatuko da beharrezko ekipamendua haren kudeaketa eta erabilera publikoaren funtzioa betetzeko. Arreta berezia jarriko da jendea hartzeko behar besteko gaitasuna duten puntu zehatzetan.

e) Saiakera egingo da eraikuntza jardun guztiek hurrengo estilo baldintzak errespeta ditzaten.

- Egiten diren eraikin berriak zonan nagusi den estilo tradizionalari egokituko zaizkio. Natur inguruarekin bat etorriko dira, hala fatxadetan nola estalkietan edo kanpotik ikusten diren beste parte batzuetan, eraketa orokorrari (desnibelak, moduluak, baoen proportzioak, etab.), gaiei eta koloreei dagokienez.
- Eraikinari nortasuna ematen dioten arkitektura elementu guztiak gordeko dira, ahal den neurrian, berrikuntza lanak gauzatzerakoan; eta lehen ikusten ez zen elementu ezkuturik aurkituz gero, ahaleginak egingo dira lehengo eginkizuna berreskura dezan, beharrezko elementuekin bateratsu.
- Merkataritza establezimenduen errotulo edo iragarkiak beheko solairuko hacen barne espazioaren mugen barruan jarriko dira, hacen arteko janbak eta dintel edo arkuak libre utziaz, fatxadakoa ez den ezein gai gaineanjarri gabe. Errotulu horiek ez dira nabarmenak izango; letrak zurez, burdina forjatuz, brontzez edo kalitate oneko beste gairen batez egingo dira.
- NEBeko Kudeaketa Organoak sustatu egingo du gaur egun bertan dauden eraikinen barne eta kanpo ezaugarriak egokitzen direla, egungo erabileran eta inguruarekin egoki ez datozenetan gabeziak igartzen badira.

f) NEBeko Kudeaketa Organoak bereziki zainduko du abeltzain jarduerari uztartutako kultura ondarea mantentzen dela eta, hala badagokio, berreskuratu egiten dela: saroiak, bordak, hozkailuak, kirikiñausiak, oinezkoentzako bide tradizionalak... Era berean, eragin sozioekonomikoko eremuko kultura intereseko eraikin eta eraikuntzen zaharberritzea zainduko du.

g) Gaur egungo bide sareari eustea, baimendutako ibilgailuek bidea erabiltzea izan dezaten ahalik eta aldirik luzeenean eta baldintzarik onenetan. Beste alde batetik, zoladuren hobekuntzak aztertu beharko dira, zoladuraren egoera txarragatik sorraraz daitekeen errodadura zarataren eragina arintzearren.

h) Ibilgailuak parkean sartzeko egungo kontrol mekanismoen aplikazioari eutsi eta hori hobetzea, kontrol mekanismo horien eraginkortasuna aldizka berrikusiz. Itxitura berriak jarriko dira bide sarean, baldin eta baimenik ez duten ibilgailuen zirkulazio arazoak antzematen badira.

### 3.9.2. Jarduketak

a) NEBen dauden eraikuntzen eta azpiegituren erregistroa egitea. Datu hauek barne hartu beharko ditu: mota, jabetza, erabiltzaileak, erabilera, arazketa-sistema, etab.

b) Behar duten alde altuko eraikuntzen eta bordetako saroien leheneratze estetikoa egitea.

c) Arlamendiko haztegia konpontzea.

d) Hondakin urak garbitzeko mekanismoak instalatzea beharra justifikatuta dagoen aterpetxeetan.

e) Bide azpiegituren Plana idaztea. Plan horren barruan bereziki begiratuko da nola egokituko diren bideak, suteren bat gertatzen denerako larrialdi plan baten alde.

f) Baimenik gabeko ibilgailuak Natura Eremu Babestuaren barruko zirkulazio mugatuko bideetatik igarotzea mugatzen duten itxitura mekanismoei eta informazio seinaleei eustea.

g) Baso jabeen, ganaduzaleen eta aterpetxeen arduradunen erregistroa aldian behin eguneratzea, horiek baimenik badute Natura Eremu Babestuko igartze mugatuko bideetatik ibiltzeko.

h) Bide bakarra atontzea eta paraleloan pista erdibitzeak dauden tarteetan ibilgailuentzat daudenak konpontzea. Estetikoki, presazkoa da lan hau egitea Garrastatxu-Nafakorta eta Arimekorta tartean.

i) Gorbeiako gurutzera Herreriasko sakanetik (Zuia) daraman pista zaharra paisaiaren aldetik lehengoratzea.

# 4. KUDEAKETA-ESTRATEGIA

## 4.1. PLANTEAMENDU OROKORRA

### 4.1.1. Kudeaketa-gidalerroak

a) Natura Eremu Babestua izendatzeko helburuak lortzeko behar diren langileak, materialak eta finantza baliabideak zehaztea eta egituratzea. Kudeaketa eraginkorra eta denboran zehaztua bermatzea.

b) Prozedura sistematikoen ezarpena erraztea, NEBeko kudeaketaren antolaketa definitzeko, zerbitzuaren kalitateari mesede egiteko moduan. Egoki irizten bazaio, kudeaketaren kalitate sistemen diseinua eta ezarpena erantsiko dira, zenbait tresna baliatuz (Espazio Babestuetako Turismoari buruzko Europako Gutuna, Turismoaren Kalitatearen Q, eta abar).

c) Natura Eremu Babestuan eragiten duten eragile eta sektoreen prestakuntza iraunkorra sustatuko da, espezieentzat eta habitatarentzat proposatutako kontserbazio helburuak lortzeko.

d) Gorbeian eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizartearen parte hartzea sustatuko da.

e) Boluntariotza eta partaidetza moduak babestuko dira, baita herritarrek kontserbazioan parte hartzea ere.

f) NEBen eremuan zaintza lanak areagotuko dira, tokia izendatzeko balio izan duten habitat eta espezieen kontserbazio helburuak arriskuan jar litzaketen baimendu gabeko erabilerak eta jarduerak saihesteko.

### 4.1.2. Jarduketak

a) Kudeaketa unitate espezifikoaz, guztiz identifikagarriaz, hornitzea Natura Eremu Babestua, hori izendatzen duen agirian ezarritako helburuak betetzeko xedez, unitate horren dimentsioa zehaztea eta kudeaketa organoaren zerbitzu zentralen menpe dagoela agerian uztea. Kudeaketa unitatea, gutxienez, honako hauek osatuko dute: zuzendariak, zaintzaile taldeak eta hezitzaile-monitoreen taldeak. Unitatearen antolaera dela eta, administrazioaren berezko jarduerak eta zerbitzuak zehaztuko dira, batetik, eta kontratazio eta hitzarmenen bidez gauzatutakoak, bestetik.

b) NEBen kudeaketa egitura Gorbeiako Lagunak elkartean edo antzekoetan sartzea.

c) Erakunde publikoekin, pribatuekin edo irabazi asmorik gabekoekin hitzarmenak sinatzea Natura Eremu Babestuan boluntariotza proiektuak garatzeko.

d) Ingurumen informazioko dokumentazio zentroa edo informazio sistema sortzea, natura eremuan egiten diren azterketei buruzko kontsultak errazteko eta garatutako ikerketen eta proiektuen emaitzak zabaltzeko.

e) Urteko jarduketa programa ezartzea.

f) Jarduketei buruzko urteko memoria eta erabilitako aurrekontua laburbiltzen duen fitxa argitaratzea.

g) Gorbeia NEBeko kudeaketa eta kontserbazioan inplikatutako ingurumen administrazio eta administrazio sektorialen arteko topaketa bilgune bat sortzea eta garatzea:

administrazio batzordeak, udalak, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, lehen mailako sektoreko ordezkariak, Uraren Euskal Agentzia, Konfederazio Hidrografikoak, etab.

## 4.2. BABESEKO, BALIABIDEAK ONIK ZAINTZEKO ETA GARAPENEKO PROGRAMA ZEHATZAK

### 4.2.1. Jarraipenerako programa

EKAP honen indarraldian zehar, Jarraipen Programa bat landuko da natura ondareko elementuen zaintza egoerari eta erabilera eta jardueren garapenari buruzko irudi egokia edukitze aldera. Halaber, Natura Eremu Babestuan garatzen den kudeaketak ekosistemetan dituen eraginak ezagutu nahi dira.

Natura Eremu Babestuaren Jarraipen Programak, besteak beste, honako helburu hauek izango ditu:

- Bertan ezarritako neurri eta gidalerroen aplikazioa jasotzea.
- EKAP honen urteko ebaluazioa egitea.
- EKAP indarrean dagoen aldi osoan ebaluazioa egitea.

Era berean, Natura Ondareko elementuak eta jarraipenerako jarduerak, maiztasuna eta metodologia berezia izango ditu kontuan, kasu bakoitzean, bai eta adierazleak ere. Hala eta guztiz ere, Programa horrek, gutxienez, hurrengo idatz zatiak edukiko ditu:

a) Biodibertsitatearen jarraipena: Gorbeiako EKAPen ezarritakoa beteko da.

b) Zientzia eta ikerketa jarduerak: Natura Eremu Babestuan EKAPen hurrengo berrikuspenera arte eginiko ikerketa jardueren erregistroa eta emaitzak.

c) Basogintzako erabilera: lurzati iraunkorren sare bat ezartzea, haren bilakaeraren jarraipena egiteko. Kasu horretan, maiztasuna bi berrikuspen aldi izango dira, alegia, 12 urte.

d) Abeltzaintzako erabilera: Natura Eremu Babestukore larreak erabiltzen dituzten abereen zentsuaren urteko bilakaera.

e) Kudeaketa hidrologikoa: EAEko Ibaien Egoera Biologiko eta Kimikoaren Jarraipen Sareak eta EAEko Barrualdeko Lakuen eta Hezeguneen Egoera Ekologikoaren Jarraipen Sareak emandako datuen erregistroa; emaitzak urteko jarraipen txostenetan jasoko dira. Hornidura eta saneamendu azpiegituren inbentarioak eguneratzea.

f) Ehiza erabilera: harrapaketen urteko jarraipena eta ehiza interesa duten espezieen populazioen egoera.

g) Erabilera publikoa: 4.2.2 atalean zehaztutakoarekin bat etorriz, Natura Eremu Babestuaren erabilera publikoaren jarraipen programa ezarriko da, EKAP garatzeko tresna gisa egin beharreko Erabilera Publikoko Planaren esparruan.

h) Landa garapena: EKAP berrikusteko aldian, Natura Eremu Babestuaren kudeaketaren ebaluazioari buruzko inkestak egingo zaizkie erabiltzaileei eta gunearen garapenarekiko konpromisoa duten eragileei, baita zuzeneko eragineko eremuko udalerrietako biztanleei ere.

### 4.2.2. Erabilera Publikoko Plana

Erabilera Publikoko Plana (EPP) erabilera publikoko jardueren, instalazioen, erregulazioen eta zerbitzuen proiektu antolatua da. Haren barruan burutzapen egutegia dago eta planean zehaztutako eremu babesturako erabilera publikoaren ereduaren burutzapen eta jardunbide baldintza zehatzak jasotzen ditu.

EPPk burutzapenean inplikatutako agenteak zehaztuko ditu, bai eta beharrezko aurrekontuak, gidalerroak eta aplikatu beharreko arautegi berezia ere; gainera, jarraipen eta ebaluazio sistema bat aurreikusiko du, jarduketen gaineko adierazle zehatzak adieraziz. EPPk programetan eta esku hartze arloetan banatu ahalko da, betiere eremu babestuaren ezaugarriei egokituz.

EPPn honako atal hauek sartu behar dira, gutxienez:

1. Aurrekariak eta justifikazioa.

2. Plangintzaren helburuak.
    a. Helburu orokorrak.
    b. Helburu zehatzak.

3. Hasierako egoeraren diagnostikoa.
    a. Lege esparrua.
    b. Eragindako esparrua.
    c. Erabilera publikoko baliabide baliagarriak.
    d. Erabilera publikoko eskaintza.
    e. Eskaeraren azterketa.
        i. Kuantifikazioa.
        ii. Bisitariak ezaugarritzea.
    f. Zerikusia duten eragileen eta finantzazio mekanismoen sarearen analisia.
    g. Harrera gaitasunaren balorazioa eta erabilera publikorako eszenatokien definizioa.
    h. Inpaktuen detekzioa eta aurreikuspena eta elkartutako neurri zuzentzaileak. Gaitasunaren zonifikazioa, jardueren eta ingurunearen hauskortasunaren arabera.
    i. Plangintza ereduaren baldintzen eta funtsezko ezaugarrien analisia (zerikusia duten eragileak, azpiegiturak kudeatzeko ereduak, zerbitzuak kobratzea, espazioaren kanpoaldeko zerbitzuekiko harremanak).
    j. Erabilera publikoko programen gidalerroak.

4. Erabilera publikoaren plangintzaren diseinua (sektorizazioa, araudia, ekipamendu eta zerbitzuetarako gidalerroak eta programak). Erabilera Publikoko Plana osatzen eta garatzen duten programak babestutako espazioa babestearen eta kudeatzearen zerbitzutan dauden tresnak izango dira, eta haietan helburu horiekin zerikusia duten edukiak lehenetsiko dira. Mezuak errazak, ulergarriak eta erakargarriak izango dira, eta zerbitzuak, ahal den neurrian, pertsonalizatuak. Gutxienez programa hauek sartuko dira:
    a. Harrera programa.
        i. Jarduerak arautzeko azpiprograma.
        ii. Eraginak zuzentzeko eta prebenitzeko azpiprograma.
    b. Komunikazio eta informazio programa. Argibide gehiago: argitalpenak, irudiaren erabilera, sustapena, etab. Eskainitako informazioan, gutxienez, erabilera publikoaren, kokapenaren, mugen, zonifikazioaren, ekipamenduen kokapenaren, arreta ordutegien eta espazioaren natura eta kultura balioen oinarrizko araudia sartuko da.
    c. Ingurumena zaintzeko programa. Iraupen luzeko programazioa, lehenetsitako kolektiboei zuzendua (adibidez, bertako biztanleak eta ikasleak).

d. Segurtasun programa. Bisitarien segurtasuna bermatzen duten prozedurak eta jarduketa protokoloak ezarriko dira.
e. Boluntariotza programa.
f. Programazioa. Finantzazioaren egutegia eta aurreikuspena.

5. Erabilera publikoaren administrazioa.
   a. Erabilera publikoko zerbitzuak emateko formula. Zerbitzuak emateko ereduak, pleguak eta formulak egitea.
   b. Beste administrazio batzuekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko komunikazio bideak.

6. Erabilera publikoaren plangintzaren ebaluazioa eta jarraipena. Jarraipeneko metodologia bat eta adierazleen sistema bat diseinatuko dira, bisitarien harrera gaitasuna jakiteko eta erabilera publikoko jardueren ondorioak baloratzeko: eragin sozioekonomikoa bertako herrietan, ingurumen eragina eta Ingurumen Hezkuntza eta Interpretazioko programen eraginkortasuna.

**4.2.3. Garapen Sozioekonomikoko Programa**

Programa hau egiteko oinarriak Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan eta Eskualdeko Landa Garapeneko Programetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenaren Legetik eratorriak) agertzen direnak izango dira, eta programa horien lan eremuan Natura Eremu Babestuaren eragin sozioekonomikoko eremua sartzen da. LGP horiek, zehatz-mehatz, Arratia-Nerbioi eskualdeetakoak eta Gorbeiako Inguruetakoak dira, Bizkaian eta Araban, hurrenez hurren.

Dokumentuan honako atal hauek sartu behar dira, gutxienez:

* Helburu zehatz eta neurgarriak.
* Jarduera plana.
* Finantza programa.
* Betetzeko kronograma.
* Jarraipenerako tresnak.
* Zerikusia duten erakundeen inbertsio konpromisoak.

**4.2.4. Natura Eremu Babestuko Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoa**

NEB osorako Ehiza Antolatzeko Plan Teknikorik egon arte, jarduera hau natura eremu babestuan dauden esparru bakoitzeko Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoek arautuko dute. Plan horiek Parke Naturaleko Kudeaketa Organoaren aldeko txostena izan beharko dute, AFAko Nekazaritza Saileko Ehitza eta Arrantza Zerbitzuak onartu aurretik. Bizkaiko Lurralde Historikoko ehiza lurretan, Debekualdien Foru Aginduetan edo gaur egun BFAk onartutako araudi berezian ezarritakoa bete beharko da.

**4.2.5. Baso Kudeaketako Plan Integrala**

“Mendiak antolatzeko proiektuak. Eremu babestuetan kontserbatzeko tresnak” (Europarc, 2013) eskuliburuan ezarritako irizpideei eta 3.1 kapituluko baso naturalen eta erdinaturalen kontserbazio elementuan emandako gidalerroei jarraikiz.

**4.2.6. Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Plana.**

Plan honek, gutxienez, 3.1. kapituluko Sastraken eta Larreen Funtsezko Elementuaren 2.M.1. neurrian emandako atalak eta dokumentu honetan ezarritako beste zehaztapen batzuk aurreikusi beharko ditu.

**4.2.7. Ondare Espeleologikoaren Kudeaketa Plana.**

Plan honek, gutxienez, dokumentu honetan zehaztutako adierazleak aurreikusiko ditu.

**4.2.8. Erlezaintza dinamizatzeko eta suspertzeko Egitura Plana.**

Plan honek, gutxienez, 3.1 kapituluko Sastraken eta Larreen Funtsezko Elementuaren 2.M.6 neurrian emandako atalak eta dokumentu honetan ezarritako beste zehaztapen batzuk aurreikusi beharko ditu.

# 2. ZATIA. KARTOGRAFIA ETA GEHIGARRIAK

## KARTOGRAFIA

Gorbeiako Natura Eremu Babestuari dagokion kartografia Eusko Jaularitzaren webgunean dago eskuragarri: www.euskadi.eus/natura.

# 1. ERANSKINA

# ERABILERAK MUGATZEAGATIKO KONPENTSAZIO-SISTEMA ETA BASO-ERABILERARAKO LAGUNTZA-SISTEMA

## 1. AURREKARIAK

Gorbeia NEBen araudia aplikatzeak hainbat murrizketa dakartza babestutako espazioaren barruko lurretako erabilera eta aprobetxamenduetan. Horregatik, basoetako jabe eta onuradunei sor dakizkiekeen kalte ekonomikoak saihesteko eta, bidenabar, horiek Natura Eremu Babestuaren funtzionamenduan txertatzeko, diru-konpentsazioak bideratzeko jardunbideak ezartzen dira.

Parke Naturalaren egungo azalera (20.226,40 ha) kontuan hartuta eta jabetza eta aprobetxamendu mota ezberdinak daudenez gero, gero aipatuko diren zenbait konpentsazio eta laguntza, soil-soilik toki zehatz batzuetako basogintzari egokituko zaizkio; hain zuzen murrizketen pean dauden kudeaketa pribatuko lursailetan egiten denari. NEBen EKAPek eta haren Araudiak murrizketa handiagoak aplikatzen badituzte ere zenbait zonatan, aurreikusi egin da laguntza ekonomiko hauek eremu babestu osoan aplikatu ahal izatea

Jarraian adieraziko dira aintzat hartutako baso proiektu ezberdinetan kalkulatu diren errentagarritasun balioak. Horietan sartu da jada basoko lanek NEBeko finka batean sartuta egoteagatik eskuratzen duten dirulaguntza osagarriaren % 10.

I. taula. Errentagarritasun pribatua (% 10eko dirulaguntza osagarriarekin)

| ESPEZIEA | EBT (%) | BEG % 3 (euroak) | BEG % 6 (euroak) |
|---|---|---|---|
| *Pinus radiata* (1 kalitatea) | 6,58 | 7.007 | 671 |
| *Pinus radiata* (2 kalitatea) | 4,87 | 2.626 | -973 |
| *Pinus radiata* (2-3 kalitatea) | 4,00 | 1.192 | -1.478 |
| *Pinus radiata* (3 kalitatea) | 3,50 | 537 | -1.662 |
| *Pseudotsuga menziesii* | 3,54 | 1.066 | -2.123 |
| *Pinus nigra, larizio esp* | 3,27 | 497 | -2.235 |
| *Quercus rubra* | 3,15 | 288 | -1.214 |
| *Fagus sylvatica* | 2,30 | -1.002 | -1.980 |
| *Quercus robur* | 1,84 | -1.946 | -2.285 |

## 2. ERRENTA-GALERAK KONPENTSATZEKO BIDEAK

Esan beharra dago bakarrik lur partikularren kasuan aztertu eta kalkulatuko dela konpentsazioa; izan ere, onura publikoko mendietan beste funtzionamendu bat dago indarrean, eta, beraz, konpentsazioak bideratzeko jardunbide berariazkoak daude. funtsean, Mendi Zerbitzuaren aurrekontuen pentzutan egiten diren landaketak edo bestelako lanak.

Basogintzako proiektuak aldatu eta berriak ezartzean errentagarritasun finantzarioan kalterik ez sortzeko, alegia, EBT (Errentagarritasunaren Barne Tasa) ez gutxitzeko, -esate baterako, hazkunde azkarreko edo ertaineko baso landaketen ordez hazkunde moteleko espezieen baso landaketak egiten badira- diru konpentsazioak bideratzeko sistema osagarri bat bilatu behar da. Sistemaren bitartez proiektuen arteko oreka lortu nahi da, hau da: finantza aldetik "interes txikiagoa" duten proiektuetan hasierako diru kopuru bat emanez gero, beste proiektuekiko parekotasuna iritsi. Zenbakitan, proiektuei emango

zaien hasierako konpentsazioaren zenbatekoa eta proiektu errentagarrienaren EBTaren arabera kalkulatu den EBGaren balio absolutua berdinak izango dira.

NEBeko Kudeaketa Organoak banan-banan aztertuko du erabileran murrizketak dituen lurzati bakoitzaren egoera; horren ostean, jabearekin bat etorrita, basotzerako zein espezie erabiliko duten erabakiko dute.

Ondoko taulan agertzen dira hainbat espezieri legozkiekeen konpentsazioak, hektarea bateko landaketaren kasuan. Erreferentzia moduan *Pinus radiata* (hainbat kalitatetakoa) erabili da; eta, planteamendua argitze aldera, mozketa-txanda bakarra suposatu da espezie bakoitzeko, nahiz eta horren iraupena ez den bera. Era berean. dirulaguntza berdinak jasotzen jarraituko dela ere jakintzat ematen da. Espezie ordezkagarrienak-edo aukeratu dira, alegia: hazkunde moteleko bi, baina mozketa txanda ezberdina dutenak (pagoa eta haritz kanduduna); eta hazkunde ertaineko hiru -bi konifero eta hostozabal bat- (larizio pinua, Douglas izeia eta haritz amerikarra). Espezie hauek konpentsagarritzat jo beharko lirateke bakar-bakarrik haien errentagarritasuna (EBT) erreferentziako espeziearena baino txikiagoa denean (hainbat motatako radiata pinua).

II. taula. *Pinus radiata*ren (2. kalitatea) proiektuaren errentagarritasunarekiko aldea konpentsatzeko diru kopurua

| Espeziea | EBT (%) | Konpentsazioa (euro/ha) |
|---|---|---|
| *Pinus radiata* (2 kalitatea) | 4,87 | - |
| *Pseudotsuga menziesii* | 3,54 | 1.519 |
| *Pinus nigra, larizio esp* | 3,27 | 1.722 |
| *Quercus rubra* | 3,15 | 1.953 |
| *Fagus sylvatica* | 2,30 | 1.879 |
| *Quercus robur* | 1,84 | 2.323 |

III. taula. *Pinus radiata*ren (erdi mailako kalitatea (2-3) proiektuaren errentagarritasunarekiko aldea konpentsatzeko diru kopurua

| Espeziea | EBT (%) | Konpentsazioa (euro/ha) |
|---|---|---|
| *Pinus radiata* (2-3 kalitatea) | 4,00 | - |
| *Pseudotsuga menziesii* | 3,54 | 664 |
| *Pinus nigra, larizio esp* | 3,27 | 991 |
| *Quercus rubra* | 3,15 | 1.214 |
| *Fagus sylvatica* | 2,30 | 1.652 |
| *Quercus robur* | 1,84 | 2.280 |

IIIV. taula. *Pinus radiata*ren (3. kalitatea) proiektuaren errentagarritasunarekiko aldea konpentsatzeko diru kopurua

| Espeziea | EBT (%) | Konpentsazioa (euro/ha) |
|---|---|---|
| *Pinus radiata* (3 kalitatea) | 3,50 | - |
| *Pinus nigra, larizio esp* | 3,27 | 358 |
| *Quercus rubra* | 3,15 | 575 |
| *Fagus sylvatica* | 2,30 | 1.403 |
| *Quercus robur* | 1,84 | 2.177 |

Komenigarria da diru kopuru horiek denak batera ez ematea, proiektuaren hasierako "n" urteetan zehar baizik; horrekin bermatu nahi dira: sail landatuaren biziraupena eta lan osagarriak (jabearen zainketa ardura, eta aurreikusitako garbiketa eta basozaintza lanak).

Konpentsazioa osotara "n" urte kopuru batean zehar banatzeko, halako urterako balioa (zero urteko euro konstantetan) adierazpen matematiko honek ematen du.

q = C . d. (1 + d)n / ((1 + d)n - 1)

non "C" diru konpentsazioa baita, guztira, "d" hautatutako deskontu mota eta "n" kontuan hartu den urte kopurua. Banaketa honetan, deskontu mota hautatzea da giltzarria, errentak eguneratzeko kalkulu guztietan bezala.

Gomendagarria izango litzateke 5 eta 10 urte arteko "n" urte kopurua edukitzea, helburuak hobeto bete ahal izateko. 5 urteko epe hori izateak alde on hau du: psikologikoki jabeak irudipena izango du epe laburrago batean urteko diru kopuru handiagoak jasotzen dituela. Epea 10 urtekoa bada, berriz, horrek alde izango du sail landatua aurrera ateratzeko lanak luzaroago mantenduko direla.

Jabeen eta NEBeko Kudeaketa Organoaren arteko balizko akordioak iritsi arte, badirudi egokiena izango litzatekeela 10 urteko epea hostozabalen sail landatuetan (zainketa lana luzaroago behar dute) ezartzea, eta 5 urteko epea koniferoenetan.

Adibide gisa, ondoko taulan agertzen da nola banatuko litzatekeen diru kopurua bi epe horietan (2 eta 4 urte), deskontu motatzat ohizkoa (% 3) hartuz gero.

V. taula. Kopuruen banaketa aldien arabera

| Konpentsazioa guztira (euro/ha) | Urteko konpentsazioa % 3an | |
|---|---|---|
| | 2 urtean zehar | 4 urtean zehar |
| 500 | 261,31 | 134,51 |
| 1.000 | 522,61 | 269,03 |
| 1.500 | 783,92 | 403,54 |
| 2.000 | 1.045,22 | 538,05 |
| 2.500 | 1.306,53 | 672,57 |
| 3.000 | 1.567,83 | 807,08 |
| 500 | 261,31 | 134,51 |

NEBeko Kudeaketa Organoaren artean eta baso jabeen artean akordioak lortutakoan, horren agiria egitea gomendatzen da. Agiri horrek bermatuko luke bi aldeek beren konpromisoak bete behar dituztela, eta tresna baliagarria izango litzateke beste alor batzuetan (Mendiaren Kudeaketarako Plana, geroko dirulaguntzak jasotzeko erraztasun gehiago, etab.). Halaber, agiriko klausuletan argiro azalduko litzateke zein diren bi aldeen betebeharrak: batetik, jabearen erantzukizuna basoaren mantentze lanetan; eta bestetik, NEBeko Kudeaketa Organoaren erantzukizuna diru kopuruak emateko edota, legez kanpoko gorabeherarik egonez gero, diru kopuruak itzularazteko.

Guztiarekin ere, jabeen eta Kudeaketa Organoaren arteko akordio honek ez du zertan murriztu Bizkaiko edo Arabako Lurralde Historikoetan aurrikusitako gainerako dirulaguntzak; izan ere, laguntza horiek, jadanik, basogintzako proiektuen errentagarritasun-kalkuluetan sartuta baitaude. Laguntzak, diru kopurutan, nabarmen aldatzen badira, berrikusi egin beharko lirateke kalte-ordainak, hemen azaldutako metodoaren arabera.

## 3. BESTELAKO KONPENTSAZIOAK

Espezieak aldatzeak eragiten dituen konpentsazioez gainera (hauek daramate diru kopuru gehiena), badira beste arrazoi batzuk basogintzako errentaren galera dakartenak. Beraz, galera horiei aurre egitea komeni da.

Dokumentu honetan eta NBAPn jasotako Araudia berrikustean ikusten da zenbait artikulu aplikatzeak errenta galera ekar dezakeela zenbait jaberentzat. Arau horietako batzuk zenbait foru dekretu eta arauren kopia hitzez-hitzekoak edo haien moldaketak besterik ez dira, eta horregatik, ez dira diruz laguntzeko modukoak. Aldiz, NEBeko beste arau gutxi batzuen aplikazioak hainbat dirulaguntza ematea eragin beharko luke, zeren eta diskriminazioa sortuko bailitzateke, osterantzean NEB barruko jabeari araudi murrizgarriagoa, kanpokoarekiko, ezartzen zaiolako: gainera, laguntza horiek lagunduko lukete jabeak NEBen kudeaketa lanean txertatzen.

## 3.1. Inpaktu txikiko teknikak erabiltzea

EKAP-k gomendatzen du baso ustiapen osoan ingurumenaren gainean eragin txikia duten teknikak erabiltzea; gauza bera gertatuko da mozketa hondakinen suntsiketa mekanikorako baliatzen diren makinei dagokienez. Horretarako, zera ezartzen da: NEBeko Kudeaketaren Arduradun den Organoak mugak jarri ahalko dizkie aplikatu beharreko mozketa eta erauzketa metodoei eta garaiari.

Parkeko Araudiak, oro har, lurzoruen kontserbatzeari ematen dion garrantzia gogoan hartuta, badirudi basogintzako lanek irizpide horri men egin beharko lioketela, eta lurzoruen babesa bermatu beharko litzatekeela. Araudiak espreski aipatzen ditu % 50tik gorako malda duten mendi-hegalak: eta bertako lurzoruari kalte egin diezaioketen lan guztiak -ez bakarrik basozaintzakoak- zorrotz debekatzen ditu.

Lurzoruan galerak edo kalteak sor ditzaketen basogintzako lan aipagarrienak jarduera hauekin lotutakoak dira: masa berriak instalatzea, baso bideak egitea eta basoko gaiak ateratzea.

Basogintza laguntzei buruzko foru dekretuek baso landaketa lanetan makineria erabiltzeko modua zein baso bideak egiteko era arautzen dituzte. Dirulaguntzak jasotzeko, araudi horiek bete behar dira. Gorbeia NEBeko araudiak, funtsean, araudi orokor horri jarraitzen dio, eta, horregatik, ezin da pentsatu haren aplikazioak jabeei errenta galerak ekarriko dizkienik; aitzitik, lan horiek egiteko moduan legezko murriztapenak ezarriko ditu soilik.

### 3.1.1. Zura ateratzeko, kablea erabiltzea

Basogintzako ustiapenak ingurune fisikoan sortu ohi dituen eragin nabarmenenak produktuen erauzketa moduarekin lotuta egoten dira. mozketa, zura herrestan eraman eta kargatu. Lurzorua eta oihanpeko landaredia babesteko beharrezkoa da, malda handia dagoen lekuetan, baso traktoreetako kablearen bidez zura herrestan ateratzeko 'ohiko' metodoaren ordez, inpaktu txikiagoko beste metodo bat erabiltzea. Baso biderik ez duten leku aldapatsuetan (% 50etik gorako malda duten mazelak) zura aire bidezko kableekin ateratzeko orain arte izandako esperientzian oinarrituta, gomendagarria da horrelako tresneriaz hornituta dauden enpresei esleitzea aprobetxamendua. Hala eta guztiz ere, aire bidezko kablearen metodoa garestiagoa denez, konpentsazioa eman beharko litzaioke jabeari eta horrek dirutan sortarazten dion galera ordaindu.

### 3.1.2. Basoko lanak egitea eskuzko metodoen bitartez

Basogintzako produktuen erauzketaz gain, badira basoan egin beharreko beste lan batzuk, ingurunean eragin txikia sortzen dutenak. Bistan denez, lan hauetan makineria autopropultsatua erabiltzen badu, jabeak denbora eta dirua aurreztuko du. Kasu batzuetan, ordea, (toki aldapatsuak, lurzoru hauskorrak, baso bide egokirik ez) kalteak sor ditzake lurzoruan, bideetan edota ekosistemetan.

Halaber, uste da eskuzko tekniken bitartez basoko lanak egiteak lagundu egiten duela jabeek beren lursailetan egoten eta haiek zaintzen, elkarrekiko lankidetza garatzen eta NEBen funtzionamenduan haiek sartzen.

Horregatik guztiagatik, komenigarria litzateke eskuzko metodoen bitartez basoko lanak egitera zuzendutako pizgarri ekonomiko ezberdinak sortzea eta baita horrek makineria autopropultsatua erabili ordez ekarriko dituen kostu aldeak konpentsatzea ere. Pizgarri hauek hartu ahalko dituzten basoko lanak ugariak dira: landaketa baino lehen garbiketa lanak egitea eta mozketa hondakinak bildu, pilatu eta erretzea.

## 3.2. Errentak aurreratzea

Gorbeiako Parke Naturalarena bezalako kasuetan, hain zuzen ere basoko lursail jakin batzuetan espezie edo mozketa txanden aldaketa egitera joko den horietan, jabea kalteturik suerta daiteke, eta ez bakarrik zuzeneko errenta galtzeagatik (jada kalkulatuta), baizik eta, baita ere, errenta horiek eskuratzeko epeak luzatu egingo zaizkiolako. Denboran luzatze horrek arazoak ekar ditzake, izan ere, inbertitutako kapitala ibilge geratzea eta etorkizunerako ziurtasun falta handiagoak edukitzea ekar dezake (izurri edo sute arriskuak).

Horrek guztiak jabe ezberdinak eraman ditu errentak eskuratzeko epea luzatzeagatiko konpentsazioa eskatzera, beren baso landaketetan hazkunde mantsoak garatzen diren kasuan. Helburua jabeei etorkizunerako aurreikusitako diru sarreren zati bat aurreratzea litzateke, horiek egur aprobetxamenduetatik eratorritakoak badira. Trukean, etorkizuneko aprobetxamendu horietan partaidetza emango litzateke. Mekanismo hori martxan jarri dute jada Gaztela eta Leonen adibidez, lursail partikularretan kokatzen diren makaldien kasuan. Administrazioak kopuru ezberdinak aurreratzen ditu txanda hasieran eta, trukean, amaierako aprobetxamendurako (12 edo 15 urtera egindakoa) espero diren errenten zati batekin geratzen da, betiere, amaierako balio horren % 50 gainditu gabe. Aitzitik, Gorbeian sistema hori aplikatzeak hainbat zailtasun ditu.

Analisi finantzariorako beharrezkoa da deskontu tasa nahiko egonkorra hautatzea, egungo kopuruak (0 urtekoak) eta etorkizuneko aurreikuspenak alderatzea posible izan dadin. Alderatzeko epea oso luzea denean (hazkunde mantsoko espezieen kasuan txandak 100 urteak gainditu ohi ditu), deskontu tasak oso modu erabakigarrian jarduten du etorkizuneko kopuruen eguneratzean. Horrela, etorkizunean espero dena gorabehera diru sarrera altuak egin daitezke (pago eta haritzen amaierako mozketen kasuan) eta, aldiz, kopuru horiek murriztu egiten dira 0 urtean eguneratuz gero.

Deskontu tasaren eta denbora epe luzeen arteko bateratze horrek zaildu egiten du errentak aurreratzeko mekanismo bat martxan jartzeko aukera hazkunde mantsoko landaketen kasuan. Izan ere, txandaren hasieran kopuru ez oso handi baten truke, jabeak etorkizunerako aurreikusitako diru sarreren zati adierazgarri bat lagako luke. Hori dela eta, etorkizuneko aprobetxamenduak NEBeko Administrazioaren eta proposatutako mekanismoa onartu nahi duten jabeen artean % 50ean banatzetik etorritako kopuruak kalkulatu dira bakar-bakarrik.

Ondorioz, Baso Partzuergoen antzeko mekanismo bat aurreikusi da, jabeak lursailen gaineko eskumena mantenduz eta zuhaitzen txandan zehar aurreikusitako lanak egitearen ardura hartuz. Administrazioa (NEBeko Kudeaketa Organoa) aurreikusitako egur mozketen diru sarreren % 50aren onuradun izan liteke, 0 urtean jabeari C kopurua ematearen truke. Horretarako, kasu ezberdinak aintzat hartzen dira:

- Etorkizuneko diru sarrerak eta erabilitako EBTak kalkulatzerakoan, kasuan kasuko memoriari erantsitako taulak erabili dira, hain zuzen ere basoko espezie ezberdinei buruzkoak.
- Lursail bakoitzeko erreferentzia proiektuak (2, 2-3 edo 3 mailako radiata pinua) ez du eraginik kopuruak zehazterakoan, eta baso espezie bakoitzeko EBT erabiliko da deskontu tasa gisa etorkizuneko diru sarrerak eguneratzerakoan.

- Taulan adierazitako kopuruek ez dute loturarik baso jabeari beste espezie batzuk erabiltzean errenta galtzeagatik edo dirulaguntza gisa eman dakizkiokeen kopuruekin.

Jarraian datorren taulan zera adieraziko da: NEBeko Kudeaketa Organoak jabeari 0 urtean emandako kopuruek landaketatik etorkizunean eskuratzen diren aprobetxamenduen balioaren % 50 lagatzea ekarriko lioke jabeari.

VI. taula. Errentak aurreratzea.
0 urtean eman beharreko kopurua, menditik etorritako diru sarreren % 50eko balioa eguneratzetik etorrita.

| ESPEZIEA | EBT (%) | KOPURUA (euro/ha) |
|---|---|---|
| *Pseudotsuga menziesii* | 3,54 | 1.598 |
| *Pinus nigra, larizio esp* | 3,27 | 1.645 |
| *Quercus rubra* | 3,15 | 1.720 |
| *Fagus sylvatica* | 2,30 | 1.168 |
| *Quercus robur* | 1,84 | 1.397 |

Proposatutako mekanismoak, noski, jabearen eta NEBeko Kudeaketa Organoaren arteko akordio batetik abiatu behar dira, eta landaketaren urtean bertan sinatu beharreko kontratu dokumentu batean islatuta geratu.

| | |
|---|---|
| Espeziea: | *Pinus radiata.* I kalitatea |
| Txanda (urteak): | 32 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 1.500 | | 1.500 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.285 | 45 | 1.257 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 124 | 45 | 68 |
| 1 | Tratamendu fitosanitarioa | 100 | 50 | 50 |
| 1 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 2 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 3 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 8 | Inausketa baxua eta sastrakak garbitzea | 773 | 50 | 387 |
| 12 | Inausketa altua eta sastrakak garbitzea | 628 | 50 | 314 |
| 11 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 3 | | 3 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 5 | | 5 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | Balioa/m³ | Diru sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 12 | Lehen bakanketa | 42 | 3 | 126 |
| 16 | Bigarren bakanketa | 120 | 3 | 360 |
| 21 | Hirugarren bakanketa | 60 | 20 | 1.200 |
| 32 | Baso soilketa | 500 | 50 | 25.000 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 1.500 |

| **BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%)** | | **EBT** |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 6,58** |
| **7.007** | **671** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | *Pinus radiata.* Tarteko kalitatea, I-II |
| Txanda (urteak): | 32 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 1.350 | | 1.350 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.285 | 45 | 1.257 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 124 | 45 | 68 |
| 1 | Tratamendu fitosanitarioa | 100 | 50 | 50 |
| 1 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 2 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 3 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 8 | Inausketa baxua eta sastrakak garbitzea | 773 | 50 | 387 |
| 12 | Inausketa altua eta sastrakak garbitzea | 628 | 50 | 314 |
| 11 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 3 | | 3 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 5 | | 5 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | BALIOA/M3 | Diru sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 12 | Lehen bakanketa | 39 | 3 | 117 |
| 16 | Bigarren bakanketa | 110 | 3 | 330 |
| 21 | Hirugarren bakanketa | 50 | 15 | 750 |
| 32 | Baso soilketa | 435 | 45 | 19.575 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 1.350 |

| **BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%)** | | **EBT** |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 5,80** |
| **4.716** | **-200** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | *Pinus radiata.* II kalitatea |
| Txanda (urteak): | 32 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 1.200 | | 1.200 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.285 | 45 | 1.257 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 124 | 45 | 68 |
| 1 | Tratamendu fitosanitarioa | 100 | 50 | 50 |
| 1 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 2 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 3 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 8 | Inausketa baxua eta sastrakak garbitzea | 773 | 50 | 387 |
| 12 | Inausketa altua eta sastrakak garbitzea | 628 | 50 | 314 |
| 11 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 3 | | 3 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 5 | | 5 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | BALIOA/M3 | Diru sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 12 | Lehen bakanketa | 36 | 3 | 108 |
| 16 | Bigarren bakanketa | 100 | 3 | 300 |
| 21 | Hirugarren bakanketa | 40 | 12 | 480 |
| 32 | Baso soilketa | 360 | 40 | 14.400 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 1.200 |

| BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%) | | EBT |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 4,87** |
| **2.626** | **-973** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | *Pinus radiata.* Tarteko kalitatea, II-III |
| Txanda (urteak): | 32 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 1.050 | | 1.050 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.285 | 45 | 1.257 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 124 | 45 | 68 |
| 1 | Tratamendu fitosanitarioa | 100 | 50 | 50 |
| 1 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 2 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 3 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 8 | Inausketa baxua eta sastrakak garbitzea | 773 | 50 | 387 |
| 12 | Inausketa altua eta sastrakak garbitzea | 628 | 50 | 314 |
| 11 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 3 | | 3 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 5 | | 5 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | BALIOA/M3 | Diru-sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 12 | Lehen bakanketa | 31 | 3 | 93 |
| 16 | Bigarren bakanketa | 75 | 3 | 225 |
| 21 | Hirugarren bakanketa | 30 | 10 | 300 |
| 32 | Baso soilketa | 310 | 35 | 10.850 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 1.050 |

| BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%) | | EBT |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 4,00** |
| **1.192** | **-1.478** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | *Pinus radiata.* III kalitatea |
| Txanda (urteak): | 32 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 900 | | 900 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.285 | 45 | 1.257 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 124 | 45 | 68 |
| 1 | Tratamendu fitosanitarioa | 100 | 50 | 50 |
| 1 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 2 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 3 | Garbiketa | 371 | 50 | 186 |
| 8 | Inausketa baxua eta sastrakak garbitzea | 773 | 50 | 387 |
| 12 | Inausketa altua eta sastrakak garbitzea | 628 | 50 | 314 |
| 11 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 3 | | 3 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 5 | | 5 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | BALIOA/M3 | Diru sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 12 | Lehen bakanketa | 26 | 3 | 78 |
| 16 | Bigarren bakanketa | 60 | 3 | 180 |
| 21 | Hirugarren bakanketa | 25 | 10 | 250 |
| 32 | Baso soilketa | 260 | 35 | 9.100 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 900 |

| **BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%)** | | **EBT** |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 3,50** |
| **537** | **-1.662** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | Douglas izeia |
| Txanda (urteak): | 60 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 1.000 | | 1.000 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.080 | 70 | 624 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 96 | 70 | 29 |
| 1 | Tratamendu fitosanitarioa | 100 | 50 | 50 |
| 1 | Garbiketa | 300 | 50 | 150 |
| 2 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 3 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 4 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 12 | Inausketa baxua eta sastrakak garbitzea | 1.172 | 50 | 586 |
| 15 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |
| 16 | Inausketa altua eta sastrakak garbitzea | 601 | 50 | 301 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 3 | | 3 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 4 | | 4 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | BALIOA/M3 | Diru sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 16 | Lehen bakanketa | 6 | 2 | 12 |
| 22 | Bigarren bakanketa | 20 | 3 | 60 |
| 31 | Hirugarren bakanketa | 44 | 6 | 264 |
| 41 | Laugarren bakanketa | 100 | 10 | 1.000 |
| 50 | Bosgarren bakanketa | 100 | 20 | 2.000 |
| 32 | Baso soilketa | 500 | 40 | 20.000 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 1.000 |

| **BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%)** | | **EBT** |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 3,54** |
| **1.066** | **-2.123** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | Korsikako larizio pinua |
| Txanda (urteak): | 60 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 900 | | 900 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.080 | 70 | 624 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 96 | 70 | 29 |
| 1 | Tratamendu fitosanitarioa | 100 | 50 | 50 |
| 1 | Garbiketa | 300 | 50 | 150 |
| 2 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 3 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 4 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 5 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 10 | Sastrakak kentzea eta bakantzea | 450 | 50 | 225 |
| 14 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |
| 15 | Inausketa baxua eta sastrakak garbitzea | 722 | 50 | 361 |
| 20 | Inausketa altua eta sastrakak garbitzea | 601 | 50 | 301 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 3 | | 3 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 4 | | 4 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | BALIOA/M3 | Diru sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 16 | Lehen bakanketa | 6 | 2 | 12 |
| 22 | Bigarren bakanketa | 17 | 3 | 51 |
| 31 | Hirugarren bakanketa | 44 | 5 | 220 |
| 41 | Laugarren bakanketa | 100 | 9 | 900 |
| 50 | Bosgarren bakanketa | 100 | 17 | 1.700 |
| 32 | Baso soilketa | 500 | 35 | 17.500 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 900 |

| BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%) | | EBT |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 3,27** |
| **497** | **-2.235** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | Haritz amerikarra |
| Txanda (urteak): | 60 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 1.200 | | 1.200 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.220 | 70 | 666 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 96 | 70 | 29 |
| 1 | Garbiketa | 300 | 50 | 150 |
| 2 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 3 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 4 | Garbiketa | 450 | 50 | 225 |
| 9 | Sastrakak kentzea | 450 | 50 | 225 |
| 9 | Eraketa mozketak eta inausketa baxua | 722 | 50 | 361 |
| 16 | Inausketa altua | 601 | 50 | 301 |
| 20 | Bakanketa | 450 | 50 | 225 |
| 29 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 1 | | 1 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 4 | | 4 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | Balioa/m³ | Diru sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 16 | Lehen bakanketa | 20 | 10 | 200 |
| 22 | Bigarren bakanketa | 40 | 15 | 600 |
| 31 | Hirugarren bakanketa | 90 | 35 | 3.150 |
| 32 | Baso soilketa | 270 | 60 | 16.200 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 1.200 |

| BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%) | | EBT |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 3,15** |
| **288** | **-2.470** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | Pagoa |
| Txanda (urteak): | 100 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 900 | | 900 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.275 | 95 | 114 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 96 | 95 | 5 |
| 1 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 2 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 3 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 4 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 5 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 9 | Sastrakak kentzea | 450 | 60 | 180 |
| 9 | Formazio mozketak | 722 | 60 | 289 |
| 44 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 1 | | 1 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 2 | | 2 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | BALIOA/M3 | Diru-sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 16 | Lehen bakanketa | 40 | 10 | 400 |
| 22 | Bigarren bakanketa | 80 | 20 | 1.600 |
| 31 | Hirugarren bakanketa | 90 | 27 | 2.430 |
| 32 | Oin helduen mozketa | 250 | 54 | 13.500 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 900 |

| BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%) | | EBT |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 2,30** |
| **-1.002** | **-1.980** | |

| | |
|---|---|
| Espeziea: | Haritz kanduduna edo herrialdekoa |
| Txanda (urteak): | 150 |
| Oharrak: | NEB (+% 10 dirulaguntza). |

KOSTU ZEHATZEN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| 0 | Lursaila eskuratzea | 1.000 | | 1.000 |
| 0 | Birpopulatzea | 2.220 | 95 | 111 |
| 1 | Hutsarteak betetzea | 96 | 95 | 5 |
| 1 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 2 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 3 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 4 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 5 | Garbiketa | 450 | 60 | 180 |
| 9 | Sastrakak kentzea | 450 | 60 | 180 |
| 12 | Sastrakak kentzea | 450 | 60 | 180 |
| 12 | Eraketa mozketak eta inausketa baxua | 722 | 60 | 289 |
| 28 | Inausketa altua | 601 | 60 | 240 |
| 44 | Zura ateratzeko bideak | 300 | 30 | 210 |

ALDIZKAKO KOSTUEN ZERRENDA

| Mota | Kontzeptua | Zenbatekoa | Dirulaguntzaren % | Kostuak |
|---|---|---|---|---|
| Urtekoa | Zergak | 1 | | 1 |
| Urtekoa | Kudeaketa eta zaintza | 2 | | 2 |

DIRU-SARREREN ZERRENDA

| Urtea | Kontzeptua | Bolumena | BALIOA/M3 | Diru sarrerak |
|---|---|---|---|---|
| 16 | Lehen bakanketa | 25 | 12 | 300 |
| 22 | Bigarren bakanketa | 75 | 25 | 1.875 |
| 31 | Hirugarren bakanketa | 100 | 50 | 5.000 |
| 32 | Oin helduen mozketa | 250 | 100 | 25.000 |
| 32 | Lursailaren salmenta | | | 1.000 |

| BEG balioa, tasa ezberdinekin kalkulatuta (%) | | EBT |
|---|---|---|
| **% 3** | **% 6** | **% 1,84** |
| **-1.946** | **-2.285** | |

## 2. ERANSKINA
## FUNTSEZKO ELEMENTUEI LOTUTAKO NEURRIEN BALORAZIOA

Hona hemen Gorbeia KBEn identifikatutako funtsezko elementuetarako ezarritako kontserbazio helburu nagusiak lortzeko proposatu diren jarduketen laburpena. Orientatzeko asmoz, jarduketon kostuaren zenbatespen ekonomikoa jaso da, bai eta jarduketen lehenespena ere, honela: Ezinbestekoa (E), Beharrezkoa (B) eta Komenigarria (K).

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| 1. Baso naturalak eta erdinaturalak | **1.M.1.** | Dauden mendi publikoen Baso Antolaketarako Planak berriskutea eta NEBerako Baso Kudeaketako Plan Integrala idaztea. Plan horrek aurretik aipatutako gidalerroak jaso beharko ditu. | B | 60.000 |
| | **1.M.2.** | Lurzatietako lursaila, titulartasun publikokoa zein pribatukoa, zaintzeko kontratuak sinatzea, baso landaketen ordez baso naturalak izateko, pixkanaka, interes ekologiko bereziko arloetan, besteak beste, hezeguneen inguruneak, area kritikoak edo mehatxupean dauden flora eta fauna berreskuratzeko areak, etab. | K | 120.000 |
| | **1.M.3.** | Komunikazio plana prestatzea, tokiko populazioaren eta baso jarduketak egiteko ardura duten pertsonen artean EKAPen ondoriozko baso kudeaketako helburuak eta gidalerroak zabaltzeko. Halaber, pertsona horiei informazioa emango zaie jardun zona bakoitzean dauden intereseko elementuen gainean: fauna mehatxatuko populazioak, balio bereziko zuhaitzak, hezeguneak edo beste habitat ahul batzuk, ondare arkeologikoa, etab. | K | 18.000 |
| | **1.M.4.** | NEBeko bertoko baso orban nagusien ezaugarriak jasotzea, kontserbazio egoera ebaluatzeko (egitura aniztasuna, tamaina handiko zuhaitzen presentzia, zutik edo lurrean dagoen egur hila, tamaina txikiko edo ertaineko barrunbeak, aniztasun berezia, etab.) eta horien arteko konektibitateari bide ematea. | E | 36.000 |
| | **1.M.5.** | Baso habitaten erreserba zonen sare bat mugatzea (baso helduak), hobeto kontserbatzen diren enklabeen eta honako habitat mota hauei lotutako faunarako eta florarako balio handienekoen identifikazioa oinarri hartuta: KOD. UE- 9120, 9160, 9180*, 9230, 9260 y COD EUNIS- G1.64, G1.82, G1.86, G1.86(X). | B | 20.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **1.M.6.** | Jarduketa arloak zehaztea, 1.M.4 neurriaren emaitzak oinarri hartuta, eta saiakera esperimentalak egitea, zutikako zuhaitz hilak (*snag*) eskuratzeko, zenbait teknikaren bidez: zuhaitzaren oina eraztunez lotzea edo zuritzea, zuhaitzaren goiko herena kentzea. Metodo horien bidez eskuratuko den amaierako dentsitatea, gutxienez, 15-20 hesola/ha-koa izango da , 30 cm baino gehiagoko DBH diametrodun zuhaitzetatik abiatuta. | B | 18.000 |
| | **1.M.7.** | Azterlanak egitea haritzei eta NEBen bertakoak diren beste espezie batzuei eragiten dieten gaixotasunei, izurriteei edo bestelako heriotza arrazoiei buruz. | K | 18.000 |
| | **1.M.8.** | Kudeaketa jarraibideen saiakerak egitea, zuhaitz motzen egungo unadak mantentzeko. | K | 20.000 |
| | **1.M.9.** | Natura masetan leheneratzeko egungo zonak berrikustea, eta egokitzat jotzen direnak mantentzea, egungo Baso Antolamendurako Planetan eta horien berrikuspenean eta NEBeko Baso Kudeaketako Plan Integralean ezarritakoa oinarri hartuta. Zona horietan, laguntzako jarduketak edo landaketak egingo dira, natura leheneratzea desegokia bada. | B | 60.000 |
| | **1.M.10.** | Basoko habitaten arabera basoko biodibertsitatea mantentzeko eta berezko birsortzeari ez eragiteko onar daitekeen abereen eta basa ungulatuen karga kalkulatzea. | B | 30.000 |
| | **1.M.11.** | *Myotis myotis, Myotis mistacinus, Myotis bechsteinii, Barbastella barbastellus* eta *Myotis emarginatus*-en populazioen aldizkako jarraipena egingo da. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Besteak beste, NEBen dauden kiroptero espezierik garrantzitsuenak nahiz sasoi horretan NEBera erakartzen diren aleak biltzeko tokiarena egiten duten guneak identifikatuko dira. | E | 18.000 |
| | **1.M.12.** | Gorbeiako NEBen kiropteroak kontserbatzeak duen garrantziaren inguruko zabalkunde eta sentsibilizazio kanpaina diseinatzea eta gauzatzea. | K | 6.000 |
| | **1.M.13.** | Gorbeiako faunako Espezie Mehatxatuen eta horien estatusaren katalogoa eguneratzea. | K | 25.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **1.M.14.** | Haien populazioen aldizkako erroldak egin eta inbentarioan jasoko dira, arreta berezia jarriz Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezie mehatxatuenei. Batez ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola banaketa, haien populazioen kontserbazio egoera, presioak eta mehatxuak. | E | 20.000 |
| | **1.M.15.** | Ale hilak edo zaurituak jaso eta leheneratzeko eta mehatxu eragileak aztertzeko zentroetara eramateko protokoloa ezartzea. | K | 4.000 |
| | **1.M.16.** | A-68 autobidearen iragazkortasuna hobetzea, Altubeko basoan jarraitutasunik eza ekologikoa murrizteko, Altubeko biaduktuen azpiko espazioa egokituz, eta, horretarako, ertzak landareztatzea, partikularrek beheko egituretan bildutako hesiak eta objektuak kentzea, drainatze batzuetan uholdeak hartu ezin duen korridorea jartzea edo zabaltzea eta pasabide eta drainatzeen urtaroaren araberako erabileraren analisi xehatua egitea. | B | 56.000 |
| | **1.M.17.** | Basoko abifauna espezieen populazioen aldizkako segimendua egitea: arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*), erlatxori europarra (*Pernis apivorus*) eta okil beltza (*Dryocopus martius*); kasu honetan, hala badagokio, kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta bertako habitatetan eragina duten asalduren diagnostikoa jasoko da, populazio horien egoerari eusteko eta/edo hura hobetzeko. | E | 18.000 |
| | **1.M.18.** | NEBen aurkitutako pozoiduragatiko hilkortasun kasuen segimendu protokoloa ezartzea, ingurune naturalean amu pozoituen legez kontrako erabileraren aurkako estrategia nazionalak eta Basa Flora eta Faunaren Batzordearen Ekotoxikologia Lantaldeak proposatutako pozoitze kasuetan jarduteko protokoloak ezarritako gidalerroak oinarri hartuta. | K | 4.000 |
| | **1.M.29.** | Erkidegoaren eta/edo eskualdearen intereseko ornogabeen populazioen segimendua NEB eremuan (*Cerambyx cerdo*, *Rosalia alpina*, *Lucanus cervus*, *Osmoderma eremita, Euphydryas aurinia, Euplagia quadripunctaria Elona quimperiana*). Kasu guztietan jasoko da kontserbazio egoeraren diagnostikoa, eta presioak eta mehatxuak identifikatuko dira, espezie horien egoerari eusteko eta/edo horiek hobetzeko. | E | 18.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria** | | | |
| **Funtsezko elementua** | **Neurria** | | **L** | **Aurrekontua (€) (6 urte)** |
| **1. FUNTSEZKO ELEMENTUAREN, 'Basoak', GUZTIZKOA:** | | | | **569.000** |
| **2. Sastrakak eta larreak** | 2.M.1. | o NEBerako Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Plana idaztea. Horrek, egungo egoeraren diagnostikoa abiapuntu izanik, honako hau zehaztu beharko du:<br>o Larre moten kalitatea eta produktibitatea.<br>o Larreen aprobetxamenduetarako gune zehatz bakoitzaren abeltzaintza karga onargarria.<br>o Artzaintza unitateen mugaketa eta, beharrezkoa balitz, haien arteko txandakatzea zuhaixka eta belar habitaten mosaikoko banaketari eusteko.<br>o Egutegia eta artzaintzan jarduteko gutxieneko eta gehieneko egunak, espezieen eta guneen arabera.<br>o Gaur egungo abeltzaintza azpiegiturak aztertzea eta haien hobekuntza premiak (etxolak, askak, gatzontziak, parasitoen kontrako ontziak, hondakinen bilketa).<br>o Larreak sortzeko eta hobetzeko irizpideak; honak hauek hartuko dira kontuan:<br>o Eraldatzeko moduko azalerak zehaztuko dira.<br>o Eraldaketa metodoak zehaztuko dira.<br>o Larreetan egin daitezkeen zainketak eta hobekuntzak zehaztuko dira.<br>o Ongarrien dosi gomendatuak eta guneen kareztadurak, baldin eta horiek baimentzen badira.<br>o Habitatak eta abeltzaintza-espezieak kontserbatzeko egoeraren jarraipen-protokoloak eta adierazleak.<br>o Baimendu daitezkeen jardunak.<br>o Prebentzio-arauak.<br>o Kasuan kasu, planak abereak kanporatzeko itxiturak ezartzea komeni den jasoko du, izan kontserbatu behar den flora enklabeak preserbatzeko, izan gutxiegi erabilitako gune jakin batzuen erabilera artzaintza gehiegi duten beste batzuen kaltetan bideratzeko.<br>o Halaber, plan hori lurren titular d(ir)en erakundea/ek onartu beharko du, NEBen kudeaketa organoak aldeko txostena egin ondoren. | E | 60.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **2.M.2.** | Funtsezko elementu honetan jaso den Batasunaren intereseko habitaten espazio eta denbora bilakaeraren segimendu protokoloa ezartzea (6 urterik behin). Kontserbazio egoera ebaluatuko da, bilakaera eta horietan eragina duten asaldurak. | E | 30.000 |
| | 2.M.3. | Foru organo eskudunek 2015-2020 LPDren kudeaketan eta, zehazki, 10.1.5 azpineurriari (Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa) lotutako laguntzetarako deitutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak sinatzea sustatzea. Haietan, onuradunen konpromisoen artean, Larregintzako Habitatak eta Abeltzaintza Jarduera Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Planari heltzea eta hura betetzea dago. | K | 150.000 |
| | 2.M.4. | Abeltzaintza sektorearentzako (abeltzainak, elkarteak, erlezainak eta landa garapeneko agentziak) laguntza motei lotutako komunikazio plana, Gorbeiako KBEri lotutako ekoizpen jarduerek bizirautea eta txilardi eta larreen kontserbazio egoera ona mantentzea ziurtatzeko. | K | 30.000 |
| | **2.M.5.** | Gorbeiako KBEn dauden abeltzaintzako azpiegituren inbentarioa egitea, eta horien kontserbazio egoera eta funtsezko elementuak kontserbatzeko ekar dezaketen eraginak ebaluatzea. | E | 20.000 |
| | **2.M.6.** | Beharrezkoa den gutxieneko azpiegitura instalatzea (uraskak, gatz-ontziak) eta jada badagoena mantentzea, azienda larriaren larretze ohiturak orekatzeko. Parkeko larreetan kasu eta toki zehatzetan ageri diren abeltzaintzako gainkargak murriztu egin beharko dira, berariaz kontrolatuz hezegune eta tranpaletan duten eragina. Askak jartzean eta ur puntuak egokitzean, iragazkortasun irizpideak hartuko dira kontuan baso faunarako, batik bat anfibioetarako. | B | 60.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **2.M.7.** | Erlezaintza dinamizatzeko eta berpizteko plan estrategikoa idaztea, gutxienez puntu hauek jasoz:<br>• Osasun arazoak eta Vespa velutina-renak ikertzea eta kontrolatzea.<br>• Plagizida neurotoxikoen erabilera arautzea, murrizteko eta, azkenik, debekatzeko.<br>• Erlauntzak instalatzea sustatzea.<br>• Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea.<br>• Erleen eta polinizazioaren garrantziari buruzko dibulgazioa gizartearentzat.<br>• Polinizazio mapak prestatzea, erlauntzak jartzea behar duten zonak identifikatuko dituena; horietan erlezaintza garatzea sustatuko litzateke. Balio ekologiko handiko eremuetan edo eskuraezinetan polinizazio estazioak jarriko lirateke. | K | 20.000 |
| | **2.M.8.** | Gorbeiako Espezie Mehatxatuen inbentarioa eta katalogazioa eguneratzea, flora-populazioekin lotuta. | K | 24.000 |
| | **2.M.9.** | Flora konposizioa eta mendi larreetako ohiko espezieak zehazteko azterlan berezia (6230*), bai eta sega belardietakoak (6510) larre mesofiloetakoak ere ((6210)*). Habitat horien kontserbazio egoera berrikustea eta orkidea ugariko enklabeak zehaztea; horrela, 6210 habitata egokiro zehaztu ahalko da. | E | 30.000 |
| | **2.M.10.** | *Diphasiastrum alpinum, Ranunculus amplexicaulis, Narcissus bulbocodium, Arnica montana, Lycopodium clavatum, Meum athamanticum, Huperzia selago, Carex strigosa, Genista micrantha, Leontodon pyrenaicus, Rumex aquitanicus, Tozzia alpina* populazioak aldian behin monitorizatzea, bai eta Direktibaren II. eranskinean jasotako beste espezie batzuk ere, besteak beste, *Narcissus asturiensis eta Narcissus pseudonarcissus ssp. nobilis* edo etorkizunean KBEen eremuan identifika daitezkeen flora mehatxatuko beste espezie batzuk. Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. | E | 36.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria** | | | |
| **Funtsezko elementua** | **Neurria** | | **L** | **Aurrekontua (€) (6 urte)** |
| | **2.M.11.** | Aplikatzekoak izango dira *Diphasiastrum alpinum eta Ranunculus amplexicaulis* espezieen kudeaketa planen neurriak (113/2006 eta 117/2006 Foru Dekretuak, hurrenez hurren), bai eta "*EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian "galzori larrian" jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarri teknikoak*' erreferentziazko dokumentuko neurrien programa ere. (IHOBE. 2011ko otsaila). | B | 18.000 |
| | **2.M.12.** | NEBen dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez "galzorian" eta "kalteberak" jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egiteko 2.M.10. jardueran aipatutako erreferentzia dokumentuaren irizpideak hartuko dira kontuan. | B | 24.000 |
| | **2.M.13.** | Goi mendiko eta landazabaleko hegazti faunako espezie populazioen aldizkako segimendua egitea eta arreta berezia eskaintzea mirotz zuriaren, etze txinboaren eta belatxinga mokogorriaren ugalketa aldiaren kontrolari, ugalketa enklabeak ez erretzeko eta lanberritzeko (txilardien, otadien eta beste sastraka batzuen habitatak). | N | 24.000 |
| | **2.M.14.** | KBEn esanguratsuenak diren narrastien populazioen aldian behingo segimendua egingo da, eta bereziki *Lacerta schreiberi*rena. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. | N | 18.000 |
| **2. FUNTSEZKO ELEMENTUAREN, "Sastrakak eta larreak", GUZTIZKOA:** | | | | **544.000** |
| **3. Harpeak,** | **3.M.1.** | NEBeko lurpeko barrunbeen katalogoa sortzea. | B | 18.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| **harkaiztiak eta lotutako habitatak** | **3.M.2.** | Espeleologia talde eta elkarteekin batera Ondare Espeleologikoa Kudeatzeko Plana egitea eta gauzatzea, barrunbeetara sartzeko eta haiek miatzeko. Plan horretan berariazko araudi bat sartuko da, habitat hipogeoen balioen kontserbazioa ziurtatzeko, bereziki kiropteroek kolonizatutako barrunbeen kasuan, bai eta barrunbe bakoitzaren erabilera publikorako harrera gaitasunaren azterlana, hala badagokio, eta barrunbe irisgarrienetarako garbiketa plana ere. | N | 16.000 |
| | **3.M.3.** | *Miniopterus schreibersii*-ren populazioen eta beste espezie kabernikola batzuen aldian behingo segimendua. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Besteak beste, NEBen dauden kiroptero espezierik garrantzitsuenak nahiz estalketan (*swarming site*) bisitatzen dituzten espezieak biltzeko tokiarena egiten duten guneak identifikatuko dira, eta sasoi horretan NEBera erakartzen diren aleen area geografikoa zehaztuko da. | N | 18.000 |
| | **3.M.4.** | Legorras, Gingia eta Artzegi barrunbeetako sarreretan saguzarrentzako itxitura egokitua jartzea. | B | 9.000 |
| | **3.M.5.** | Mairulegorretako kobazuloko faunari eta mikroklimari buruzko aurretiko azterketa egitea. | B | 12.000 |
| | **3.M.6.** | Ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizazioko kanpaina diseinatzea NEBeko kiropteroak kontserbatzearen garrantziari dagokionez. Jarduera hori NEBen erabiltzaile eta bisitari guztientzat, ikastetxeentzat eta bereziki euren jarduerekin espezie horien eta haien habitaten kontserbazio egoera gehien oztopa dezaketen pertsona eta taldeentzat dago pentsatuta: foru zaindegia, basogintza sektorea, baserrien jabeak, espeleologoak, etab. | K | 18.000 |
| | **3.M.7.** | Fauna talde horri, haren ezaugarri eta beharrei buruzko informazio eta zabalkunde panelak instalatuko dira barrunbe irisgarrienen, bisitari gehien jasotzen dituzten eta/edo espezie horientzako balio handiena duten barrunbeen barrualdean (lehen 100 m-ak gainditutakoan): Itxulegor, Superlegor, Elorrea, Mairulegorreta, Legorras, Gingia eta Artzegi. | K | 14.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **3.M.8.** | Flora mehatxatuko populazioak eta harkaiztegiei lotutako habitatetan dauden megaforbioak monitorizatzea, kontrolatzea eta aldizka (3 urtean behin) haien jarraipena egitea. Nigritella gabasiana, Pedicularis tuberosa, Leontodon pyrenaicus eta Tozzia alpina populazioetan jarriko da arreta berezia, baita KBEen eremuan etorkizunean identifikatzen diren flora mehatxatuko beste espezie batzuetan ere. Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. | E | 16.000 |
| | **3.M.9.** | *Nigritella gabasiana* espeziea babestu eta leheneratzeko jarduerak gauzatzea, “EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian ‘galzori larrian’ jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarriteknikoak” erreferentzia dokumentuan jaso diren leheneratze plan bereziekin bat etorriz. (IHOBE. 2011ko otsaila). | E | 6.000 |
| | **3.M.10.** | Funtsezko elementu honetan dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez “galzorian” eta “kalteberak” jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egiteko 3.M.9. jardueran aipatutako erreferentzia dokumentuaren irizpideak hartuko dira kontuan. | B | 18.000 |
| | **3.M.11.** | KBEn funtsezko elementu diren basoko abifauna harkaiztarren espezieen populazioen aldizkako segimendua: sai zuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*) eta belatz handia (*Falco peregrinus*); hala badagokio, kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa jasoko da, aipatutako populazioen egoerari eusteko eta/edo hori hobetzeko helburuarekin. Sai zuriari dagokionez bereziki, espezie horrek EAEn duen mehatxu estatusa eta bizi duen egoera kontuan hartuta, jarraipena urterokoa izango da eta ugalketa parametroen azterketa barne hartuko du. Metodologia estandarizatuak erabiliko dira, eta bi parametrotan arreta berezia jarriko da: ugalketa arrakasta eta produktibitatea. | E | 18.000 |
| | **3.M.12.** | NEBeko espezie nekrofagoen populazioen gutxieneko eskakizun trofikoen balioespen kuantifikatua, ahalik eta modu doituenean, beharrezko biomasa gisa (kg/urte). Era berean, hegazti nekrofagoen populazioentzat eskuragarri dagoen elikagaia ebaluatuko da, populazio horientzat nahikoa den ala ez jakite aldera, eta, hala badagokio NEBren eremuan eta/edo handik hurbil hondakindegiak eta elikagai puntuak egokitzeko beharra aztertuko da. | B | 6.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **3.M.13.** | NEBen sai zuriarentzako funtsezko area definituko da. Espezieak bizirik irauteko eta suspertzeko ezinbesteko eremuak hartuko ditu barne: habiagintza zonak, ugalketa saiakerak egiaztatzen diren enklabeak, etzalekuak... | E | 5.000 |
| | **3.M.14.** | Linea elektrikoetako titular diren erakundeekin batera, arriskua duten lineetan jarduteko plan bat egingo da, linea horietan talken aurkako gailuak eta elektrokuzioaren aurkako neurriak ezartzeko. | K | 18.000 |
| | **3.M.15.** | Ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizazioko kanpaina diseinatzea KBEko hegazti fauna harkaitzarrak (eta hegazti fauna, oro har) kontserbatzearen garrantziari dagokionez. Jarduera hori NEBen erabiltzaile eta bisitari guztientzat, ikastetxeentzat eta bereziki euren jarduerekin espezie horien eta haien habitaten kontserbazio egoera gehien oztopa dezaketen pertsona eta taldeentzat dago pentsatuta: baso jabeak, abeltzainak, foru eta ehiza zaindariak, ehiztarien elkarteak, barrutiak, eskalada taldeak, etab.). | K | 18.000 |
| **3. FUNTSEZKO ELEMENTUAREN, "Kobazuloak, harkaiztegiak eta haiei lotutako habitatak", GUZTIZKOA** | | | | **210.00** |
| **4. Hezeguneak** | **4.M.1.** | NEBeko hezegune nagusietatik Batasunaren intereseko habitatak dauzkatenen inbentario xehea egitea. Hezegune horiek tipifikatu beharko ditu, hauek ere jasorik: haietako bakoitzean dauden landare komunitateen inbentarioa, haien kontserbazio egoeraren diagnostikoa eta kontserbazio neurrietarako proposamen bat (kontserbatzeko edo leheneratzeko arauketak eta/edo jarduketak). | B | 18.000 |
| | **4.M.2.** | EAEko Barrualdeko Lakuen eta Hezeguneen Kalitate Ekologikoaren Jarraipen Sarean dauden laginketa estazioak mantentzea; horien emaitzak urteko jarraipen txostenetan jasoko dira. Arro erakundeak ezarritako laginketa eta balorazio irizpideak izango dira kontuan. | K | 6.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | | Neurria | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **4.M.3.** | Altubeko putzuak leheneratzeko proiektu bat idaztea. Bertan, honako hau jaso behar da:<br>• Perimetro hesia instalatzea.<br>• Erriberako landarediko perimetro landaketak egitea.<br>• Putzuen inguruan dauden drainatzeak eta harpenak kontrolatzea. | B | 24.000 |
| | **4.M.4.** | Saldropoko hezegunea leheneratzea (2015-2018). Jarduketa honetan sartzen dira:<br>• Orain arte Saldropoko hezegunean hartu diren leheneratze neurrien eraginkortasuna kontrolatzea eta haien jarraipena egitea: drainatzeen itxitura, perimetroko hesia, urkien, haltzen eta perimetro heskaiaren landaketak.<br>• Saldropoko sahastiaren heltzea sustatzea, oso erasokorrak ez diren esku hartzeen bidez, ur orria jasotzea, lurzorua istiltzea eta naturaltasun handiagoa errazteko.<br>• Espezie jakin batzuk sustatzeko mikrohabitatak sortzea.<br>• Ornogabeen populazioaren bilakaeraren jarraipena egitea.<br>• Saldropoko antzinako zohikaztegiko biltegiaz geratzen dena kontserbatzea. | B | 80.000 |
| | **4.M.5.** | NEBeko hezeguneetan onargarria den abelburu karga ezartzea. | E | 18.000 |
| | **4.M.6.** | *Ranunculus aconitilolius, Thelypteris palustris, Utricaria australis, Apium inundatum, Spiranthes aestivalis* eta *Sphagnum squarrosum* espezieen populazioak aldizka monitorizatzea, baita funtsezko elementu honetan etorkizunean identifikatzen diren flora mehatxatuko beste espezie batzuk ere. Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. | E | 12.000 |
| | **4.M.7.** | *Ranunculus aconitifolius, Thelypteris palustris* eta *Utricularia australis* espezieak babestu eta leheneratzeko jardueraka, "*EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori larrian' jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarri teknikoak*" dokumentua erreferentzia gisa hartuta. (IHOBE, 2011ko otsaila). | B | 18.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **4.M.8.** | Dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez "galzorian" eta "kalteberak" jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egitean, "*AEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori larrian' jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarri teknikoak*" erreferentziako agiriko irizpideak aintzat hartuko dira. (IHOBE. 2011ko otsaila). | B | 18.000 |
| | **4.M.9.** | KBEen esanguratsuenak diren narrastien populazioen aldian behingo segimendua, eta bereziki *Emys orbicularis*ena. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Era berean, kanpaina horiek apoarmatu aloktonoen espezieak kontrolatzeko eta, hala badagokio, handik kentzeko baliatuko dira. | E | 18.000 |
| | **4.M.10.** | KBEen esanguratsuenak diren anfibioen populazioen aldian behingo segimendua, eta bereziki *Ichtyosaura alpestris*, *Rana dalmatina* eta *Triturus marmoratus*ena. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Aurreko kanpainetan erabilitako zentsu ibilbideak edo metodologiak errepikatuko dira, erkagarri gisa, eta area berriak zabalduko dira, egoki irizten zaionean. | E | 18.000 |
| | **4.M.11.** | Laginketa zehatzak egingo dira erkidegoaren eta/edo eskualdearen intereseko ornogabeek NEBen eremuan duten presentziari buruzko ezagutza hobetzeko. Odonatuen kasuan, laginketa ahalegina, hasiera batean, *Coenagrion mercuriale* Batasunaren intereseko espeziean ardaztu behar da. Haren kontserbazio egoeraren diagnostiko bat barne hartuko du, presioak eta mehatxuak identifikatzen dituena, espezie horren egoerari eusteko edo hori hobetzeko helburuarekin. | E | 18.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| **Funtsezko elementua** | | **Neurria** | **L** | **Aurrekontua (€) (6 urte)** |
|---|---|---|---|---|
| | **4.M.12.** | KBEko anfibioen heriotza eta habitaten zatiketa saihesteko beharrezkoak diren jarduketak. Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:<br>• Baiako Zentraleraino iristeko pista anfibioek zeharka dezaten baldintza egokiak berrezartzea.<br>• Iondegortako urtegiaren barrura erori diren anfibioak kendu eta aldizka askatzea, batez ere otsailetik uztailera bitarteko hilabeteetan.<br>• A-624 errepideak baso igel jauzkariaren (Rana dalmatina) populazioan duen eragina analizatzea eta, hala badagokio, anfibioentzako pasabideak instalatzea egokitzat jotzen diren puntuetan.<br>• Faunarentzako pasabideak instalatzea eta seinale adierazleak instalatzea NEBeko sarrera nagusietan (Saldropo, Sarria eta Murua). | B | 18.000 |
| | **4.M.13.** | Baso igel jauzkariaren ugalketarako laguntzako putzuak kontserbatzea edo sortzea (Oketa eta beste batzuk). | B | 18.000 |
| | **4.M.14.** | Lamioxin urmaeleko zamo txikiaren (*Carassiuss auratus*) populazioa kontrolatzea, baso igel jauzilariaren (*Rana dalmatina*) larben edo apaburuen harraparia izan baitaiteke; hala badagokio, NEBeko putzu eta hezeguneetako anfibioen kontserbazioarekin bateraezinak izan daitezkeen jatorri aloktonoko beste espezie batzuen populazioa ere kontrolatzea. | B | 6.000 |
| | **4.M.15.** | NEBen eremuan eragina duten eragile eta sektoreei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina garatzea, apoarmatu exotikoaren presentzia, hedapena eta bertokoekin lehian sartzeko aukera galarazteko. | K | 6.000 |
| | | **4. FUNTSEZKO ELEMENTUAREN, 'Hezeguneak', GUZTIZKOA:** | | **296.000** |

| 2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Funtsezko elementua** | **Neurria** | | **L** | **Aurrekontua (€) (6 urte)** |
| **5. Ibai sistema** | **5.M.1.** | EAEko ibaien egoera biologiko eta kimikoaren jarraipen sarean dauden laginketa estazioak mantentzea; horien emaitzak urteko jarraipen txostenetan jasoko dira. Se tendrán en cuenta los criterios de muestreo y de valoración establecidos por los organismos de cuenca. | K | 6.000 |
| | **5.M.2.** | NEBen barruan kokatutako saneamendu sistemei buruzko informazio gehigarria eskuratzea, sistema horien inbentarioa egiteko. | K | 8.000 |
| | **5.M.3.** | NEBen barruan kokatutako zuzkidura sistemei buruzko informazio gehigarria eskuratzea, sistema horien inbentarioa egiteko. | K | 8.000 |
| | **5.M.4.** | Ibai korridore ekologikoa eta hari lotutako habitat naturalak kontserbatzeko eta leheneratzeko ingurumen hezkuntzako kanpaina. Jarduera hori Gorbeiaren erabiltzaileentzat eta bisitarientzat oro har, ikastetxeentzat eta, bereziki, beren jarduerengatik habitat horien kontserbazio egoera gehien oztopatu ahal duten pertsonentzat, taldeentzat eta administrazioentzat izango da: foru zaindariak, nekazaritza eta baso jabeak, basogintza elkarteak, administrazio batzarrak, etab. | K | 6.000 |
| | **5.M.5.** | Ibaiertzetan landaredi naturala (tokian egon daitekeen landarediko berezko espezieekin) leheneratzeko eta hobetzeko borondatezko akordioak, gutxienez 10 m-ko zabalerako bandan zerga erreken ertzetan eta 20 m-ko zabalerakoan ibilgu nagusietan ur ibilguek lursail publikoak (herri basoak eta onura publikoko mendiak) zeharkatzen dituzten guneetan, eta 5 m-ko zabalerakoan NEBzeharkatzen duten gainerako ur ibilguetan. Modu horretan, erriberako sistemei lotutako fauna espezieentzako babeslekurako egokiak diren guneak sortu nahi dira. Baso laguntzak emateko politikaren bidez egingo litzateke; laguntza horiek espeziea aldatzeagatiko konpentsazioekin bat etorri ahalko dira NBAPn adierazitako zonetan. Jarduketa horiek guztiak egiteko, arro erakundeen baimen egokiak behar dira. | K | 60.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | Neurria | | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **5.M.6.** | Eskumena duen arro erakundearen aurrean, erabileratik kanpoko aprobetxamendu emakida guztien iraungipena sustatzea, bai eremuan daudenena, bai mugetatik kanpo egonik ere kontserbatzeko helburuak arriskuan jar ditzaketenak, jarduteko lehenespena izanik Altube eta Baia ibaien oztopo zeharkaezinak. Era berean, kontuan hartuko da Baia ibaiarentzat Puron, Omecillo eta Baia ibaien arroetan oztopoen inbentarioan ezarritako jarduketa lehentasuna. | B | 30.000 |
| | **5.M.7.** | Emakidari lotutako oztopoa eraisteko edo iragazkortzeko aukerak aztertzea. Aukera badago, oztopoa eraitsiko da, edo bestela, iragazkortasunerako eraginkorrena den konponbidea aukeratuko da. Ahal dela, ondoz ondoko asken eskalak egin beharrean, alboko arrapalak edo bideak egingo dira. | B | 50.000 |
| | **5.M.8.** | *Prunus lusitanica, Thelypteris palustris* eta *Trichomanes speciosum* espezieen populazioen aldizkako segimendua, baita NEBeko ibai sistemaren eremuan etorkizunean identifikatzen diren flora mehatxatuko beste espezie batzuk ere. Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. | E | 6.000 |
| | **5.M.9.** | *Prunus lusitanica* espeziea babestu eta leheneratzeko jarduerak gauzatuko dira, “*EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian ‘galzori larrian’ jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarri teknikoak*” erreferentzia dokumentuan jaso diren leheneratze plan bereziekin bat etorriz. (IHOBE. Febrero 2011). | B | 3.000 |
| | **5.M.10.** | KBEko euri sisteman dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez “galzorian” eta “kalteberak” jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egiteko *5.M.9*. jardueran aipatutako erreferentzia dokumentuaren irizpideak hartuko dira kontuan. | B | 12.000 |
| | **5.M.11.** | Martin arrantzalearen populazioaren aldian behingo segimendua egingo da. Bidezkoa bada, haren kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatari eragiten dioten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. | E | 6.000 |
| | | *Rana ibericaren* populazioaren aldizkako segimendua. | E | 6.000 |

**2.1. taula. Jarduketen kostuaren zenbatespen ekonomiko orientagarria**

| Funtsezko elementua | | Neurria | L | Aurrekontua (€) (6 urte) |
|---|---|---|---|---|
| | **5.M.12.** | Azterlan bat egitea arrainen habitataren (mesohabitata) ezaugarriak ezartzeko eta NEBen dauden arrain espezie batzuen eta besteen eskakizun ekologikoak zehazteko: populazioaren tamaina, banaketa, kontserbazio egoera eta NEBek espezie horiek barnean hartzeko duen ahalmena. | B | 18.000 |
| | **5.M.13.** | NEBeko funtsezko elementuak diren arrain faunako espezieen (amuarraina eta loina) populazioen aldizkako jarraipena egingo da, urterokoa amuarrain arruntari dagokionez. Hala badagokio, kontserbazio egoeraren, ugaritasunaren, egituraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asalduren identifikazioa barne hartuko du, aipatutako populazioen egoerari eusteko eta/edo hori hobetzeko helburuarekin. | E | 6.000 |
| | **5.M.14.** | Definitutako funtsezko espezieen gainean eragina edukitzeko gaitasun handiena duten arrain espezie exotikoen (lutxoa, eguzki arraina eta perka amerikarra) segimendua eta kontrola, Zadorrako arroan eta Urrunagako urtegiko uretan gora dauden ibai ibilguetan (Undabe ibaia) arreta berezia jarriz. | B | 12.000 |
| | **5.M.15.** | Bertako karramarroaren kasuan (*Austropotamobius pallipes*), urtero txostena egitea (azterlan morfometrikoa, sexua, pisua...), populazioetan antzeman den erregresioa dela eta. | E | 6.000 |
| | **5.M.16.** | *Austropotamobius pallipes* espeziea KBEko ibai sarean tokiz aldatuz hedatzeko plana. Horretarako, banaketari buruzko azterketak zein habitatak karramarro aloktonoen banaketaren arabera duen gaitasuna hartuko dira kontuan, baita baso igel iberiarrik, baso igel jauzkaririk edo bestelako intereseko espezierik ez egotea ere. | B | 6.000 |
| | **5.M.17.** | *Austropotamobius pallipes* populazioarekin interferitu dezaketen lekuetan karramarro aloktonoen kontrol kanpainak garatzea. | B | 18:000 |
| **5. FUNTSEZKO ELEMENTUAREN GUZTIZKOA (‘Ibai-sistema’rena):** | | | | **249.000** |
| **GUZTIZKO OROKORRA:** | | | **1.868.120** | |